

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-11-19
ASTELEHENA
386. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Jakintsuen lehen bilera Bergaran



Kide Oso berriak eta Ugalde. | JAKIUNDE

Barikuan egin zuten Olaso Dorrean, eta hamabi kide Oso berri izendatu zituzten | 4

Espainiako bandera eta beste 25 Eskoriatzako udaletxeko balkoian | 19



Oñatiko Josu Zubia hirugarren gipuzkoar onena kantuan | 31



Frontoi hotz eta arrotza ameskeriaz epeldu zuten Doctor Deseok | 30



Arrakasta erraldoia

'Gigantes y cabezudos' zarzuelari izena ematen dioten pertsonaien tamainako arrakasta lortu du aurtengo lanak. Zapatuan eta domekan, bietan, bete du Arrasateko Amaia | 29

Pilar protagonista —Ruth Osinaga— kantuan, emakumeen abesbatzako beste partaide batzuekin batera. | JOSETXO ARANTZABAL

Kirolean ere euskaraz egiteko deia egin diete bailarako 500 gaztetxori

Kirola euskaraz lelopean, Debagoieneko 500 gaztetxo inguru batu ziren atzo Bergarako Ipintza futbol zelaian. Kirolean ere euskara erabili, errespetuz jokatu eta talde lana egitera animatu zituzten. Ekimenarekin bat egin zuten Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Arantzabal jokalaririk ohiek. | 25

Bergarak hiru puntu eramán zituen Aloñakoen zelaitik (0-2) | 22

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

1+1 doan



► Zoaz 21. orrialdera.

Carrefour GORBEIA



Azaroaren 27ra arte

ZATOZ DOAN
Carrefour

2. alea
-70%

*60€ baino gehiagoko erosketa eginda, Carrefour Gorbeia eta etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinezkoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.
2013ko urtarrilaren 5a arte

Epaitegi-tasek garestitu egingo dute justizia

- ▶ Senatuak onartu berri du tasa judizialen erreforma
- ▶ Gogor erantzun dute abokatuek, epaileek...
- ▶ Doako justizia zerbitzua zaildu egin du Jaurlaritzak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Justiziako eragile guztiak aurka izan arren -Espainiako epaileen organo gorenak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (CGPJ), ere aurkako informea egin du-, Espainiako Gorteek onartu egin dute Justizia Ministerioak presatutako tasa judizialen gaineko erreforma. Horrek seguru asko izango dituen eraginez ohartarazi dute eragile haiek, esanez justizia administrazioa jotzea galaziko diola jende gehienari. Eragina zabala izango da, klase ertainetik behera.

Joan den astelehena aukeratu zuten leku guztietako eragileek protesta egiteko, eta baita Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Debagoieneko hainbat abokatuk ere. Kale-bilkura egin zuten Bergarako epaitegiaren aurrean. Tasek "kopuru altu" horrek "herriarren tutoretza judizial eragin-korrerako eskubidea murrizten" duela ulertzen dute.

Ez da hori justizia arlotik datorren arau-gogortze bakarra; ordaindu ezin dutenek ere zailago izango dute epaitegira jotzea. Izan ere, erreformaren helburua da doako justizia zerbitzua finantzatzea. Hilean 1.100 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenek jaso dezakete doako justizia. Baina, kontuan hartuta beste baldintzak gogortu egin direla, jende gehienak ezingo du doako zerbitzua lortu.

Norbanakoek ere bai

Aurrerantzean, orain arte ez bezala, norbanakoek ere ordaindu beharko dituzte tasak. Bi motakoak izango dira: finkoak eta aldakorak. Finkoak orain artekoak baino 50 eta 750 euro artean garestiagoak dira, eta berdinak dira denondako. Salbuespen bakarrak bi motatako erabiltzaileak izango dira: batetik, doako justizia zerbitzuaren onuradunak; eta bestetik, orden penaletik doazenak.

Lege hori urtarrilaren 2an martxan jartzea aurreikusi da eta, bere eraginez, kasuan kasu, baliteke epaitegira joatea egin

nahi den erreklamazioarengatik lortu nahi dena baino garestiagoa izatea: adibidez, 90 euroko faktura ordain diezaioten erreklamatu nahi duen autonomo batek 100 euro ordaindu behar izatea prozesua hasteko bakarrik. Beste kasu bat: hileko 200 euroko konpentsazio-pentsioa eskatzen den dibortzio prozedura baten, herritarrek 812 euro ordaindu beharko lituzke apelazio-errekurtsoa aurkeztu nahi balu.

Tasak ezartzen dira orden penal ez beste guztietan: zibilean, administrazioarekiko auzi-prozesuetan eta sozialean. Gainera, handitu egiten dira prozesuan aurrera egin ahal: esaterako, Gizarte eta Administrazioarekiko Auzien esparruko apelazio kasuetan 500 euroko garestitzea izango da; eta kasazioen kasuan, 600 eurotik 1.200 eurora igoko dira tasak. Orden sozialean, legeak lehenengo aldiz kobratu gura ditu tasa judizialak erregutze eta kasazio prozesuan.

Debagoieneko abokatuek eta kontra dauden eragile guztiek bereziki kritikatu dutena hau da: justiziara ez jotzeko konbenzitu nahi dituela herritarrek lege horrek, aurrerantzean oso garestia izango delako. Azpimarratzen dute justizia administrazioa erabiltzea Espainiako Konstituzioak batzen duen eskubidea dela. Arrazoi horiengatik, nagusiki, hainbat epailek zalantzan jarri dute legea konstituzionala denik, izan ere, epaileen zaintza eraginkorra jasotzeko eskubidea ren kontra egon daiteke.

Ana Mozos abokatu bergararra Doako Justizia Zerbitzu saila kudeatzen duen batzordeko kidea da Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan. "Justizia eskubide bat da, baina aurrerantzean ordaindu egin beharko da, epaitegira sartzeko momentuan, edo zer ekintza", esaten du.

Nekane San Miguel epaileak "desastre" gisa kalifikatu du tasen judizialen kontua: "Duela 30 urte inguru kendu ziren tasak, eta orain diote epaieketa gehiegi dagoela, jendeak oso arin eta bidegabe jotzen duela epaitegietara. Hori ez da egia".

Epaitegiak, eguneroko gauza

Kontra daudenek gogorarazten dutenez, edozeinek izan dezake halako baten epaitegira joan beharra; ia-ia eguneroko gauza da. Tasa horiekin, desberdintasun larriak edo egoera zentzugabeak eman daitezke.

Lan ordenean, kaleratu duten langile batek erreklama dezake, bidegabeko kaleratzea izan dela esanez. Bada, lehenengo epaiarekin konforme ez eta jarraitu nahi badu, hurrengo bi pausoak 500 eta 750 euro, hurrenez hurren, kostatuko zaizkio, gehi erreklamatzeko duen diruaren %0,5. Langileak ezin badu jarraitu, enpresak izango ditu azkenean aldeko epaia lortzeko aukera gehienak.

Orden zibilean, ahozko epaiketetan, 6.000 eurotik azpiko erreklamazioetan, 150 euroko tasa finkoa ezartzen da; hori, lehen instantzian, hurrengo pausoak 800 eta 1.200 euro kostatuko baitzaizkio eskatzaileari. Eta ohiko epaiketetan, 300 euroko tasa finkoa izango da.

Baina txarrena tasa aldakorak dira: eztabaidan dagoen ondasunaren zati bat ordaindu beharko da tasa gisa.

Hogei dokumentu

Baina baliabide ekonomiko nahikoa ez dutenek ere zailagoa dute dagoeneko justizia administratioz sartzea. Izan ere, doako justizia erabiltzeko baldintzak ere gogortu egin zituen Eusko



Debagoieneko hainbat abokatuk tasa judizial berrien aurkako bilkura egin zuten Bergarako



Justiziaren errepresentazio bat epaitegi baten fatxadetan. | DAN 4TH NICHOLAS

Jaurlaritzak, irailaren 1ean indarrean sartu zen dekretuaren bidez. Hori errekurritu egin dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatuen elkargoei eta Abokatuen Euskal Kontseiluak.

Dagoeneko igarri da epaitegi-prozesuak polikiago doazela aurrera, izan ere, orain dokumentu gehiago eskatzen dira doako justiziaren onuradun izateko, eta

horiek aurkezteko epeak motzagoak dira. Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren esanetan, "behar handiena duten herritarrek defentsa-gabezia arrisku larrian ipintzen ditu" dekretuak.

Ana Mozosen dioenez, Gipuzkoako elkargoa ere haserre dago: "Urteko 14.000 euroko diru-sarrerak izan ditzake gehienek doako justizia jaso nahi duenak, baina

DATUA

%0,5

EURO

Eztabaidatzen den ondasunaren %0,5, hasieran, eta %0,25, hurrengo pausoetan, ordainduko da.

ESANAK

"Epaitegiko edozein pausogatik ordaindu beharko da"

"Doako justizia lortzeko baldintzak ere zaildu egin dituzte"

ANA MOZOS | ABOKATUA



o epaitegi aurrean, joan den astelehenean. | GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGOA

Doako justizia zerbitzua

TASEN ZERGATIA Tasa judicialen helburua da doako justizia zerbitzua finantzatzea. Urtean gehienez ere 14.000 euroko diru-sarrerak (diru-iturri guztiak barne, baita laguntzak ere) dituztenek eska dezakete doako zerbitzua.

MAILEGUA Doako justizia eskatzeak esan nahi du eskatzaileak Jaurlaritzari eskatzen diola bere prozesu judiciala ordaintzea: abokatu, prokuradorea, egon daitezkeen perituak... Beraz, mailegua da.

IKUSTEN DENA Baldintza ekonomikoak dagoenez, unitate familiarren gehieneko diru-sarreraz gain, ikusten dena neurtuko da: eskatzailearen etxebizitza, automobila, inbertsioak... Bizi izateko gutxieneko baliabide batzuk ere akreditatu behar dira.

PROFESIONALAREN BEHARRA Judizialki, hauek dira baldintzak: prozedura judicial bat hasi izana edo hasteko moduan egotea; abokatu edo prokuradorea behar izatea; eta, prozeduran kontrajarritako interes familiarak daudenean –adibidez, dibortzioak–, bakarrik prozedura hasi nahi duenaren baliabide ekonomikoak kontuan hartu ahal izango dira.

POSTAZ Eskatera Orientazio Juridiko Zerbitzuaren bulegoetan egin behar da. Postaz edo norbere herriko Epaitegi Dekanoan ere eska daiteke.

Justizia-eskubidea, zaurituta

Defentsa-gabezia kasu negargarriak ekarri ditzake eta dagoeneko ekarri ditu tasa berrien legeak. Hala, herritar batek bere udala salatu zuen, mantenu faltagatik hankapean saretoa hondoratu eta jausi egin zelako. 50 euroko tasa ordaindu behar izan zuen eta, gero, errekurtsioa onartu ez ziotenez, ohiko apelazio errekurtsioa ipintzearen, beste 800.

Erditzean medikuek egindako hutsengatik alaba garuneko min larriekin geratu zitzaion bikote bati, eta Estatuari 600.000 euroko kalte-ordaina eskatzen zioten. Bada, denetara, 11.300 euroko tasak egokitu zitzaizkien. Auzitegi Goreneraino jo behar izan zuten.

Beste benetako kasu bat: zirkulazio-istripuan tetraplegiko geratu zen gizonezkoak aseguru-etxeei 1,3 milioi eskatu zien. Bada, tasa finkoak eta aldakorrek zenbatuta, 19.550 euro ordaindu beharko lituzke.

Isuna baino tasa handiagoa

Eragin disuasorioa garbiago ikusten da tasak erreklamatzeko dena baino handiagoak direnean: 100 euroko isuna erreklamatzearren, 200 euroko tasa.

Abokatuari, ordain txikia

Doako justizia zerbitzuak honako oinarria du: administrazio publikoak –gure kasuan, Eusko Jaurlaritzak– justizia-eskatzaileari dirua mailegatzeko dio, eta hark, ahal duenean, bueltatu egin beharko du, teoriarik behintzat. Abokatuari eta prokuradoreari ere Jaurlaritzak ordaintzen die. Orain arte behar baino gutxiago ordaintzen ziela diote elkargoek, baina, dekretu berriarekin, horrek ere okerrera egin du: "Asko murriztu dute ordaintzea, eta, gainera, zatika ordaintzen digute". Beste egoera batzuk ere eman daitezke: "Doako justizia eskaera ez bada onartzen, abokatuak pertsona horrekin ordura arte egindako lana ez zaigu ordaintzen. Administrazioari dagokion lana abokatuok egiten dugu askotan", esaten du Mozosek.

Gaineratzen duenez, arazoak dituzte ere doako zerbitzua eman

eta prozesua bukatu eta, kasu batzuetan gertatzen den moduan, Justizia Orientazio Zerbitzuak, doakotasuna dagokion edo ez erabakitzen duen organoak, ez zegokiola erabakitzen duenean. Kasu horietan, abokatuak zerbitzuaren erabiltzaileari erreklamatu behar dio ordaintzea; zenbait pauso eman eta gero, hark ez badu ordaindu, abokatuak konpentsazio bat jaso zezakeen Eusko Jaurlaritzatik. Bada, konpentsazio hori ere kendu egin dute.

Garaian garaiko kontuak

Krisiaren eraginez, gero eta jende gehiagok eskatzen du doako justizia zerbitzua. Ana Mozosek dioenez, "jendeak ondo ezagutzen du aukera hori; dena dela, krisia hasi arte, gure lanaren zati txiki bat zen, eta azken urteetan, ikaragarria da zenbat hazi den eskarera-kopurua".

Krisiak bereizgarri egin dituen egoerak ugaritu egin dira, orokorrean, Mozosen esanetan: diru-maileguekin, etxe-husteekin, hipoteken ordaintzea-azarekin... lotutako kasuak, alegia. Horien artean, denetarik jendea dago.

Dena dela, epaitegi-tako betiko kasuak ere asko dira, abokatu bergararrak dioskunez: "Garaian garaiko muturreko egoerak lantzen ditugu. Denetarik dago: bizilagun-komunitate-tako arazoak, herentziak, lur-eremuak zatitzearekin lotutako kasuak...". Bere esanetan, abokatuaren lana eta jasotzen dituzten kasuak aldatzen joan dira jendartearen aldatzen joan den neurri berean: "Esaterako, 1981ean Dibortzioaren Legea onartu zenean, asko ugaritu ziren eskaera horiek; gero, normalizatu egin zen eta, bestalde, Izatezko Bikoteen legea egin zenean, halako bikoteen disoluzio kasuak hazi ziren".



Ana Mozos abokatua, bulegoan. | L.K.

dena hartzen da kontuan, baita diru-laguntzak eta halakoak. Baina 14.000 euroak diru-laguntza bidez osatzen dituenak ez du zerbitzua ordaintzeko inongo aukerarik izango".

Kritikatzen duten beste gauza bat da orain 20 dokumentutik gora eskatzen direla bakarrik doako justizia zerbitzua eskatu ahal izateko; izan ere, zerbitzu

hori ez da bat-batean ematen, baizik eta jaso nahi duenak eskara egin behar du lehenengo. "Dokumentu batzuk oso nekezak dira lortzen, eta batzuek ez dute inongo zentzurik: adibidez 82 urteko gizonari lan-bizitzaren dokumentua eskatzea. Hala ere, guztiak aurkezten ez diren eskarak artxibatu egiten dira, dokumentu-falta argudiatuta".

ESANAK

"Esaten dute jendeak oso arin jotzen duela epaitegi-tara, baina ez da egia"

"Prozesuak murrizteko tasak jartzea etxea teilatutik hastea da"



Hamabi kide Oso berriak, Jesus Mari Ugalderekin batera. | JAKIUNDE



Ruiz, Ugalde, Elkoro eta Etxenike, Olaso Dorrearen kanpoaldean. | JAKIUNDE

Jesus Mari Ugalde: "Aukeratu ditugunak bikainak dira"

- ▶ Jakiundek hamabi kide Oso berri izendatu zituen barikuan Bergaran
- ▶ Olaso Dorrean, akademiaren egoitza ofizial berrian, egin zuten ekitaldia

Z.V.M./X.U. | BERGARA

"Hamabi jakitun kolpean aukeratzea ez zen erraza izan. Kandidatu asko zeuden, hautagai onak, ezin hobeak, bikainak, esango nuke. Baina guk aukeratu ditugun hauek halakoxeak dira, bikainak". Jakiundeko presidente Jesus Mari Ugalderen adierazpenak dira, egubakoitzean Bergaran egindakoak, hamabi kide Oso berriren izendapen ekitaldian.

Kide berriak Enpresa, Natura eta Gizarte Zientziak, Medikuntza, Humanitateak eta Artearen esparruetatik datoz: Andres Arizkorreta (Ekonomia), Mari Isabel

Arriortua (Kristalografia eta Mineralogia), Agustin Azkarate (Arkeologia), Jose Manuel Castells (Eskubidea), Enrique Etxeburua (Psikologia), Juan Pablo Fusi (Historia), Maria Sonia Gaztanbide (Medikuntza), Joakin Gorrotxategi (Linguistika), Jose Guimon Ugartetxea (Psikiatria), Jose Felix Marti (Neurologia), Juan Inazio Perez (Biologia) eta Juan Jose Zarranz (Neurologia).

Akademiaren ordezkariak esanguratsu baten aurrean hartu zuten kargua; dagokien domina jasota, inbestituak izan ziren, eta euren funtzioak betetzeko esku-

duntza osoa dute aurrerantzean. Ekitaldian, Jakiunde moduko erakunde baten beharra azpimarratu zuten eta bertako kide izendatu izana ohore bat dela gaineratu. Izendapen berri horiekin, 56 dira denera Jakiundeko kide Osoak.

Izendapen ekitaldia eta gero, Akademiako kide Jose Maria Setienek hitzaldia eskaini zuen; Ugalde presidentek aurreikusitako ekintzen, egitarauen eta ekimenen berri eman zuen; eta azken batzar-agiriaren irakurketaren eta onarpenaren ostean, adituek eztabaidarako eta hartu-emanetarako tartea izan zuten.

Donostiatik Bergarara

Berezia izan zen barikuko batzarra, lehen aldiz egin zutelako Jesus Mari Ugalde bergararraren presidentziarekin eta Olaso Dorrean.

Martitzenean inauguratu zuten Olaso Dorrea akademiaren egoitza ofizial moduan; orain arte Donostian kokatuta egon den arren, hemendik aurrera Bergarako Olaso Dorre zaharberrian edukiko du egoitza ofiziala. Inaugurazio ekitaldian izan ziren: Jesus Mari Ugalde, Jakiundeko presidentea; Pedro Migel Etxenike, akademiako ohorezko pre-

sidente; Jose Luis Elkoro, Olaso Dorrea Fundazioko presidentea; eta Carlos Ruiz, Kutxako Gizarte Ekintzako zuzendaria.

Eraikina partekatu

Jakiundek Olaso Dorrea Fundazioarekin batera partekatuko du eraikin zaharberria. Bilera gelak eta bulegoak egokitu dituzte azken solairuan horretarako.

Akademiako lehendakariak egoitza Bergaran kokatu izana garrantzitsua dela adierazi zuen: "Bergara geografikoki erdian kokatutako udalerrria da. Gainera, Olaso Dorreak historia handia dauka atzean; tartean, ilustrazio azterna handia dauka bere baitan". Bat etorri zen Kutxako ordezkaria ere, Olaso Dorrean eginiko inbertsioak merezi izan duela esanez. Eta Ugaldek horri gehitu zion Jakiunderentzat bakarrik ez, Bergararentzat ere aukera ona dela: "Jakintsuentzako soilik izan beharrean, herritar guztientzako akademia izatea nahiko nuke".

Eusko Ikaskuntzaren ekimenez eratu zen Jakiunde, 2007an. Helburua da maila goreneko erakunde-aholkulari gisa, jendartearentzat erreferentziatzako foroa izatea.

Bost gipuzkoar daude AHTren aurkako baraualdian, tartean bi debagoiendar



Grebalariek AHTk platera husten digu leloa margotu dute Arrasaten. | MUGITU AHT

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Duela astebete inguru hasi zuten Bizkaian AHTren aurka egiteko baraualdia; zapatuan lekukoa Gipuzkoara iritsi zen, Antzuolara hain zuzen; eta asteburuan baraualdiari ekin dio Bergara, Oñati, Donostia, Tolosa eta Andoaingo jendeak. Gaur, astelehena, beste lagun bat gehituko da baraualdira, AHTren aurkako desobedientzia mugimenduko kideek azaldu digutenez.

Antzuolan geldialdia

Lekukoa Juan Gorriti nafar eskultoreak egindako *Lurmalko* zurezko irudia da eta Antzuolako gaztetxearen kanpoko aldean hartu zuten gipuzkoarrek lekuko hori zapatu eguerdian.

Indartsu hasi zuten bost gipuzkoarrek baraualdia eta horri aurre egiten laguntzeko iturri

naturaletako ura edaten ari dira egunotan. Antzuolan dagoen iturri natural batetatik hartu zituzten ur litro batzuk zapatu eguerdian eta berriro gaztetxe ingurura joan ziren.

Arratsaldean mendi ibilaldi bat egin zuten eta horrek aukera eman zien bertaratutakoei gure inguruetan AHTren eraikuntza prozesua nola doan ikusteko eta informazioa batzeko.

Domekan Arrasaten

Zapatuko gaua pasata, domekan Arrasatera etorri ziren AHTren aurka baraualdia egiten dabiltzan lagunak. Biteri plazan elkartu ziren 13:00etan eta, herriko jende gehiagorekin batera, *AHTk platera husten digu* leloean, "Ez, ez, AHTrik ez" oihukatu zuten ozen. Datorren astean, Nafarroara pasako dute lekukoa.

Kulturateko aretoa beteta, identitateaz jarduteko

Euskal identitatearen aspektu ezberdinez hausnartzeko proposamenak harrera ona izan zuten

ZURIÑE V.D.M./X.U. | ARRASATE

Kulturateko areto nagusia jendez bete zen eguenean Euskal identitatearen gaineko mahai ingurua jarraitzeko. Julen Iriondok moderatzaile lanak egin zituen eta Julen Arexolaleiba irakasle arrasatearrak, Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak eta Andoni Olariaga filosofoak hartu zuten parte.

Olariagak hartu zuen hitza aurrena, eta 2012an Arrasate moduko herri batean euskalduntasuna nola definitu galdetu izana deigarria suertatu zaiola adierazi zuen. Otamendik aldiz, identitate kontuek burukomin handirik ez diotela ematen adierazi zuen, hain zuzen ere, norta-

sun kontuak euskaldunon artean "aldakorrak" direla konturatu delako denborarekin. Arexolaleibak ere *Berria*-ko zuzendariaren iritzia bera agertu zuen: "Geroz eta jende gehiagorekin eta toki gehiagotan ibili, orduan eta hizkuntza desberdin gehiago erabili, identitatea aldatu egiten da".

Zer da euskalduna izatea?

Egueneko berbaldian, askotan euskalduna euskaraz bizi dena dela esan ohi dela adierazi zuten, baina errealitate hori ez dagoe: "Figura ideala da, baina ez da beti ematen". Hala, identitate antropologikoa eta subjektu politikoak banatu beharko lirakeela adierazi zuten.

Motibazioa bilatu behar

Ados zeuden motibazio ezberdinak bilatu behar direla esaterakoan. Otamendik azaldu zuen jardunak garrantzia handiagoa duela; eta Olariagak, euskara 1. go mailako motibazioa izan behar dela.



Andoni Olariaga, Martxelo Otamendi, Julen Iriondo eta Julen Arexolaleiba. | X.U.

ESANAK

"Euskalduntasuna definitzen ibili beharra deigarria egiten zait"

ANDONI OLARIAGA | FILOSOFIA

"Motibazio ezberdinak bilatu behar dira erabilerarako"

MARTXELO OTAMENDI | KAZETARIA

"Geroz eta leku gehiagotan ibili, identitatea aldatzen doa"

JULEN AREXOLALEIBA | IRAKASLEA

Euskararen aldeko mugimendua indartzeko eragingo du Topaguneak

Bigarren kongresua egin zuen zapatuan Bilbon, 2010ean hasitako hausnarketari bukaera emanez

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Federaziotik Mugimendura lelopean, Topaguneak bere bigarren kongresua egin zuen zapatuan Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, Topaguneak eta Euskaldunon Elkarrekin mugimendua osatzen duten 96 elkarteek amaiera eman zieten hiru urteko hausnarketei: 2010ean hasi zuten hausnarketa prozesua eta, azken hilabeteetan mugimenduaren antolakuntza, finantzazioa, barne komunikazioa eta jardunari lotutako gaiak landu ostean, zapatuan bukatutzat eman zuten prozesua, Zuzendaritzak proposatutako ponentzia eta ondorioen gainean bozketa eginda.

Ziklo aldaketa

Topagunearen presidente Mikel Irizarrek azaldu zuenez, hausnarketa prozesuak gertu utzi du Topagunea euskalgintzaren aro berri bati ekiteko. Bere hitzetan, 30 urteko ziklo bat amaitu berri da euskalgintzan eta, lorpen handiekin batera, "goia jo izanaren sentsazioa" ere utzi du mugarri horrek: "Ikusi besterik ez dago berrikuntza eta hausnarketa beharra nola dabilen euskalgintzako eragileen artean".

Horrek, eta jarduera askoren biziraupena bera kolokan jarri duen krisi ekonomikoak, "ziklo

berri bati indartsu ekiteko beharra" ekarri du. Topaguneko ordezkarien hitzetan, gainera, "ziklo berri horretan eragin handia izango du aro politiko berriak, lankidetzarako aukera handiak zabaltzen baititu herri erakunde eta gizarte eragileen artean".

Ziklo berri horren hezurdu- plangintza potente bat izatea proposatu du Topaguneak, eta giharra berriz euskalgintza berri bat, gizartean eta erakundeetan ondo txertatua eta bi esparruen arteko lankidetzaz sustatuko duena. Bihotzean, azkenik, euskal hiztuna kokatu du Topaguneak, ahalmendua,



Mikel Irizar azalpenak ematen, Euskalduna Jauregian batutakoei. | TOPAGUNEA

jantzia, antolatua eta ekintzaileria, euskara bizipozez biziko duena agoniatik urrun.

Topagunea ziklo berri horri ekiteko gertu eta gogotsu dagoe-

la esan eta elkarlanean jardutera animatu zituen guztiak Irizarrek. Eguerdian, bazkaria egin zuten Bilboko Kafe Antzokian.

LENIZ
ESKORIATZA



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Amaia Uribe Etxebarria | Emaus Gizarte Fundazioko langilea

"Ekonomia solidarioa errentagarria ere bada"

Amaia Uribe Etxebarriak dioenez, ekonomia solidarioko erakundeak irabazi asmo bakoak dira, baina errentagarriak izan daitezke, helburuak betetzeko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Emausen, Hezkuntza eta Sentsibilizazio arloan Ekonomia Solidarioko arduraduna da Amaia Uribe Etxebarria. Bere iritziz, "ekonomia solidarioko esperientzien errentagarritasuna gizartearen zerbitzura jartzen da".

Zertan datza zure lana?

Emaus gizarte fundazioa ekonomia solidarioko erakundea da, Gipuzkoan 30 urte lanean daroagu eta erreferente bihurtu gara arlo horretan. Gure lan praktikoa ardatz hartuta, oso garrantzitsua da sentsibilizazioa eta hezkuntza garatzea, gizartearen eraldaketa bultzatzeko. Ikerketa eta sentsibilizazio lanak egiten ditugu.

Ekonomia soziala eta solidarioa baliokideak dira?

Antzekoak badira, baina badaude desberdintasun batzuk. Ekonomia sozialak ofizialtasun bat du lege aldetik, eta batez ere kooperatibak, lan sozietateak, fundazioak, gizarteratze enpresak... sartzen dira hor. Ekonomia solidarioa ekono-

mia sozialaren enborretik sortu da, alternatiba ikuspuntua dauka eta epe luzean alternatiba gisa aurkezten da. Ekonomia solidarioaren barruko esperientziek askotariko arloak zaintzen dituzte: garapen soziala, ekonomikoa, ingurumenarena, kulturala... Bere printzipioen artean bereziena da irabazi asmorik gabekoa izatea, eta eztabaida dezente pizten ditu horrek ekonomia sozialaren eta ekonomia solidarioaren artean, segun eta nola ulertzen dugun printzipio hori. Gure iritziz, horrek ez du esan nahi errentagarriak ez izatea, baizik eta errentagarritasun hori gizartearen zerbitzura jartzea.

"Ekonomia sozialaren enbor bera du ekonomia solidarioak"

Ekonomia sozialaren lege bat aipatu duzu...

Bai. 2011ko martxoan onartu zen, Estatu mailan, eta errekonozimendua eman dio ekonomia sozialaren erakunde eta esperientziei. Hutsune dezente daude, eta Euskal Herrian komite bat sortu behar da; esperientziak biltzen dituen katalogoa sortu nahi da.

Ekonomia solidarioaz gabiltzanean, GKEak, fundazioak, Eliza... ditugu buruan. Baina norbanakook ere egin dezakegu ekonomia solidarioa?

Ondasun eta zerbitzu ekoizpenen inguruan, beti talde proiektuei egiten diegu erreferentzia. Baina egia da indibidualki solidario izan daitekeela, ekonomia solidarioak kontsumoan, ekoizpenean, finantzaketan, komertzializazioan... ere eragina daukalako. Indibidualki kontsumo arduratsua egiten bada, ekonomia solidarioari bultzada emango diogu. Alternatiba dezente daude.

Debagoiengan benetan solidarioak gara?



Amaia Uribe Etxebarria. | LEIRE KORTABARRIA

Bagarela pentsatzen dut. Beste herrialde batzuetan ere, Argentinan kasu, solidarioak izan behar izan ziren eta ekonomia solidarioak bultzada handia jaso zuen. Hemen ere nabaritzen ari da, poliki-poliki, ekimen txikiak

agertzen eta ugaritzen dabiltzala. Bagara solidarioak, baina gehiago izatea tokatzen zaigu.

Ekonomia solidarioa izan daiteke munduko eredu ekonomiko berria?

Zaila da esaten. Argi dago gaurko sistemak ez duela funtzionatzen. Ekonomia solidarioa bada alternatiba bat. Ekuadorren, Brasilen... legedia aldetik, ekonomia solidarioa konstituzioan sartu dute. Ez dakit ekonomia solidarioa den formula magikoa, baina horrik joan daitekeela pentsatzen dut, bai.

"Solidarioak gara Debagoiengan, baina solidarioago izan behar dugu"



Snatu kooperatiba elkarteak. | SNATU KOOPERELK.

Denetariko jendea deitu dute kooperatibismoaz jardutera

Gazte elkarte batek antolatuta, egubakoitzean Aktion ekitaldia egingo dute Garaia gunean

L.K. | ARRASATE

Hain ohikoa ez da kooperatibismoaren inguruko jardunaldiak gazteek antolatzea, baina datorren astean halako bat izango da Garaia Berrikuntza Guneko Living Lab-ean: Aktion ekitaldia. Egubakoitzean, hilak 23 izango da. LEINN graduako Snatu Kooperatiba Elkarteak antolatuta, Arizmendiarraren Lagunen Elkartearekin batera. Josu Enekotegi, Xabi Igoa, Danel Mazmela eta Elene Arriolak osatzen dute.

Aktion ekitaldian, hainbat gai jorratuko dira, hala nola,

kooperatibismoa, gazteak eta langabezia, dialogo intergenerazionala, gaur egungo baloreak eta beste batzuk. Gonbidatu ezagunak dituzte: Angel Alkain aktoreak "umore kooperatiboa" landuko du, antolatzaileen esanetan; eta Edurne Pasabanek hitzalditxo egingo du.

Goizeko 09:15ean hasiko da ekitaldia eta 14:30 aldera bukatuko da, luntzarekin.

Mahaika banatuko dira

Akzioneko kideen esanetan, "ideia nagusia adin eta esparru desberdinetako pertsonak elkar-

tzea da, hare eta ideia-sormen handiena batzeko".

Horretarako, honako egitaraua antolatu dute: 09:15ean hasiko dira, materiala banatuz; 09:30ean, aurkezpena; 09:45etik 11:00etara, sortzailetasuna eta naturarekiko maitasuna lantzen duen GaraiOn aisialdi taldearekin saio bat izango dute; 11:00etatik 12:30era, World Coffee formula jarraituz, hainbat mahai antolatuko dituzte, istorio banarekin, eta mahai bakoitzeko istorioei erantzukizuna emateko lan egingo dute.

12:30ean izango da umorearen txanda, Angel Alkainekin. Gero, 13:15ean, lanak aurkeztuko dituzte. Bukatzeko, Edurne Pasabanek hitzaldia egingo du, eta bukatutakoan, 14:30 aldera, luntxa egingo dute.

Aldaketak, "guztion" artean

Jardunaldi hori *Guztion parte-hartzetik jaiotzen dira aldaketak, bada garaia* leloarekin antolatuta dute, hortik adin eta profil askotariko jendea joan dadin nahi izatea antolatzaileek.

Besteak beste, honako gaien inguruan gogoeta egiteko aukera eman gura diete parte-hartzaileei: *Zer da kooperazioa? Kooperatibistak gara?; Nolako mundua ari gara eraikitzen?; Zer egin dezakegu gure artean? Eskolan, familian, enpresan, gizartearen...; Hitz egiten dugu gure artean gizarte hone-tan?...*

Etxea husteko diru-sarrerera muga, 19.200 eurotan

Espainiako Gobernuak presazko neurriak onartu ditu kasu larrietan etxe-hustek galarazteko

L.K. | ARRASATE

Etxea hutsik uztera ez dituzte derrigortuko urtean gehienez 19.200 euroko diru-sarrerak dituztenak eta honako baldintzetako bat betetzen dutenak: familia ugariak, 3 urtetik azpiko umeak dituztenak, mendeko norbait bizi denean bertan, langabezia prestazio bako langabeak edo genero-biolentzia biktimak izatea. Bestalde, errenta sozialetan emateko etxebizitza-poltsa osatuko da, dagoeneko etxebizitza galdu duten familiendako. Hala islatuko da Espainiako Ministroen Batzordeak etxe-husteen inguruan egunean onartu zuen errege-dekretuan.

Horrez gain, lege-dekretu berean, bankuen praktika on gehiago zehaztu zituzten.

Neurriak azkenean PPK bakarrik egin ditu, joan den aste osoan PSOerekin itun bat egiteko negoziazioek porrot egin ondoren. Hala ere, diru-sarreraren muga hori PPK eta PSOEk adostutakoa izan zen, eta halaber beste presazko neurri batzuk.

Espainiako presidenteordeak, Soraya Saenz de Santamariak, esan zuen "lehenengo fase bat" direla neurri horiek, eta gehiago ere etorriko direla.

Edozein modutan, Bruselak ohartarazi du lege berria Europako Batzordearekin eta Europako Bankuarekin kontsultatu beharko duela Madrilek lehenengo. Nazioarteko Diru Funttsak analisi teknikoa ere egin beharko du. Izan ere, lege-aldaketek eragina izan dezakete Espainiako bankuak onera ekartzeko saneamendu planean.

Bi urteko luzapena

Espainiako Bankuen Elkarteak (AEB), bere aldetik, astelehenean esan zuen "muturreko premiak" dauden kasuetan bi urtez bertan behera utziko dituela etxe-hustea eragiteko prozedurak. Dena dela, "muturreko" kasu horiek zeintzuk diren ez dute xehetasunik eman: "Gaixo larriak, mendekotasuna dutenak, adinekoak edo umeak dituztenak izan litezke muturreko kasuak", esan dute.

Anaitze Agirre | Gipuzkoako SOS Arrazakeriako kidea

"Azaletik mamira pasatu behar dugu eta atzean pertsonak daudela ikusi"

- ▶ Gipuzkoa Solidarioaren hirugarren edizioa ari dira ospatzen SOS Arrazakeriakoak
- ▶ 120 familiak euren etxeetako ateak ireki zituzten atzo Gipuzkoan, elkar ezagutzeko

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

SOS Arrazakeriako kidea da Anaitze Agirre eta erakundearen barruko Mugak Dokumentazio Zentroan egiten du lan. Hemen go eta atzeritik etorritako familiek elkar ezagut dezaten Bizilagunak deituriko programaren aurreneko hitzordua izan zen atzo Gipuzkoa osoan, eta aitzakia horrekin ekarri dugu GOIENAKo orrietara gipuzkoarra.

Sentsibilizazio arloa oso garrantzitsua da zure lanean.

Hala da. Kontua ez da orain jendeak aurreiritzi gehiago dituela edo arrazistagoak garela. Arazoa egoera okertzen ari dela da, eta lehen jendeak pentsatu bakarrik egiten zuena orain esan egiten du, eta horretarako eskubidea daukala uste du, gainera. Krisiak ez du arrazakeria sortzen, baina areagotu egiten da etorkinekiko jarrera txar hori.

Gipuzkoa Solidarioaren hirugarren edizioan murgilduta zaudete.

Bai. Duela hiru urte egin genuen aurreneko aldiz, eta, ekitaldiren bat antolatuz, etorkinek jendarteari egiten dioten ekarpena errekonozitzeko helburua dauka. Ekarpina zentzu zabalenean; hau da, beraiek gu hautatu gaituzte bizimodu berria aurrera eramateko. Etorkinentzako ere oso garrantzitsua izan zen lehenengo edizioa, jendarteari beste mezu bat iristarazi nahi baikenion. Eta gainera, instituzio ezberdinetako pertsonak egotea, aintzatespen hori egiten, benetan garrantzitsua izan zen.

Atzo egin zen Bizilagunak programa da Gipuzkoa Solidarioaren barruan antolatutako ekimenetako bat da, ezta?

Bai. Egitasmoaren oinarria izan da familia ezberdinek (direla bertakoek eta baita atzeritarrek ere) beraien etxeetako ateak irekitzea eta, mahaiaren bueltan bazkari baten bidez, familia bik elkar ezagut dezatela. Atzo izan zen egun handia, eta Europa mailako hitzordua izan zen. Gipuzkoako 120 familiak hartu dute parte, eta tartean Arrasateko bat ere egon da. Pozik gaude erantzunarekin; etorkinekiko beste jarrera bat daukan jendea dagoela ikusi dugu.

Eta zer-nolako jendeak hartu zuen parte atzo?

Denetarik dago. Pertsona askok etorkinekiko jendarteak duen jarrera ezkorra dela ohartuta eman dute izena, beste moduren



Anaitze Agirre, Donostiako bulegoan. | SOS ARRAZAKERIA

batean jokatu gura dute-eta. Beste toki batzuetako lagunak edukitzea gura dutenak, baina hori nola lortu ez zekitenak ere etorri dira. Etorkinen aldetik ikusi dugu ez daukatela inongo arazorik integratzeko, aukerarik ez daukatela da kontua. Guk giroa edo momentua sortu dugu jendeak hartu emana izan dezan.

Orain, harremana lantzeko ueña iritsi zaie orduan.

"Krisiak ez du arrazakeria sortzen, areagotu egiten du jarrera txarra"

"Etorkinek ez dute integratzeko arazorik, aukerarik ez dutela da kontua"

Beraiek ikusiko dute aurrera jarraitu gura duten laguntasun horrekin, baina, nire ustez, aukera polita da egun bakarrekotua barik, harreman estuagoa sortzeko.

Guk beti esaten dugu, gainera, mundua gure etxeko atarian dagoela, eta hori da kontua. Hau da, askotan jendeak kultura berriak ezagutzeko asmoz beste herri batzuetara bidaiatzen duela ikusten dugu, eta hemen bertan dauzkagu herrialde horietako gizon-emakumeak.

Eta adibidez, ingelesa ikasten ari den norbait, mintzapraktika egiteko, Nigeriako norbaitekin elkar daiteke bertako norbait ezagutzen baldin badu. Edota Marokokoak nolakoak diren ez dakidala eta aukera daukat, ordu pare bat eskainita, estereotipotik ateratzeko.

Bertakoentzat bai, baina, esan bezala, etorkinentzat ere aukera ona izan da Bizilagunak ekimena. Askotan entzuten dugu ez dutela integratu nahi, bakarrik beraien

artean erlazionatzen direla, eta ez da horrela. Zein beste aukera eduki dute? Oso positiboa izan da beraiek ere animatzea ekimenean izena ematera, haien sare soziala zabaldu egin baita. Bi aldeontzako oso onuragarria izan da, elkar ezagutu, mahaiaren bueltan bazkari goxoaz momentu on batez gozatu eta hortik aurrera zerbait gehiago irtenez gero, bikain.

"Aurreiritziekin bakarrik moldatuz gero, hor has daiteke arrazakeria"

"SOS Arrazakerian lan egin arren, nik ere asko ikasten dut estereotipoez"

Aurreneko aldia izateko eduki duen erantzunarekin, datorren urtean ere antolatuko duzuen susmoa daukat...

Asmoa hori litzateke, ezbairik gabe, ea aukera dagoen. Estereotipo eta aurreiritziak apurtzeko oso baliagarria izan da. Niri ere balio izan dit; nahiz eta SOS Arrazakerian lan egin, antolaketaren unean gauza asko ikasi ditut zorionez.

Ikasi esaten duzu, oso garrantzitsua da ezagutza iritzia edukitzeko.

Ezinbestekoa. Horren harira, Bizilagunak programan hiru seme-alaba dituen emakume dibortziatu donostiar batek esan zidan izena eman zuela pedagogia kontuengatik. Hau da, gureaz gainera, beste kultura, beste ohitura eta hizkuntza batzuk existitzen direla erakutsi gura izan die seme-alabei.

Tamalez, oraindik aurreiritzi asko daude jendartean.

Aurreiritziak ezjakintasun horretatik datoz. Errealitate bat ez duzunean ezagutzen lau ideiarekin maniatzen zara errealitate hori ulertzeko. Eta ez da txarra, soziologian horrela dago azaldu eta fenomeno normal bat da. Baina aurreiritzi eta estereotipoekin bakarrik moldatzen baldi bazara beti, arazo bat daukazula esan daiteke, eta hor has liteke arrazakeria.

Denok izaten ditugu aurreiritziak, ezta?

Bai, noski, eta ez dago gaizki, baina azaletik mamira pasatu behar dugu, eta guztiaren atzean pertsonak daudela ikusi. Adibide bat ipintzearen, galdetegi bat egin dugu Bizilagunak programarako, eta ikusi dugu desberdintasun asko egon arren, zale-tasun kontuetan berdin-berdinak garela.

Domeka honetan, azaroaren 25ean, emango diozue amaiera Gipuzkoa Solidarioari.

Ezin dut ezer aurreratu. Baina Bizilagunak bazkariak horren parte izan ziren, eta orain urteroko ekitaldi nagusia egingo dugu Kursaallean, bazkariak oinarri hartuta. Aurten auditoriumean izango da, eta horrek esan gura du jende gehiago sartzen dela, 1.200 lagun inguru. Beraz, guztiok zaudete gonbidatuta parte hartzera. Ikusizunez betetako jaia izango da, zuzeneko musika egongo da, antzerki emanaldia, bideo batzuk emango ditugu...

ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA
http://goiena.net/iritzia/



Milurteko garapen helburuak

Zer da? 2000. urtean Nazio Batuetako Batzar Nagusiak *Milurteko deklarazioa* kaleratu zuen, eta, horren arabera, herrialde txiro zein aberatsek beren gain hartzen zuten pobrezia ezabatzeko ardura, giza duintasuna eta berdintasuna bultzatzeko konpromisoa eta bakea, demokrazia eta ingurune-iraunkortasuna lortzeko asmoa.

Hori horrela izanik, Debagoienean, Caritas eta Misiok erakundeek sentsibilizatzeko kanpaina bat antolatu dute, eta orain hasiko gara bideratzen.

Zeintzuk dira milurteko garapen helburuak? 1-Pobrezia gorria eta gosea errotik murriztea; 2-Lehen Hezkuntza Unibertsala lortzea; 3-Emakumearen begirunea. Generoen arteko berdintasuna; 4-Haur heriotza tasa murriztea; 5-Amen osasuna hobetzea; 6-Hiesari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea; 7-Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea; 8-Garapenerako mundu bat sustatzea.

Hala eta guztiz ere, kanpaina honetan lehenengo helburuari lotuko gatzazkio batez ere, pobrezia gorria eta gosea errotik murriztea. Edozelan ere, gainontzeko helburuak ez ditugu baztertuko, horiek guztiak garrantzi handikoak baitira giza mailako anaitasuna lortzeko. Gainera, garapen helburu guztiak elkarri lotuta daude eta bakoitzaren aurrerapausoak gainontzekoei aurreratzen lagundu egiten die. Goseak eta desnutrizioak pobrezia iraunarazten du.

MGHn garrantzizkoak dira hauek: 1-Garapen helburuak dira, oinarriko giza eskubideak gauzatzen dituenak; 2-Gizabanakoaren oinarriturik daudelako; 3-Neurgarriak dira eta epe jakin batean lor daitezke; 4-Orain arte izan ez duten babes politikoa dute; 5-Herri garatu nahiz garatze bidean daudenak derrigortzen dituzte; 6-Heldu daitezke, errealistak dira; are gehiago, asmo handikoak ez dira; 7-Helburu batzuen arrakastek besteengana eragina dute.

USTEAK USTE

LEIRE KORTABARRIA | lkortabarria@goiena.com

Oñatiko zinemari, Oskarra!

Poztu naiz Oñatiko zinemaren arrakasta jakiteaz: 1.800 ikusle *Lo imposible* filmerako (eta gehiago ez, aretoan kabitzen ez zirelako). Ondo diot: arrakasta, filmarena ez ezik, Oñatiko zinemarena da. Zergatik? Bada, areto ona eta modernoa daukagulako; tamainakoa, eroso eta atsegina (Santa Anako emanaldiekin akordaten naiz... antzoki handiegia zen eta hotza ere egiten zen, beste desabantaila batzuen artean). Bestetik, kultura arduradunek apustu garrantzitsua egin dutelako film estreinatutako berrien eta erakargarrien alde, zineklub zaindu batekin konbinatuta. Eta, zer esanik ez, sarreren prezio arazoizkoa: 4,5 euro, hiriburuetako sarreren erdia.

KALE INKESTA

Zer deritzezu etxe-husteei?




JOAQUIN MERINO
ARRASATE

"Ez dut batere ondo ikusten etxea kendutakoan hipoteka ordaintzen jarraitzea, dagoen langabeziarekin".




AINHOA SANCHEZ
ARRASATE

"Nire iritziz, aldatetaren bat egon beharko luke; izan ere, horrela ezin dugu jarraitu, horrela ez goaz ondo".



RUBEN HERNANDEZ
ARRASATE

"Bizitza osoan ongi ordaintzen egon eta laguntza behar dutenean oztopo horiek jartzea ez zait ondo iruditzen".



ANAMARIA MARTINEZ
ARETXABALETA

"Guztia alderantziz ari dira egiten, zergak igotzen ari dira, eta familia asko kaltetzen ari dira".

HANDIK ETA HEMENDIK

David Millar eta dopina, gezurrek elikatutako munduaren dekadentzia

Jon Torner
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

David Millar eskoziarraren historia txirrindularitzaren garairik beltzenetako baten isla da.

Erlojuaren kontrako Munduko txapelkun izana (2003an) eta Frantziako Tourrean etapak irabazitakoa, 2004an bi urterako zigortu zuten EPO kontsumoagatik.

C+ telebista kateak emititzen duen *Informe Robinson* saileko erreportaje honetan, "zirkulazioa maite eta dopinaren mundua gorrotatzen duen gazte idealista bat" EPOa injektatu eta atxilotua izatera zerk eramaten duen kontatzen du Millarrek berak.

Azken boladan ikusi dudana elkarrizketarik interesgarrienetakoa da, "gezurren gainean" eraikitako mundua azaleratzen duena protagonista batzuen ahotik.

Berandu baino lehen erosiko dut erreportajeak hizpide duen *Racing Through the Dark (Pedaleando en la oscuridad gaztelaniaz)* liburu biografikoa (frantsesezko bertsoia ez dute oraindik argitaratu).

Hamabost urte barrurako hitzordua

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Hamabost urte barru izango da paperezko egunkaririk?

Hauxe da Bingen Zupiria zuzendariak gaur iluntzean egin duen galdera, *Deia*-ren hogeita hamabosgarren urtebetetzea dela-eta, Bilboko Alhondigan izandako ospakizuneari.

Zer gerta ere, hamabost urte barru berriro elkarrekin biltzeko gonbitea egin digu, ondoko hiru zertzeladak frogatzeko, besteak beste: bizirik gauden, paperak dirauen eta *Deiak* darraien.

Ni joango naiz. Hogeita hamabost urte (1977) dira, bai, *Deia* sortu zela, eta hogeita bost (1987)

Kazetaritza Fakultatean eztabaidatu genuela 2012an paperezko egunkaririk izango ote zen.

Elkarren arteko ñabarduren gaintik, baietz iragarri genuen mahaikide guztiak.

Oraingo ikuspegitik begiratuta, ez dut uste lar harrigarria izan zenik orduan asmatu izana.

Nabarmen harrigarriagoa deritzat, paperezko euskarriak hogeita bost urte iraungo ote zuen 1987an zalantzan jartzeari.

Alhondigako ekitaldi berean, Xabier Lapitzek galdetu dio Jose Luis Bilbao aldun nagusiari zeintzuk ote lirakeen berak lehen orrialdean irakurri nahi izango lituzkeen albisterik azpamarragarrienak. Eta Bizkaiko nagusiak hegatzadaren letxe erantzun. Bat: "Lanik gabeko inor ez da Euskadin geratzen". Bi: "Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartuko du Europako estatu-buruen bileran". Eta, hiru: "Euskadik Espainiari irabazi, Europako futbol-txapelketaren finalean".

Diputatu Nagusiak ez du urterik aipatu, ez eperik jarri. Behar bada, Xabier Lapitzek galdetu ez diolako.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailatoko arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Mireya Azpiazu eta Edurne Horta | Aisia Deba eta Aisia Lekeitio

"Aisia Hotelek eraberritu egiten dituzte ezkontzak"

Aisia Debako eta Aisia Lekeitioko zuzendaritza berriek bertako produktuen alde egiten dute tokian tokiko eskaintza gastronomikoan txertatzeko; esaterako, Ondarroako arrainak eskaintzen dituzte menuetan

Zelanegingo diote aurre Aisia Hotelek berez negatibo datorren 2013ari?

Egoera ekonomikoa txarra izan arren, Aisia Hotelek ikuspegi positiboa dute; izan ere, gaur egun, aurreko urteetan baino bankete gehiago gabiltza ospatzen.

Batetik, Aisia Debako jatetxeko arduradun Mireya Azpiazuk jakinarazi digu oso pozik dagoela aurten ezkontzen atalean izandako emaitzarekin, eta 2013rako aurreikuspena ona dela jakinarazi du. Horren harira, cocktailen itxura berritzen dihardute, eta ezkontzetako menuak aldatu egin dituzte, bertako produktu ugari sartuz.

Bestalde, Edurne Hortak ere, Aisia Lekeitioko (Emperatriz Zita) jatetxeko arduradun berriak, modu positiboan baloratu du bezeroek proposamen gastronomiko berriari egindako harrera. 2013ko aurreikuspenari dagokionez, berriz, Edurne Hortak oso modu positiboan ikusten du, bereziki, bestelako arlo batzuk ere lantzen badihardutelako; adibidez, kafetegirako neguko



Mireya Azpiazu eta Edurne Horta, Aisia Debako eta Aisia Lekeitioko jatetxeetako arduradunak, hurrenez hurren.

karta, herritarrek eurek oso ondo hartu izan dutena.

Ze elementu bereizgarri dituzte Aisia Hotelek konpetentziarekiko?

Aisia Hotelek Kantabrian eta Euskal Herrian sei establezimendu dituzte.

Aisia Hoteletan, txoko bakoitza gozamenerako eta erlaxaziorako pentsatuta dago.

Definitzen duten kontzeptuak dira ingurumenarekiko errespetua, kalitatezko gastronomia sortzailea eta hidroterapia, osasunaren eta

edertasunaren formula moduan. Identitate propioa duten espazioak dira, kokagune pribilegiatueta daudenak, diseinu moderno eta gaurkotuarekin, eta gainera, zerbitzu eta harrera profesionala eskaintzen dutenak.

Lantaldea da bere arrakastaren gakoa. Aisia Deban zein Aisia Lekeitioko hotelen zuzendaritzak aldatu egin dira, eta gidaritzarako bertako langileak aukeratu. Hala, Aisia Deban Mireya Azpiazuk dihardu, Xagit Andonegi sukaldeko buru duela. Aisia Lekeitioko, berriz, Edurne Hortak Javier Ugarterekin batera talde ederra osatzen dute.

Aisia Debako eta Aisia Lekeitioko jatetxeetako arduradunek arrakastaren arrazoiak azaltzen dizkigute.

Hasteko, hotelen kokaguneak, hondartzako lehen lerroan, jatetxetik bertatik bista paregabeak eskaintzen dizkigu. Gure terrazak, zeremonia ospatzeko perfektua izateaz gainera, gure cocktailen eskaintza berria probatzeko lekurik onenak dira. Banketeari dagokionez, kalitaterik hobereena duen gastronomia dugula nabarmendu behar da, produktu freskoz osatutakoa, Ondarroako arrainak, esaterako. Horri guztiorri ezkontzaren erabateko pertsonalizazioa gehitzen badiogu, Aisia Hotelek era guztietako ospakizunetarako leku aproposa eskaintzen dute.



aisia HOTELES

AISIA DEBA

Markiegi 6 • 943 60 80 52
deba@aisiahoteles.com

AISIA LEKEITIO

Santa Elena Hiribidea • 946 84 26 55
lekeitio@aisiahoteles.com

ERLAXATU ETA GOZATU


- Mariskada ederra
- Aisia Relax
- Udazkeneko eskaintza
- Egonaldi termala



www.aisiahoteles.com

902 82 09 97

Debagoieneko GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tari-mak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

HERRIAK

ANTZUOLA

Buztinzuriko ziburu berriak arrakastaz estreinatu dituzte

Eguazten arratsaldean zabaldu zuten eskola aurreko umeendako jolas-parkea

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Eguazten eguerdian azken ukituak ematen topatu genituen udaletzeko brigadako bi langile Buztinzuriko jolas-parkean. "Margotze lanak bukatu eta listo. Dagoeneko hesia ere kendu dute eta gaur arratsaldean guztiz zabalik egongo da parkea guraso eta umeendako. Zuhaitzak inauten gabiltza eta lan hori egitea faltako da soilik", azaldu digute langileek.

"Eguraldi ona lagun izan dugu asteen, eta horrek margotze eta txukuntze lanak egiteko aukera eman digu. Aurreko astetan euria egin zen; horregatik eguaztenean atzeratu dira aipatutako lanak jolas-parkean. Baina dagoeneko ikusten duzuen moduan umeak irrikitan daude eta hasi dira parkeaz disfrutatzen", nabarmendu digute.

"Eskola aurreko jolas-leku lanak aurreratzeko, euria ez egitea eta sorua lehorra egotea komeni zen; horregatik eguaztenean bukatu dira lanak, eguaztenean laguntza izan dugu-eta aste honetan", azaldu digu Iñaki Yarza Hirigintza zinegotziak.

Prozesu parte-hartzailea

Proiektu berezia izan da honakoa. Izan ere, elkarlanean eta parte-hartze prozesuan aurrera ateratu dute egitasmo hau. Antzuolako Udalak, eskolak eta Pausoka Guraso Elkarleak elkarlanean bultzatutakoa izan da, alegia. Iñaki Yarza Hirigintza Batzordeko buruak azaldu duenez, "geneu-



Jolas-parkeaz gozatzeko irrikitan, ume askok ezin izan zuten itxaron brigadakoek txukuntze lanak bukatu arte. | M.A.

kan aurrekontuaren arabera, hainbat enpresari eskatu genien eskola aurrerako jolas-parkea egiteko proposamenak aurkez zitzatela eta zazpi proiektu jaso genituen".

Horien artean bat aukeratu beharra zegoen eta, alde batetik, eskolako umeek izan zuten euren iritzia azaltzeko eta aukeraketa egiteko aukera; horretarako ezinbestekoa izan da Herri Ikaste-

txearen laguntza ere. Gelaz gela, proiektuak ikusi, eztabaidatu eta bozkatu egin zituzten.

Bestalde, eskolako sarreran jarri zituzten ikusgai proiektuok eta deialdia egin zien Udalak guraso eta umei, hamar egunen buruan, urriaren 2an, eskolako sarreran bertan elkartu eta denen artean proiektu bat aukeratzeko. "Jolas-parkearen protagonistak umeak dira eta,

haiekin batera, baita gurasoak ere; horregatik, aukeraketan parte-hartzeko aukera eman nahi izan diegu", azaldu digu Yarzak. Hala, urrats bat gehiago eman du Antzuolako Udalak prozesu parte-hartzaileen aldeko apustuan.

Modu horretan, guraso eta umeekin egindako bileran eta bozketan, zazpigarren aukeraren alde egin zuten gehienek; eta

horixe izan da Buztinzurin jarri duten jolas-parkea.

Yor enpresa

25.000 euroko aurrekontuarekin, 24.412,43 eurotan esleitu zaio Gasteizko YOR enpresari. Goitik behera berritu dute jolas-parkea, lurzoru zaharra aprobetxatuz eta azalera nabarmen handituz. Udalak finantzatu du %100ean, horretarako gordeta zeukan diru partidarekin.



Argazkian herriko gaztetxoei gehien erakarri dien ziburua. | MAIDER ARREGI



MIREN
ANTZUOLA

"Dena gustatzen zait. Orain lagunekin egongo naiz. Beti etorri nahi dut txirristan ibiltzera. Lehen ez zeuden jolas-parke asko Antzuolan eta orain oso pozik gaude".



ALEX
ANTZUOLA

"Oso gustora gabiltz eta ez dugu parketik irten gura. Den dena gustatu zaigu, oso polita da eta nire lagunekin ondo ondo pasatuko dut".



AROA, IKER ETA JON
ANTZUOLA

"Gora eta behera ibili gara: saltoka, ziburuan, txirristan gora eta behera... Askok gustatu zaigu jolas-parke berria. Orain egunero etortzea nahi dugu. Eskolatik azkar irten . eta hemen jolas egitera etorriko gara aurrerantzean grue laguntxoekin".



Asteburuan Labegaraietan egon dira 35 autokarabana. | JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

Autokarabanazaleei lekua eta plana eskaini guran

Udaleko Turismo Saila haientzat lekuak egokitzea aztertzen dabil

JON BEREZIBAR | BERGARA

Herrian autokarabana turismoarentzat aurki daitezkeen aukerak aztertzen dabil Bergarako Udala eta horretarako Sorbeltz Autokarabana erabiltzaileen euskal elkarteko kideak asteburu pasa etorri ziren zapatuan. 35 autokarabana Labegaraietan aparkatuta, zapatu eta domekan makina bat ekintza izan zituzten aukeran Bergarako ondarea eta inguruetan aurki daitezkeen paisaiak ezagutzeko. Bisita gidatuak, bazkaria eta ibilaldiak izan zituzten eta baita herriko eskaintza kulturalaz gozatzeko aukera ere.



Zapatu goizeko bisita turistikoa. | JOSETXO ARANTZABAL

Sorbeltz elkarte

Autokarabana erabiltzaileen euskal elkarte batzen dira euskal autokarabanazaleak eta helburu ludikoa du elkarteak, irteerak antolatu eta informazioa banatzeko. Horrez gain, administrazioei eskaera egiten die autokarabanentzako espazioak egokitze, eta turismo mota hau hobeto erregulatzea ere eskatzen dute.

JAVI SAIZ
SORBELTZ



"Ematen duen askatasunarengatik aukeratzten dugu aisialdi mota hau. Elkarteak familia gazteak eta bikote nagusiak aurki ditzakezu".

JULENE AGIRRESAROB
ERABILTZAILEA



"Asteburu baten mini-oporrek izatea bezalakoa da. Deskonektatzeko modu hoberik ez dago, askatsuna ematen dizu".



ARRASATE

JOSETXO ARANTZABAL

'Berria' ziztatu dute Arrasaten

Berria egunkariaren aldeko ziztadak jaso zituzten zapatuan Arrasateko Seber Altube plazan, baseritarren azokako girora jendea hurbiltzen dela aprobetxatuz. Tonbola jarri zuten eta boletoak saldu, euro baten. Dezente saldu zituzten, baina ez guztiak -2.000 atera dituzte-; hori dela eta, ez dute baztertzen, geratu direnak errifa eran-edo saltzea. Arrasateko Euskalgintzako kideek jardun zuten lanean. Urtarrilerako, "Amaia antzokia jendez beteko duen ekitaldi bat" ari dira prestatzen.

ONATI

Banatu dituzte argazki lehiaketako sariak

Bariku iluntzean egin zuten ekitaldia, Mendi Hamabostaldiko emanaldia hasi aurretik

GOIATZ ARANA | ONATI

Andoni Epelde, Iosu Garai, Xabier Mata, Iñaki Idigoras, Manu Colino, Juan Jose Lopez, Asier Egaña, Ngoc Anh Bach, Iñigo Olarte eta Iokin Astigarraga. Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako argazki lehiaketako aurtengo irabazleak dira eta bariku iluntzean jaso zuten errekonozimendua, kultura etxeko zine aretoan. Horien lanak eta beste hainbat, 44 guztira, salgai jarri ditu mendi taldeak, 40, 60 eta 90 eurotan,

eta batutako dirua Baltistan Fundazioarentzako izango da.

Hamargarrenera begira

Iaz paperetik digitalerako jauzia eginda, nabarmen egin du gora lehiaketara aurkeztutako kopuruak -234 aurtentz-, eta ez hori bakarrik: gero eta gehiago dira kanpotik jasotzen dituzten argazkiak ere. Bada, bietan sakontzea izango dute helburu datorren urtean, argazki lehiaketaren hamargarren edizioan.



ARGAZKILARIA: ANDONI EPELDE




ANDONI EPELDE



MANU COLINO



IÑAKI IDIGORAS



ASIER EGAÑA



IOKIN ASTIGARRAGA

ESKORIATZA

Atxorrotzeko indusketen gaineko bisita gidatuan 60 lagun inguru elkartu ziren

Iñaki Sagredok eman zituen orain arte egindako lanen inguruko azalpenak

AMAI TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Atxorrotz puntako haize hotza zela-eta, mendi tontorrean dagoen ermita barruan hasi zen Iñaki Sagredo azalpenak ematen zapa-
tu goizean egindako bisita gidatuan. Sagredok kontatu zuen uste dutela tontorrean dagoen ermita hori dagoen lekuan zegoela garai batean bertan kokatzen zen gazteluko dorre nagusia, eta indusketetan ermita horretako lurra altxatu dute azpian dagoen harria aztertzeko. Gero, kanpora atera ziren batez ere aurreko urteko indusketetan egindako lanak ikustera. Bertaratutakoek ikusi ahal izan zuten harresia nola sendotu duten, besteak beste.

Datorren urteko bosgarren faseko lanekin amaituko dira indusketak Atxorrotzen.

Bisitariak gustura

Guztira, 60 lagun inguru izan ziren bisita gidatuan; ume, gazte eta heldu. Batzuk aurretik ere Atxorrotzeko indusketetan egin dituzten lanak ikusitakoak ziren, beste batzuek, berriz, lehenengo aldia izan zen Atxorrotzera igotzen zirela eta indusketetako lanak ikusten zituztela. Guztiek baina, gustura entzun zituzten Sagredoren azalpenak.



Bisita gidatuaren hasieran, Sagredo azalpenak ematen ermitan. | ENERITZ ZUBIA



Herritarak Atxorrotzen orain arte egindako indusketak ikusten. | ENERITZ ZUBIA



OÑATI

JOSETXO ARANTZABAL

Markel Irizar lagunartean

Urtero moduan, oraingoan ere Markel Irizarren lagunartean bazkaria egin du. Aurtengoa, baina, txirindulariarendako berezia izan da, minbiziaren azken errebisioa egin baitiote eta alta eman diote 10 urte eta gero. 60 zale inguru elkartu ziren; Irizarrendako, "onenak".



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

Poxpolorekin umeak pozik

Atzo, domeka, eman zioten hasiera *Gaztañatan Azaroa Osintxun* programari Poxpolo eta konpainiaren ikuskizunarekin. Pilotalekua ume eta gurasoz lepo bete zen eta gaztetxoak Poxpolo eta bere lagunekin batera kantuan eta dantzan jarri ziren.

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara



Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18



LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

- ✓ KOKAPEN EZINHOBEA
- ✓ 1,2,3,4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
- ✓ LEHENENGO MAILAKO MATERIALAK
- ✓ SUKALDE EKIPATUAK, ARMAIRUAK

Dagoeneko zintzilikatu dugu informazio guztia gure webgunean

Sartu eta ikusi

www.promocioneserregetxoplaza.com



Harresi zati berri bat dela ziurtatzeko, datazioen zain

San Viator ondoan aritu dira Arkeolanekoak, gazteluaren aztarna berrien bila

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arkeolan fundazioko bi kide aurkitu genituen joan den egubakoi-tzean San Viator ikastola ondoan induskatzen. Mertxe Urteaga indusketon arduradunak uste du Santa Barbara parkearen behealdean ere harresia egon zela, Erdi Aroko gazteluaren defentsarako lehen lerro bat izango zena: "Parke osoak duen itxurarekin, erreka nola dauden ikusita eta beste gaztelu batzuek duten kokapena zein ezaugarriak aintzat hartuz, zergatik ez hemen ere, parkearen beheko partean, harresiaren beste zati bat aurkitu? Uste dugu hala dela, baina ziurtatu beharra dago", dio.

Horretarako ikerketa berri bat ireki eta indusketa eremua zehazteko leku aproposa aukeratu zuten; San Viator ikastola ondoko gunea, hain justu.

Ikatz datazioa egiteko

Harresi zatia Erdi Aroko gazteluaren parte dela ziurtatzeko, Arkeolan fundaziokoak datazioak egin behar dituzte: "Beste hainbat kasutan ateratzen den materialaren arabera –zeramika puskak, txanpon xumeak...– jakiten dugu noizkoak diren aztarnak, baina kasu honetan ez dugu horrela egingo. Jaso duguna da ikatza, haren bidez posible delako datazio bat egitea. Suediara bidaltzen dira laginak eta emaitzen arabera planteatuko dugu gune osoa induskatu edo ez". Beraz, orain arteko lanarekin "pozik" dago Urteaga.

Lehen bisita, duela 25 urte

Arkeolan fundaziokoak 1987an egin zuten lehen bisita. Orduan alde zaharraren azterketa arkeologikoa egin zuten eta, noski,



Mertxe Urteaga arkeologoa, San Viator ondoan induskatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Harresiaren zatia dela uste dugu; ziurtatu beharra dago"

MERTXE URTEAGA | ARKEOLAN

Santa Barbara ere bisitatu zuten: "Orduan konturatu ginen dragoiaren eskulturaren azpian dauden aztarnak dorre baten parte zirela. 1992an bueltatu ginean indusketa lan sakonagoak egin eta beste hiru dorreak aurkitu genituen. Hala ziurtatu genuen Goikobaluko muinoan gaztelua egon zela", gogoratzen du Urteagak.

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, domekara bitartean ekitaldi ezberdinak izango dira. Tartean, Biolentzia Sexista zinema zikloaren baitan, gaur, 19:00etan hasita, *Mujeres de El Cairo* filma proiektatuko dute Kulturareto areto nagusian. Jatorrizko bertsoan izango da, gaztelaniazko azpigituluekin.

Bestalde, sexismoaren aurkako komiki lehiaketa martxan da abenduaren 7ra bitartean; lanak BAZen entregatu behar dira.

Domekan, aldarri eguna

Urtero bezala, herriko plazan kontzentrazioa egingo dute domekan, 19:00etan. Aurretik, baina, indarkeria sexista salatze horma-irudia egingo dute domekan, 17:00etan hasita. Gura duten guztiek eman dezateke izena, 943 79 41 39 telefonora deituta.



Aurtengo Gurasolandin eginiko jostailu azokako une bat. | TXATXILIPURDI

Elikadura kontuak nagusi Gurasolandin asteon

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Haurren elikadura eta segurtasuna zaintzen gaia landuko dute aste honetan Gurasolandin parte hartzen ari direnek.

Gaurk, Alaitz Olabe eta Naiara Olabarriak lehen sorospen ikastaroa emango dute. Oinarrizko kontzeptuak erakutsiko dituzte Kulturareto Laramendi gelan, 18:30ean hasita.

Bihar, berriz, Sabrina Patok elikaduraren inguruko mahai ingurua eskainiko du. Ekolapiko ikastetxeetako jantokietan elikadura ekologiko eta osasuntsua txertatzeko proiektuko kidea da. "Elikaduraren ingu-

ruko nondik norako batzuk azalduko dizkigu, eta helburua gurasoen kezak argitu eta gurasoen iritzia jasotzea izango da". Bihar, 18:30ean, Gaztegunean izango da.

Saltsa-maltsetan izeneko sukaldaritza tailerra izango da asteko azken hitzordua. Sabrina Patok emango du, eta haur zein gurasoei zuzenduta dago. "Errezeta errazak eta osasuntsuak prestatzen irakatsiko digu". Gaztegunean elkartzeko dira, 18:00etatik aurrera.

Gogoratu behar da gaurko eta biharko saioetan, gainera, zaintza zerbitzua egongo dela.

Arrasateko altzairuaren berezitasunak eta Toledoko ezpatak izango dituzte berbagai bihar

Arrasate Zientzia Elkarteak antolatuta, bihar, martitzena, *El acero de Mondragón y las espadas de Toledo* berbaldia eskainiko du Gerardo Rosado adituak. AZEceroTecnalia (Inasmet)-eko lankide ohia eta SECOTeko aholkularia da. Urte asko daramatza Mondragon altzairuaren propietate metalurgikoak eta historia ikertzen. Arrasaten bere ikerketen berri emango du, eta XVI. mendean Mondragon altzairuak zuen garrantzia gertutik ezagutzeko aukera izango dugu. Kulturaren izango da, 19:00etan.

Arrasateko Askapenak hitzaldia, afaria eta kantaldia antolatu ditu eguzten honetarako

Askapenak 25 urte bete ditu eta ospakizunetan murgilduta dago. Hala, Arrasateko Askapenak, Bar Arrasateren laguntzarekin, hitzaldia antolatu du: *Prozesu Bolibariarra Venezuelan, Iraultzan sakontzen*. Azaroaren 21ean, Bar Arrasaten, Centauro Saherrek emango du, 19:30ean. Eta 20:30ean afaria egingo da bertan (Bar Arrasaten edo Irati tabernan izena eman daiteke). 21:00etan kantaldi internazionalista egingo dute Venezuelako Centauro Saherrek eta Euskal Herriko Xabier Betzuenekin batera.

OHARRAK

PRENTSAURREKOA

Gaur 11:00etan prentsaurrekoa egingo dute Kulturareto areto nagusian Euskal Memoriaren hitzaldi zikloa (*Memoria berre-raiki, etorkizunerako zubi*) eta Zuztarrak Errotuz-en Arrasateren bilakerari buruzko erakusketa aurkezteko.

1976AN JAIOTAKOEI DEIA

Abenduaren 1ean elkartzeko dira 1976an jaiotakoak. Intere-

satuek 40 euro sartu beharko dituzte azaroaren 26a baino lehen 3035 0001 50 0010101654 zenbakian, eta izen-abizenak ipini.

BACKGAMMON IKASTAROA

Backgammonean jolasten ikasteko aukera egongo da zapatu honetan, 11:00etan hasi eta 14:00ak bitartean, AEDren Elkartur programaren bidez. Izena eman daiteke oraindik.

Biolentzia sexistaren aurka ahotsa altxatzeko ordua

Azaroaren 25aren atarian, zinema zikloaz, mural margotzeaz eta kontzentrazioarekin dator astea



Mujeres de El Cairo filmaren une bat. | MISR CINEMA

Bertso eskolak gogotsu ekin dio ikasturteari, ateak edonori zabalik

Udalak lokal berria utzi die Saiolan eraikinean; egun 15 bat ikasle dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Duela bost urte sortu zen Arrasateko bertso eskola, baina ez zen ezerezetik sortu; aurrekariak izan baditu. Zalantza barik, duela hainbat urte jaiotako AEDko bertso eskola da horren adibide garbiena. Orain ikasturte berriari heltzeko gogotsu daude eta aurtengoa, gainera, nobedadez josita dator.

Berritasun aipagarriena da Udalak lokal berria utzi diela, Saiolan eraikinean: "Oso pozik gaude. Lokal handia da, bertso eskolak emateko aproposa. Gainera, beste hainbat kultura talde ditugu ondoan eta horrek elkarlana errazten du. Eta noski, aurreko egoitzaz alderatuta, ez dugu horrenbeste hotz pasako. Hori ziur", adierazi dute. Adinen araberak hiru talde bereiztu dituzte, Lehen Hezkuntzako ikasleetatik hasita DBH mailakoetara arte.

"Gonbidatuta zaudete"

Egun 15 bat ikasle dira eta talde bakoitzak bere irakaslea du; Nerea Urrea eta Maddi Labaien arrasatearrak eta Xabi Igoa aramaioarra dira aurtengo irakasleak. Astean behin elkartzeko dira eta klaseak ordubetekoak dira gutxi gorabehera; talde bakoitzak bere ordutegia dauka. Ateak erabat zabalik dituzte, edonorendako: "Ondo pasatzeko aukera eskaintzen dugu, euskaraz. Ez dago inolako presiorik eta lekua bada; gonbidatuta zaudete".



Arrasateko bertso eskola osatzen duten ikasle eta irakasleak egoitza berrian, Saiolan eraikinean. | JOKIN BEREZIARTUA

Epe motzerako ekintzak

Urtea amaitu aurretik hitzordu garrantzitsuak dituzte. Hilaren 24an bertsozale elkarteak Zarautzen antolatutako bertso eskolen jaietan hartuko dute parte. Ane Zuatzubiskar ikasleak eman du izena: "Jendea animatu gurako nuke Zarautzera. Bertsoaren inguruan Euskal Herri osoko jende mordoak elkartuko gara. Jende berria ezagutzeko modu polita da". Horrez gain, abenduaren 14an, bertso saio musikatu egingo dute Monte tabernan eta, azkenik, gaztetxeko bertso eskolarekin batera Santamasetan bertso poteoa egingo dute: "Harreman ona dugu eta afari bat edo beste egin dugu elkarrekin", adierazi digu Xabi Igoak.

MADDI LABAIEN | BERTSO ESKOLAKO IRAKASLEA

"Ikasten doazela ikustea ederra da"

Lehen Hezkuntzako sei ikasleren irakasle izango da aurtengoa Maddi Labaien. Bigarren ikasturtea hasi berri du eta gogotsu dagoela adierazi digu.

Horren gazteak diren ikasleei nola irakasten zaie bertsoetan egiten?

Ez da lan erraza. Pixkanaka bertsoaren mundua zer den azaldu eta oinarriko arauen berri ematen



J.B.

diegu. Errima zer den, doinua... dena jolasen bidez erakusten diegu. Bertsolari ezberdinak ere entzuten ditugu. Finean, helburua da bertsolari-tzara hurbildu eta ondo pasatzea.

Erraz ikasten dute?

Poliki goaz, baina bertsoetan egiten gozatzen dutela ikustea oso polita da; zer esanik ez, ikasten eta hobetzen doazela ikustea.



IZAR RUIZ DE AUSTRI
GAZTEEN TALDEKO IKASLEA

"Nire ahizpa eta nire lagun baten ahizpa bertso eskolan gustura ari zirela ikusirik, nik ere probatzea erabaki nuen. Oso gustura nabil; bertsoa bat-batean sortzea asko gustatzen zait".



MARISA RUIZ DE AUSTRI
ERDIKO TALDEKO IKASLEA

"Familian bertsoetan egiteko ohitura dago eta betidanik gustatu izan zait. Bertso saio batzuetara joateko ohitura ere izan dut txikitatik. Jolasen bidez ikasteko metodoa asko gustatzen zait".



ANE ZUAZUBISKAR
HELDUEN TALDEKO IKASLEA

"Patxi Goikolea etorri zitzaigun ikastolara, bertsolari-tzaren berri ematera. Gustatu zitzaidan eta bertso eskolan sartu nintzen. Oso gustura nabil, euskaraz sortzeko beste modu bat da".

Zuloak taldearen 'riff' gogorak eta erritmo biziak egunean

J.B. | ARRASATE

Indartsu dabilta Zuloak taldeko neskek eta Arrasaten ere geldialdia egingo dute, *Kooltur Ostegunak* ekimenaren barruan, egunean, hilak 22, gaztetxean (22:00). Gitarra riff gogorak eta erritmo biziak ekarriko dizkigute Tania de Sousa (ahotsa), Ursula Strong (bateria) eta Izaskun Muruaga (gitarra) hirukoteak osatutako neska talde rockeroak.

Sarrera, ohi moduan, bost euro da. Film gabe datoz, kontzertua emateko. Musikari dagokionez, gertu daude Courtney Loven Hole taldeak; eta nola ez baita PJ Harvey, The Cramps eta The White Stripes taldeen gitarra eta bateria doinuak.

Hileko azken zuzeneko azkenaldian zeresan handia ematen ari den Krissy Matthews gazteak eskainiko du.



Zuloak taldearen zuzeneko bat. | GOIENA

Punk gau bizi eta zikina oparitu zuten The Ricky C Quartet ingelesek

Dirty Brothers eta Zantarrak taldeekin partekatu zuten gaua

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

50 minutu besterik ez zituzten behar izan ikusleak poltsikoan sartzeko. Arrasateko gaztetxera hurbildu ziren pertsonak 77ko punk bizi eta zikinarekin gozatzeko aukera izan zuten, Radio Birdman edo The Real Kids taldeen tankerako musikarekin. Eszenatokia kantu on eta jarreraz bete zuten Ricky C eta taldekideek: kantu azkarrak, letra zuzenak eta ikuskizun motza. Kalean dituzten bi lanen errepasoa egin zuten zapatuan, *Small Species* single-a eta *The Ricky C Quartet* Lp-a.

Lehenengoz Euskal Herrian

Egin zitzaizen harrerarekin, oso eskertuta zegoen Londreseko laukotea. Izan ere, Arrasate bisitatzen zuten lehen aldian zen, eta euren aurpegiak ikusita, azkena ez dela izango argi zegoen.



Ricky C frontman sutsua. | JAGOBA DOMINGO

Dirty Brothers

Gaua amaitzeko Dirty Brothers igo zen taula gainera, eta ohitura den bezala, kanta sorta polita eskaini zuen. Hala ere, sorpresa bat utzi zuen amaierarako, Front-

kick eta Oi!The Arrase taldeko abeslaria zen Victor *Bisonte*-k, Arrasatekoekin hiru kantu abestu zituen. Momentu hunkigarriak bizi izan ziren zapatuan, momentu hobeak gogoratuz.

Adineko pertsonentzat bi etxebizitza tutelatu izango ditu laster Bergarak

Udalak hitzarmena sinatu zuen egubakoitzean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin

A.M. / A.B. | BERGARA

Bergarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egubakoitzean sinatu zuten akordioari esker, Udaleko Gizarte Zerbitzuek hirugarren adineko pertsonentzako bi etxebizitza tutelatu izango dituzte. Udalak San Antonio auzoan dauden bi etxebizitzetatik bat erosi egin dio Udalak Jaurlaritzari eta bestea alokairuan hartu du. Sinatutako akordioarekin pozik agertu da Jesus Elortza alkatea.

Urtarriletik aurrera martxan

Etxebizitza tutelatuak urtarrilean martxan jartzea espero du Udalak. Aurretik, hirugarren adineko pertsonak bertan bizi ahal izateko egokitzapen lan batzuk egin behar dira. Horretarako Bergarako Udalak 10.000 eta 15.000 euro bitarteko partida onartu zuen udal aurrekontuan.

Zerbitzu berria Bergaran

Bergarako alkate Jesus Elortza pozik azaldu da sinatutako hitzarmenarekin, Udalak orain arte eskaintzen ez zuen zerbitzu bat emango duelako. "Pozik gaude



Bergarako Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak hitzarmena sinatzen pasa den egubakoitzean. | ARRITXU BARRUSO

hitzarmenak izan duen emaitzarekin. Zentzu horretan, azpimarratu nahi nuke Eusko Jaurlaritzak hasieratik azaldu duen prestutasuna. Alokaturako dugu

etxebizitza etorkizuneari erosteko aukera izango dugu eta hori garrantzitsua da", adierazi zuen alkateak hitzarmena sinatu ostean.

Erabiltzaileek bizi kalitate duina izateko behar diren zerbitzu guztiak izango dituzte. Horrez gain, Udalak erabiltzaile bakoitzaren jarraipen berezia egingo du.

Spinning eskoletako kantu sexistak kendu nahi dira

Udalak hainbat kexa jaso ditu, eta euskararen presentzia ziurtatzen ere ahaleginduko dira

A.B. | BERGARA

Ez da Udalak gaia esku artean daukan lehenengo aldia. Pasa den ekainean herritar baten kexa jaso zuten, esanez Udalak ematen dituen spinningeko eskoletan jartzen dituzten abestiek "letra sexistak" dituztela eta "abesti guztiak gaztelaniaz" direla.

Kexa hori jaso ostean, Udala kiroleko arduradun teknikariarekin harremanetan ipini zen eta eskatu zion egin beharreko aldaketak egiteko. Udalak uste

du abesti sexistak horiek erabiltzea Udalak onartuta duen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Planean jasotzen diren helburuetako baten kontra doala. Hain justu ere, "kanpo eta barne komunikazio ez sexistak bermatzea, hizkuntza eta irudi bidezkoa, euskaraz zein gaztelaniaz".

Bada, Udalak beste kexa bat jaso du, "aurreko ikasturtean aipatutakoa birgoratzeko" eta spinning eskolek "berdin" segitzen dutela esanez.



Spinning eskoletan erabiltzen diren bizikletak. | GOIENA

Irakasleekin bilerak

Udal Gobernuak ordezkariak adierazi dute spinning eskolak ematen dituzten irakasleekin bilduko direla eta elkarrekin

abestien errepertorio bat osatzen ahaleginduko direla, abestiak sexistak izan ez daitezken eta euskarazko abestiak ere erabili daitezkeen spinning eskoletan.

Udalak CD eta DVDak batuko ditu Gabonetako apaingarriak egiteko

Bergarako Udalak herritarrek etxean edo enpresetan botatzeko edo birziklatzeko dituzten CD eta DVDak jasoko ditu datozen asteetan. Udaleko Kultura eta Gazteria Zerbitzuen asmoa da batutako CD eta DVDekin herriko gaztetxoendako tailerrak antolatu eta Gabonetarako apaingarriak egitea herriko kale eta eraikinak apaintzeko.

Langileentzako plazak Migel Altunako ikastaroetan


Datozen asteetarako hiru ikastaro aurreikusi dituzte Migel Altuna Institutuan, eta langileentzako plazak libre daude: *Txirbil harroketazko mekanizazioen prozesua (80 ordu)*; *Mekanika fabrikazio produktuen gestio dokumentala*; eta *Testu aplikazio informatikoen tratuera*. Informazio gehiago Migel Altunaren bertan.

Kirol-elkarteendako diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Abenduaren 3ra arte zabalik egongo da diru-laguntzak jasotzeko izen-emate epea. Diru-laguntzen helburua Eskola Kirolean, Guztientzako Kirolean eta Kirol Federatuan diharduten erakundeak diruz laguntzea da. Laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak ikusgai daude udal webgunean.

Merkataritza saltzaile ikastaroa egingo dute, Bizikasik antolatuta

80 orduko ikastaroa izango da eta honako gaiak landuko dira: harrera, arreta, teknika egokien bidez produktua nola saldu, itxiera operazioa nola egin, kexa eta erreklamazioak nola bideratu eta salmenta puntuaren hornikuntzan lagundu. Azaroaren 15etik 16ra eta 19tik 30era egingo dute ikastaroa.



Manex margolana. | U.M.

Usoa Mendikuterren lanak ikusgai Nahikarinen

A.B. | BERGARA

Artista bergararrak Nahikari tabernan ipini ditu ikusgai artelanak. *Sasoiko fruituak* da erakusketaren izena. Mendikutek dio bere obraren oinarria eguneroko objektuak eta irudiak direla: "Egunerokoan inguratzen gaituzten objektuen inguruko artelanek osatzen dute erakusketa".

Bartzelona eta Londres

Sasoiko fruituak erakusketak Usoa Mendikuterren azken bost urteetako margolanak batzen ditu; hau da, Londresen eta Bartzelonan bizi izandako urteetan egindakoak: "Zalantza barik, nire bizitzan eragin handia izan duten hiriburuak dira biak ere. Nire garapen artistikoan esperientzia handia eman dizkidatenak".

Akrilikoa eta collagea

Artista bergararraren ibilbidean egindako pieza gehienak pintura akrilikoarekin egindakoak dira, oihal edo egur gainean egindakoak. Horietako batzuei collagearen teknika gehitzen die.

OHARRAK

1947AN JAIOTAKOEN KINTADA EGINGO DUTE AZAROAREN 24AN

Bazkaria Tartufo jatetxean izango da. Joan-etorria egiteko autobus zerbitzua egongo da eta 14:30ean irtengo da Oxirondo azokatik. Informazio gehiago nahi izanez gero 618 95 36 27 telefono zenbakira deitu behar da.

GURE AMETSAK GABONETAKO POSTAL LEHIAKETA EGINGO DU

Lehiaketan 3 eta 12 urte arteko haurrek har dezakete parte, hiru mailatan banatuta. Postalak San Antonioko Gure Ametsa elkartera eraman behar dira abenduaren 21ean 19:00etatik 21:00etara.



Udaleko, gozotegietako, Mankomunitateko eta Landa Garapen Agentziako ordezkariak San Martin plaza. | A.T.

Erreileno eta tostoiak dastatzeko saioa zapatuan

Larrañaga, Mujika eta Raizabalen eskutik izango da, 18:00etan, Muniben

A.T. / M.B. | BERGARA

Datorren zapatuan, hilaren 24an, erreileno eta tostoi artisauen dastatzea egongo da Munibe plazan, 18:00etan, Debagoieneko XII. Jardunaldi Gastronomikoen barruan. Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozotegien eskutik egingo da, eta euro baten truke dastatu ahal izango dira, kafea edo txokolatearekin.

Urteetako tradizioa

Bergarak gozogintzarekin duen harremana luzea eta zabala da. Horren lekuko dira, gaur egun ere, artisau eran ekoizten diren Bergarako erreileno eta tostoiak. Aipatzekoa da, bestalde, erreileno eta tostoiak era tradizionalan egiten dituzten hiru gozotegiok gune historikoan daudela.

Hiru gozotegi

Larrañagari dagokionez, 1840. urtean *Gotxotegia* zegoen gaur egungo kokapenean Felix Aranzadi eta Valentina Unamunoren agintepean. Ordurako Bergarako erreilenoak deitutako bizkotxoak egiten ziren bertan.

1870ean negozioa eta instalazioa Doroteo Unzurrunzaga Egiak hartu zituen 1905 arte. Urte hartan, Manuel Larrañagaren familiak hartu zuen negozioa eta gaur egun, familiaren laugarren belaunaldiak jarraitzen du lanean. Garai batean argizarien ekoizpena eta kafetegi funtzioa bazituen ere, gaur egun, gozotegi eskaintza du.

Etxe horretan, 1860ko urtarriaren 4an Telesforo Aranzadi y Unamuno jaio zen.

Mujika gozotegia, berriz, Francisco Mujikak sortutako etxea da, 1916. urtean, Bilbon Otxoa gozotegian ikasi ondoren. Haren seme Roman Mujikak jarraitu zuen eta gaur egun, horren semeak Xabierrek du ardura. Beraz, familiaren hirugarren belaunaldiak jarraitzen du Bergarako tradizio-ko artisau-gozoak ekoizten eta saltzen.

Garai batzuetan, argizaria eta txokolatea ere ekoiztu zuten.

Raizabal gozotegiaren kasuan, 1908. urtean jarri zuen Basilio Raizabalek, umetatik Piaren gozotegian aprendiz lanetan ibili ondoren. Gaur egun, familiaren laugarren belaunaldiak jarraitzen du tradiziozko-gozoak egiten.

Garai batean, argizaria ere egiten zuten.

Tumuluen xenda izeneko ibilbidea prestatu du Udalak elkarlanean

Elosua-Plazentziako estazio megalitikoak balio turistikoan jartzea da egitasmoaren helburua

M.B. | BERGARA

Elgoibar, Soraluze eta Bergarako udalak, Debegesa garapen agentziaren eskutik, Elosua-Plazentziako estazio megalitikoak balio turistikoan jartzeko egitasmoa garatzen ari dira. Elkarlana aspalditik dator eta aurtengo lanak garatzeko hitzarmena abuztuan sinatu zuen Udalak Debegesa agentziarekin.

2012ko jarduera nagusia izan da hiru herriok lotuko dituen mendi ibilaldi bat osatzea eta prestatzea: Tumuluena xenda (PR - Gi94), hain justu ere. Baina egitasmo horren barruan, beste zenbat ekintza ere aurreikusi dituzte: lehen promozio lanak, indusketa arkeologiko bat eta arkeologia tailerrak eskaintzea hain zuzen. Bestalde, aurtengo inbertsioei aurre egiteko, Europako LEADER programaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzak jaso dituzte.

Zidorraren proiektua oso garatuta dago, eta estazio megalitikoak balioan jartzeko ekintza

berriak diseinatzen ari dira Debegesak eta hiru udaletxeek osatutako lan taldea. Laster emango dute horren berri, baina tailerrak dagoeneko egiten hasi dira.

Sua egiten ikasi zuten

Eguaztenean egin zituzten tailerrok, Zabalotegiko pilotalekuan eta herriko zenbait ikastetxetako ikasleek hartu zuten parte; HHEkoak eta Mariaren Lagundikoak, besteak beste. Aranzadi Zientzia Elkarreko arkeologoen zuzenduko zituzten tailer horiek eta arkeologia zer den eta Elosua-Plazentziako estazio megalitikoaren gaineko azalpenak eman zituzten, besteak beste. Baina historiaurreko armak eta teknikak ere bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Esaterako, sua nola egiten den ikasi zuten eta baita egin ere, eta historiaurrean erabiltzen ziren armak ere ezagutu zituzten; arkuarekin ehizan ere egin zuten.



Ikasleak sua egiten ikasten. | ANABEL DOMINGUEZ

Hitz gurutzatuen lehiaketa deitu dute Euskararen Egunerako

Bikoteka jokatu da eta izenematea zabalik dago hilaren 28ra bitartean

M.B. | BERGARA

Euskararen Eguren inguruan, abenduaren 1ean eta 3n hainbat ekitaldi antolatu dira aurtenera. Horieta bat da Hitz gurutzatuen binakako lehiaketa. Joan zen urtean antolatu zuen Udalak lehenengoz, eta aurtenera ere egin nahi dute.

Lehiaketa abenduaren 1ean izango da eta parte hartu ahal izango dute Bergaran bizi edo ikasten ari diren guztiak. Bi kategoriatan bereiztuko dituzte:

A kategorian, 12 eta 16 urte artekoak hartuko dute parte.

Multzo horretan sartuko dira baita ere 2012an adin horiek betetzen dituztenak ere. B kategorian, 17 urtekoak edo zaharragoak sartuko dira; baita aurtenera 17 urte betetzen dituztenak ere.

Kategoria ezberdinez osatutako bikoteak ere onartuko dira eta horien kasuan, partaide zaharrenaren kategoriakoak direla ulertuko da.

Bedelkarren erosteko bonoak

Izena emateko azken eguna 2012ko azaroaren 28a izango da. Horretarako www.bergarakoeuskara.net webguneko inprimakia <http://www.bergarakoeuskara.net/euskararen-eguna-hitz-gurutzatuak> erabiltzea gomendatzen dute. Arazoren bat izanez gero, Udaleko Euskararen Zerbitzuak e-postaz euskara@bergara.net edo telefonoz ere egin daiteke -943 77 91 66 zenbakia.

Sariei dagokionez, Bedelkarmerkatarien elkarteko dendetan erosteko bonoak izango dira eta kategoriatan bakoitzeko lehenengo lau sailkatuek jasoko dute. Bestetik, parte-hartzaileen artean zenbait kultura produktu ere zozketatuko dira.

Abenduaren 1ean jokatu da

Abenduaren 1ean jokatu da lehiaketa. San Martin plazan batuko dira lehiakideak 11:00etan, eta 11:30ean hasiko da saioa. Ez da hiztegi elektronikorik ez eta ordenagailurik onartuko, bai ordea hiztegi-liburuak.

Bi aldi izango ditu lehiaketak, 11:30etik 12:15era sailkapena jokatuko da eta 13:00etatik 13:45era, berriz, finala.

Sailkapenari dagokionez, kanporaketa izaerakoa izango da. A kategoriatan 10x10 lauki dituen

hitz gezidunen ariketa egingo dute eta B kategoriatan 12x12 lauki dituen hitz gurutzatua. Horretarako 45 minutuko denbora izango dute.

Proba horretan aurreneko lau postuetan geratu diren lehiakideak sailkatuko dira finalerako. Hain zuzen, jarritako denboran akasduen lauki gutxien dutenak igaroko dira finalera. Akats kopuruan berdinketa balego, denbora hartuko da kontuan.

Finalari dagokionez, A kategoriatan 11x11 lauki dituen hitz gurutzatua taula beteko dute eta B kategoriatan 12x15 lauki dituen. 45 minutuko denbora egongo da lana egiteko. Kasu honetan ere, akasduen lauki gutxien dutenak izango dira irabazle eta akats kopuruan berdinketarik balego, denbora hartuko da kontuan.

Oñabike: Hirugarren Mundurako bizikleta zaharrak konpontzen

Larraña-Zuazola institutuko ikasleek jaso eta konponduko dituzte, ekainera bitartean

TXOMIN MADINA | OÑATI

Oñabike proiektuaren bidez, bizikleta zaharrak batu, konpondu eta Hirugarren Mundura bidaltzea da Larraña-Zuazola institutuak abiarazi duen asmoa.

Akatsen bat dutelako edo zaharrak direlako baztertutako bizikletak jaso, konpondu eta ondoren Hirugarren Munduko herrialde batera bidaltzea da Oñabike proiektuaren funtsa. Hilaren 10ean egin zuten lehen bizikleta bilketa kalean. 13 jaso zituzten. "Gustura gaude emaitzarekin, ez dugu denbora luzerik izan proiektua zabaltzeko ere. Baina urte osoan deialdi ezberdinak egingo ditugu eta 50 bizikleta inguru konpontzea espero dugu", azaldu du Kike Gaztañagak, Larraña-Zuazola institutuko irakaslea.

Beharra dagoen tokira

Asmoa da ekainerako prest eta bidaltzeko moduan egotea jasotako bizikleta guztiak. Oraindik erabaki barik dutena da nora bidaliko dituzten gero. Zuazola-Larraña institutukoak gobernuz kanpoko erakundeekin harremanetan dabilta munduan bizikleten beharra dagoen puntu batera bidaltzeko. Sahara edo Ertamerika izan daitezke toki horiek, adibidez.

Era guztietako bizikletak

Bizikleten ezaugarriei dagokienez, era guztietako bizikletak jaso gura dituzte. "Umeendako, errepidean ibiltzekoak, mendian ibil-



Kike Gaztañaga irakaslea Larraña-Zuazola institutuko ikasle batzuekin. | T.M.

tzekoak ... denak jasotzen ditugu. Eta edozein egoeratan daudenak, gainera. Asmoa da hemen konpontzea guztiak, eta berdin da zein egoeratan dauden edo txikiak edo handiak diren", argitu du Gaztañagak.

Azaro osoan jasoko dituzte bizikleta zaharrak edo apurtutakoak, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 16:00etara, institutuaren Larrañako zein Zuazolako egoitzetan.

Ikasleendako ere baliagarri

Behin bizikletak jasota, institutuaren Natur Ingurunean Gorputz

eta Kirol Ekintzen Gidaritza izeneko Heziketa Zikloa ikasten dabilzan ikasleen ardura izango da bizikletak konpontzea eta erabilgarri uztea. Oñabike proiektua, beraz, ikasleendako ere baliagarria izatea gura du ikastetxeak. "Bizikletan egiten dituzten irteretan konturatu dira gazteak garrantzitsua dela mekanikari buruzko ezaugarriak izatea, eta proiektu honek laguntzen die oinarrizko ezagutza hori izaten, bizikleten mantenurako mekanika pixka bat ikasteko modu bat ere bada, eta gustura dabilta", gaineratu du Gaztañagak.



Kalegoieneko ziburuak zeuden tokia, hesi batek inguratuta. | O.E.

Hasi dira Kalegoieneko ziburuak estaltzen

Egaralur enpresak egingo ditu lanak eta bi hilabetetan egitea aurreikusten du Udalak

O.E. | OÑATI

Aste honetan hasi dira Kalegoieneko ziburuak estaltzeko lanak egiten. Egalarur enpresak egingo ditu, eta urtea amaitu aurretik bukatu gura dituzte.

Bi fasetan

Kalegoieneko jolasgunea estali eta inguruak birmoldatzeko lanak bi fasetan egingo dituzte eta aste honetan lehen faseari dagozkion lanak hasi dituzte. Lurpeko aparkalekuaren ertzean espazio berde bat sortuko da, jolasgunea berriaren inguruan jesarlekuak jarriko dira eta egungo ziburuak berrantolatu egingo dituzte, batzuk lekuz aldatuta. Kautxu zoladurazko zona berria egingo dute eta ingurua estalki batez estaliko dute. Estalitako espazioak argiak izango ditu.

Estalkia izango da, hain zuzen, jolasgune horrek izango duen berritasun nagusia. Euritik eta eguzkitik babesteko duen erresistentzia handiko poliesterreko oihala izango da estalki hori, kolore zuria izango du eta alde biak PVCz estalita izango ditu. Egun itxita daude Kalegoieneko ziburuak eta itxita egongo dira lanak bukatu arte, urtea amaitu arte.

Azaroaren 26ra arte

Espazio publikoak hobeto aprobetxatzeko asmoen barruan sartzen da Kalegoieneko ziburuak estaltzeko proiektua. Beste espazio batzuen gaineko proiektuak ikusgai daude Santa Anan, eta erakusketa hori hilaren 26ra arte egongo da zabalik, egunero, 10:00etatik 20:00tara.

'Oñati eta Oñatiko auzoak' lan berria aurkeztuko du Juan Carlos Irizar musikariak gaur eguerdian

Oñati eta Oñatiko herria osatzen duten 16 auzoei eskaini die musikari eta konposatzaile oñatiarrak azken diskoa: *Oñati eta Oñatiko auzoak*. Disko guztiz instrumentala da, 19 doinu osatuta, eta herriko txoko eta leku ezberdinek eragiten dituzten sentimenduak helarazi nahi ditu musika bidez. Gaur, azaroak 19, aurkeztuko du, 12:00etan, kultura etxean.

10-13 urte arteko gazttxoek saskibaloia ezagutzeko hitzordua egin du biharko Aloña Mendik

Herriko gazttxoek saskibaloia ezagut dezaten eta Aloña Mendi Kirol Elkarte saskibaloia saileko partaide izateko dei egin die Aloña Mendik herriko gazttxoei. 1999, 2000, 2001 eta 2002. urtetan jaio diren gazttxoendako egin du deia. Beraz, 10 eta 13 urte izan eta saskibaloia ezagutu gura duten herriko gazttxoek bihar dute hitzordua Larrañako kirolgunean: 17:00etatik 17:30era edo 18:00etatik 18:30era.

Mendi hamabostaldiaren barruan sartzen diren bi film emango dituzte aste honetan zineklubean

Mendiari lotutako bi film emango dituzte eguneko zineklubean, mendi hamabostaldiaren barruan: *Linea continua* eta *Play gravity*. Lehenak 17 minutu ditu eta aita-eme bikote batek Cervinoan den igoera zailenetako bat nola egin zuten kontatzen du. Bigarren filmak 55 minutu ditu, eta lagun on baten heriotzean inspiratuta dagoen arrisku handiko kirolen ingurukoa da. Emanaldia egunero izango da, 20:00etan, eta sarrera 3,5 euro da.

Aparkaleku berria Eroski zaharrean

Lehenengo Eroski zegoen erakina bota egin dute eta lur zati horretan ibilgailuendako aparkaleku egingo dute. Erakin zaharreko obra-hondakinak birrindu egin dituzte, aparkaleku berriaren lurzorua egiteko. Egungo aparkaleku handitzeko egingo dute aparkaleku berria, eta horretan dihardute.



ESKORIATZA

Bandera espainolaz gainera, beste 25 bandera udaletxean

- ▶ Banderen Legea betetzera behartu dute Eskoriatzako Udala
- ▶ Herrian dauden nazionalitate guztietako banderak jarriko dituzte balkoian

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Bandera espainola Eskoriatzako udaletxean jartzeko prozesua 2010ean hasi zen, Estatuko Abokatuak denuntzia bat jarri eta gero. Legeak dio erakunde publiko guztietan bandera espainolak jarri behar duela balkoian eta barrualdeko leku preferente baten; osoko bilkuren aretoan kasu. Eskoriatzako Udalak hori ez duela betetzen esanaz eskutitz bat heldu zen udaletxera.

Prozesua

Ordutik hona, Gobernuoko delegatuaren hainbat eskutitz jaso dituzte udaletxean: lehenengo, denuntziaren eskutitza; gero, sententzia; ondoren, sententziaren errekerimendua; bigarren errekerimendua; kontentziosora ere joan da, eta orain amaitutzat ematen da prozesua. Ondorioz, Eskoriatzako udaletxea behartuta dago bandera espainola jartzera; bestela, Udalaren aurkako neurri zorrotzak aplikatu daitezke. Hauxe esan digu Beñat Herce alkateak: "Eskoria-



Banderak Eskoriatzako udaletxean daude dagoeneko. | A.T.

tzako Udala hori guztia ekiditen saiatu da, ez dagoelako batere ados eman den sententziarekin, baina pauso guztiak emanda omen daude eta ez daukagu beste biderik sententzia betetzea baino. Bestela, ondorio ekonomikoak izango genituzke eta legea ez betetzeak ekarri ahal du, baita ere, alkatearen inabilitazioa".

Espainola eta gehiago

Hori ikusita, Eskoriatzako Udalak egunean egindako ohiko osoko bilkuran erabaki zuen, gogoz kontra bada ere, agindua betetzea; baina euren erara beteko dute. Alkateak esan zigun berak uste duela Eskoriatza herri inklusibo bat dela, herrian bertan jaiotakoak eta hainbat naziotatik

etorritako pertsonak ere bizi direla, eta, beraz, 10 eguneko epean Eskoriatzan bizi diren pertsonen nazionalitate guztietako banderak jarriko dituzte balkoian. 2012 hasieran 26 nazionalitateko eskoriatzarrak zituzten, eta, beraz, guztira 26 bandera jarriko dituzte. "Eskoriatzan bizi garen pertsonen nazionalitate guztietako banderak jarriko ditugu; bai kanpokoan, bai ikurrina bera, eta Eskoriatzako bandera ere jarriko dugu. Horrela, legea betetzen dugu eta adierazten dugu Eskoriatza zein herri anitza den eta udaletxea denon erakundea dela islatzen dugu".

Kolorez jantziko da, beraz, egunotan Eskoriatzako udaletxea eta itxura berezia hartuko du. Nazio hauetako banderak jarriko dituzte: Argentina, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Kuba, Dominika, Txile, Ekuador, Dominikar Errepublikak, Honduras, Venezuela, Maroko, India, Japonia, Pakistan, Alemania, Frantzia, Irlanda, Italia, Portugal, Herbehereak, Espainia, Eslovenia, Errumania, Ukraina eta, nola ez, Euskal Herria. 26 horiez gain, Eskoriatzako bandera ere jarriko dute.

Herritarrendako deia

Alkateak jazarpena gogo biziz salatu zuen, baina herritarrek gonbidatu nahi izan zituen sententzia horren aurkako jarrera adieraztera, nor bere etxeko balkoian bere nazioko bandera eskegitzera animatuta.

ARETXABALETA

Jolasari buruzko hitzaldi-tertuliak gurasoendako

Hilaren 29an izango da lehen eta bertan hitz egingo dute haurren garapen etapa bakoitze jolas beharrei buruz. Abenduaren 13an izango da bigarrena eta jostailu mota, jolaserako espazio eta jolas harremanak landuko dituzte hitzaldian. Kuku Miku elkarrekin antolatu ditu bi berbaldiak eta Itsaso Pagoaga izango da hizlaria. 17:30ean izango dira, Kuku Mikuren egoitzan. Doakoak dira eta umeak ere joan daitezke.

ARETXABALETA

Leizarra musika eskolakoek kontzertua egingo dute egunean

Aretxabaleto Leizarra musika eskolako kideak kalean izango dira egunean, hilak 22, Santa Zuzilia eguna. Euskal Herriko gainerako musika eskolekin batera ospatuko dute zaindariaren eguna eta plazan emanalditxo eskainiko dute, 17:30ean. Trikitilariak, akordeoi joleak eta beste kide asko elkartuko dira herritarrei kantuak eskaintzeko, *Musikalean* izenarekin, Euskal Herriko txoko askotan egingo duten legez.



Azken etxebizitzak!!

ORTUZAL PROMOCIONES S.L,
Tel.: 943 76 11 18 - 943 79 40 00

ARETXABALETA
AUKERA EZIN HOBEA

ETXEBIZITZAK:

2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
Ganbara bikaina

ABENDUAREN 31 BAINO LEHENAGO

190.000€ (BEZ barne)



Eskolako umeak ilaran gaztaina erreak jasotzeko. | LZ

ELGETA

Hogei kilo gaztaina jan zituzten barikuan Herri eskolako gaztaina-erre janean

Antolatzaileek alde izan zuten eguraldia, eta egin zuen giro ederrarekin Herriko plaza ikasleen, irakasleen eta gurasoen topalekua izan zen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Giro bikainarekin egin zuten bariku arratsaldean gaztaina-erre jana Elgetan. Maala guraso elkar-teak eta Herri eskolak elkarlanean antolatzen duten ikasturteko lehen ekintza da gaztaina-erre ospakizuna, eta aurten jendetsua izan da egindako eguraldi onagatik.

Hogei kilo gaztaina

Aurtengoan ere hogei kilo gaztaina jan dituzte ikasleen, irakasleen, gurasoen eta plazan elkartutako gainerako herritarren artean. 14:00etan sartu zituen Enrike Txikiturrik lehenengo gaztainak danbolinean, eta eskolako haurrak Herriko plazara hurbildu zirenerako —15:00ak bueltan— gertu zeuden.

Egunkari paperarekin egingako txurro bana ekarri zuten umeak eskuan, baina jakinek

zuten gaztainak jan aurretik kantuan egin behar zutela.

Irakasleek borobilean ipini zituzten eskolako haurrak —ehun bat—, eta nagusienek txirula jo zuten bitartean, txikienek hainbat abesti kantatu zituzten. Amaitu bezain laster osatu zuten ilara gaztainak jasotzeko.

Harrera ona izan zuten gaztainedek, izan ere Guraso elkar-teak ordubete banatu zituen hogei kilo. Eguzkipean ondo egoten zen plazan, eta haurrak dantzan ere egin zuten udaletxetik ipinitako musikaren erritmora.

Gabonak

Maala guraso elkar-tearen hurrengo proposamenak Gabonekin lotutako ekintzak izango dira. Olentzero abenduaren 23an etorriko da aurten ere Elgetara, eta guraso elkar-teak txokolate-jana

eskainiko du arratsaldean. Umeen Gabonetako kantuak abestera irteteko hitzordua ere finkatuko dute elkartetik.

Gabonekin lotuta, berriz, Udaletxean hasita daude egitaraua prestatzen. Berrikuntza moduan, Hezkuntza batzordetik bigarren eskuko jostailuen azoka egitea aurreikusten dute aurten. Abendu hasieran izango litzateke. Udalak, bestalde, haurrendako bi eguneko Gabonetako haur parkea, neska-mutikoen pilota txapelketa, eta Gabonetako tailer bereziak mantentzea planteatzen du. *Elgeta kantuan* ere egingo dute Turismo batzordetik; abenduaren 23an izango da, 13:00etatik 14:30era.

Lorea Larrañaga musika irakasleak, berriz, abenduaren 28an egingo du ikasleen Gabonetako emanaldia.

ANTZUOLA

Euskara ikasten ari diren herritarrendako diru-laguntzak

Interesa dutenek azaroaren 30era arteko epea dute eskaerak aurkezteko, udaletxean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolan euskara ikasten ari diren herritarrendako diru-laguntzen oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2011ko urtarrilaren 17an. Orain, hilaren 13an, euskara ikasten ari diren herritarrendako diru-laguntzak esleitzeko deialdia argitaratu dute GAO-n.

Hala, interesa dutenek eskabidea egin dezakete azaroaren 30era arteko epean. 2012ko aurrekontuan —480.455 partidan— izendatuta dauden 2.120 euro erabiliko dira horretarako.

Batzar irekiak asteon

Gaur abiatuko dira arlokako batzarrak. Guztira hiru izango

dira: hilaren 19an, 21ean eta 22an, egingo dira Orlaranen 18:30ean parte-hartze prozesuaren baitan antolatutako batzarrak.

Asmoa da 2013ra begira, lehenetsi nahi diren proiektuak herritar denen artean zehaztea. Hala, gaur arratsaldean, kultura eta euskara arloak landuko dira; eguaztenean, Gazteria, kirola, hezkuntza eta ongizatearen arloen txanda izango da; eta eguenean, azkenik, hirigintza, nekazaritza eta ingurugiroaren arloak landuko dira.

"Herritar guztiak gonbidatuta daudela azpimarratu nahi dugu", diote parte-hartze prozesuko kideek.

ARAMAIO

Kalean euskara zenbat erabiltzen den jakingo dugu hilaren 22an

Soziolinguistika Klusterrak 2012ko emaitzen aurkezpena egingo du Sastiñan, 18:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko euskararen kale erabileraren neurketa egin du Soziolinguistika Klusterrak. Lehenagotik ere baditugu datuak Aramaio euskaraz egiten duen herria dela frogatzen dutenak: 2001ean kale erabilera orokorra %65,4koa zen, 2003an %61,9koa eta 2008an %56,2koa. 2001eko eta 2003ko neurketak SEI erakundeak egin zituen eta 2008koa Soziolinguistika Klusterrak egindakoa da —SEI klusterraren barruan sartu zen—.

2008ko beherakadaren ostean azken lau urteetan gora egin du erabilerak, neurtzaileek aurreratu dutenez, azken neurketek %64,4ko erabilera erakusten dute eta.

Hainbat irizpide kontuan

Aurkezpena eguenean izango da, hilak 22, Sastiñan (18:30). Olatz Altuna Klusterreko kideak emaitzen berri emango du, adina, generoa eta beste irizpide batzuen arabera. Datozen urteetarako joera era azalduko da.

DATUA

%64

ERABILERA OROKORRA

2012an kale erabilera orokorra %64,4koa dela aurreratu dute neurtzaileek.



Adina da neurketa orduan kontuan hartu den irizpideetako bat. | ARTXIBOA

LEINTZ GATZAGA

Udal zerga eta tasa gehienak %3 igoko dituzte

Etxebizitza hutsen ondasun higiezin gainera zergari %50eko errekarua ezarriko diote

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 8an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak ordenantza fiskalak. Udal tasa eta zerga gehienak %3 igotzea erabaki zuten, horien artean daude: ondasun higiezin gainera zerga; jarduera ekonomikoaren gainera zerga; uraren tasa; eta etxebizitzetako obra txikiei dagokien tasak. Ibilgailuen kasuen, potentzia txikiena duten automobilerik %1,5 igoko diete urteko tasa, eta potentzia handiagokoei, %3.

Inor errolatu barik dauden etxebizitzaren kasuan %50eko errekarua aplikatuko diete ondasun higiezin gainera zergari.

Hondakinak zehaztu barik

Hondakin bilketa sistemari dagokion tasa zenbat igoko duten

ez dute zehaztu oraindik, mankomunitateak zein hobari ezarriko dituen ez dietelako argitu. Datorren urtean bi konpostagailu jartzeko asmoa daukate herrian hondakin organikoak jasotzeko, eta ondorioz hobariak ezarriko dizkiete. Baina oraindik zehaztu barik daude zenbatekoak izango diren horiek.

Hilabete alegazioetarako

Bestalde, gatz museoaren sarre-za ez igotzea erabaki dute eta pilotalekuko argiaren ordubete fitxa 3,10 euro izango da urtariletik aurrera.

Ordenantza fiskal horiek ikusgai daude udaletxean, herritarrek horren berri izan eta alegazioak aurkezteko. Halakorik gertatu ezean behin betiko geratuko dira onartuta.

SARI SORTA

Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

PENDRIVE
Bidali **KLUBA PENDRIVE**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira

goiena



LIBURUA ETA DVDA
Bidali **KLUBA LIBURUAK**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira



DVD ERREPRODUKTORE BAT
Bidali **KLUBA DVD**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO JOKUA
Bidali **KLUBA JOKUA**
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



SARRERAK

Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



ZARZUELA
Zarzuelarako 2 sarrera. Azaroaren 24an, Amaia antzokian.
Bidali **KLUBA ZARZUELA** [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
ikusteko pertsona bakoitzeko bi gonbidapen.
Bidali **KLUBA EUREKA** [Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.
Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko.



Atera etekina

goienakluba 2012

1+1 doan



TXURI URDIN izotz jauregia Donostia, 943 46 44 00

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)
- %20ko deskontua zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
- %10ko deskontua zubi eta oporraldietan.

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

BEGIONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAES
Centros Auditivos Entzumen zentroak
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER SUKALDEAK
IKER sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

LASTAI
haurtzaintza eta atsedeen gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan
MULTIOPTICAS optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

JAIXAK
disfrutatzen duzue oparixak
JAIXAK denda
Bergara, 943 76 31 45

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
RENAULT AUTOBERRI kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

EUREKA! zientzia museoa
EUREKA! zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78



IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA



Jokin Baltzategi aurrelari bergararra baloia bularrak kontrolatu guran, Aloñaiko atzelari bat atzean duela. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Derbi parekatua izan arren Bergarak eraman zituen hiru puntuak, ate aurrean asmatu zuelako

- ▶ Valeriok eta Machok egin zituzten golak; konfiantza hartzeko garaipen ederra izan da mahoneroendako
- ▶ Azken metroetan arriskurik sortu barik jarraitzen du Aloña, eta atzokoa laugarren porrota da jarraian

EMAITZA

ALOÑA
0-2
BERGARA

FITXA TEKNIKOA

Aloña: Aginagalde, Olalde, Lazkano, Garmendia (Moreno 45.min), Palacios, Bikuña, Irizar (Millas 89.min), Uribetxeberria, Juaristi (Etxeberria 62.min), Zelaia, Saenz (Carpintero 75.min).

Bergara: Soto, Apellaniz, Elorriaga, Urrutia, Nafarrate (Arruti 28.min), Aranburu, Cabanillas (Retes 81.min), Beitia, Valerio (Navas 75.min), Baltzategi, Crespo (Macho 65.min).

Bestelakoak: Derbia izateko ohi baino jende gutxiago Azkoagain futbol zelaiko harmailetan.

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Intentsitate handiko derbi parekatua jokatu zuten atzo Aloña eta Bergarak Azkoagainen. Hiru puntuak lortzeko beharrekina eta golak egiteko irakasgaia gaudizteko asmoz heldu ziren bi taldeak hitzordura, etxeko taldea bereziki.

Zapatuan zein domekan egin dako euriak izugarri azkartu zuen jokoa. Hala, baloiaren kontrolak zaildu, aldaratzeak baldintzatu eta aterako jaurtiketak gaiztotu egin zituen futbol zelaia-

ren egoerak. Hala ere, lehia erabaki zuen golean, 0-2koan, hain justu kontrakoa gertatu zen: oñatiarren defentsaren atzerako pase baten baloia erabat geratu zuen urak eta Iñigo Macho aurrelari bergararrak ez zuen Mikel Aginagalde atezainaren aurrean barkatu. Horren aurrean ezer gutxi egin daiteke.

Aloña, arriskurik sortu barik

Partiduak ez zuen jabe argirik izan lehen zatiko lehen ordu erdian. Zelai erdiko lehia izan zen nagusi eta aukera garbirik ez. Bergarako Erik Aranburuk langara bidali zuen baloia 15. minutuan, Pedro Valerioren erdiraketa zoragarri baten ostean. Lehen zatiaren amaieran baloia jabe egin zen Aloña baina apenas sortu zuen arriskurik; oñatiarrak ez dabilta batere fin azken metroetan.

Bigarren zatia lehenengoaren antzera hasi zen; lehia bizia eta ondo lotutako jokaldi gutxi. Baina 60. minutua heltzean zela, Iker Olalde ez zuen baloia ondo urruntzen jakin eta akats txiki hori aprobetxatu zuen Jokin Baltzategik Pedro Valeriori pase ederra egiteko. Valeriok, bakar-bakarrik, ez zuen barkatu (0-1). Aloña ez zen kikildu eta berdinketaren bila joan zen gogotsu baina 30. minutuan, zoritxarreko jokaldian, zelaira sartu berri zen Machok 0-2koa jarri zuen markagailuan. Orduan amaitu zen partidua, kolpe gogorregia izan zen oñatiarrendako.


IKER OLALDE | ALOÑAOKO JOKALARIA

"Azken metroetan ideiak falta zaizkigu"

Laugarren porrota jarraian eta etxean galdutako beste derbi bat. Iker Olalde kapitainak bazituen arazoak atsekabeta egoteko.

Zelan ikusi duzu zure taldea?

Baloia ukitzen jokatze asmoz irteten gara eta neurri baten lortu dugu. Hala ere, azken metroetan ideiak falta izan zaizkigu. Eurek, berriz, izan duten lehen aukeran



egin digute gola. Gero, bigarren golak min handia egin digu.

Egoerari buelta emateko lanean jarraitu behar.

Bai, lana da jarabe bakarra. Asteazkenean ondo ari gara lanean

baina azken metroetan ez dugu aukerarik egiten eta horrek baldintzatzen dizkigu partidua. Zerbait egin beharko dugu golak egiteko ditugun arazoak gainditzeko.

AITOR ELORRIAGA | BERGARAKO JOKALARIA

"Konfiantzarako garrantzitsua izan da"

Txanponaren beste aldearen erakusle zen Aitor Elorriagaren irribarrea.

Pozik, ezta?

Bai, oso. Partidu zaila izan da, derbi guztiak izaten diren moduan. Hiru puntuak Bergarara eramango ditu eta hori zen garrantzitsua.

Serio aritu da Bergara.

Atzean ondo jarrita egon gara. Lehen zatian oso ondo hasi gara baina



amaieran apur bat sufritu dugu eurek izan dute eta baloiaren jabetza. Bigarren zatian hobeto aritu gara.

Zein izan da garaipenaren gakoa, zure ustez?

Aurrealdean asmatu egin dugula eta gero atzean sendo egon gara. Merezimenduz irabazi dugula esango nuke. Garrantzitsua da konfiantza hartzeko, orain partidu zailak ditugu eta.

OHOREZKO ERREGIONALA

Tolosa baino gehiago izan arren galdu egin zuen Mondrak (1-2)

Beste porrot bat etxean Lutxo Iturrinoren mutilendako. 0-1 jarri zen aurretik Tolosa eta Andoni Aizpuruk lehia berdintzea lortu zuen (1-1). Kanpokoak baino gehiago izan zen Mondra eta hainbat aukera izan zituen markagailuan aurretik jartzeko. Hala ere, barkatzen duenak ordaindu egiten du gero; 70. minutuan 1-2koa egitea lortu zuten tolosarrek. Mondrak bultzatu zuen, baina ezin golik egin.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aukera garbienak UDAk egin arren husnako berdinketa Ibarren

Lehia parekatua jokatu zuten atzo UDAk eta Hondarribiak. Aukera garbienak, baina, Alberto Albistegiren mutilendako izan ziren. Gainera, lehia amaitzeko 15 minutu falta zirela, epaileak Oxel Apraiz egotzi zuen eta beste jokalaririk batek lesionatuta amaitu zuen jokatzen: "Ahalegin guztiak egin ditugu irabazteko baina pena izan da ate aurrean ez dugulako asmatu", zioen Albistegik partidua amaitu ostean.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Mondrako nesken garaipen garrantzitsua atzo Eibarren aurka (0-1)

Mondrako neskek balio handiko hiru puntu lortu zituzten atzo Eibarren aurka. Eibarko taldea sailkapeneko azken postuan dagoen arren, Andoni Ezkurraren neskei asko kosta zitzaie hiru puntuak emango zizkien gola egitea. Atzoko garaipenaren ostean, sailkapeneko bederatzigarren postuan daude arrasatearrak; datorren jardunaldian ere kanpoan jokatuko dute, Abantoren aurka.

ERREGIONAL PREFERENTEA

4-1 irabazi ostean, Antzuolak sendo jarraitzen du lidergoan

Eibartarrak taldearen bisita jaso zuten zapatuan Juanina Garaireren mutilek. Etxeko taldea hasieratik nagusitu zen eta larregi sufritu barik lortu zuen garaipena (4-1). Bederatzigarren jardunaldi honetako hiru puntuen ostean, lider sendoa da Antzuola eta bigarrena, Getariako Keta, hiru puntutara dago honezkerok. Dinamika honetan jarraituz gero Ohorezko Erregional mailara igotzeko hautagai garbia da Antzuolako taldea.



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

SASKIBALOIA

Saskia txiki geratu zitzaien MUKoei borroka handiko norgehiagokan

Defentsa erasoei gailendu zitzaien zapatuan Iturripeko partiduan

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

57-64

ZARAUTZ LEIHOAK

FITXA TEKNIKOA

Mondragon Unibertsitatea:

Aranzabal(13), Anasagasti(4), Barbero(8), M.ArejolaIba(8), Isasa(4), G.ArejolaIba(6), Balanzategi(10), Atxa(4), Ezpeleta, Barrena.

Zarautz Leihoak: Gurza, Badia(12), Sanz(13), Eguskiza(21), Penacho(4), Izagirre(3), Collanes(5), Goya(3), Jauregi(3), Andres, Alberdi, Larrañaga.



Martxel Balanzategi aurkariz inguratuta. | JOSETXO ARANTZABAL

na Balanzategiren minutu onei eta kantxa osoko defentsari esker, bigarren laurdenera arte Zarautzekoen tiraldiari eutsi zioten.

Bigarren zatian indarberrituta

Bigarren laurdenera amaitzean Arrasatekoak bost puntu atzetik zeuden, eta atsedendialdiaren ondoren indarberrituta irten ziren. Erasoa gauzak argiago zeudela zirudien eta M. Arejolaleibaren hiruko bati esker markagailua berdindu zuten. Hala ere, faltak tartean zirela, hirugarren laurdenera 41-45eko markagailuarekin amaitu zen.

Azken 10 minutuetan, partidua istorioa errepikatu zen; defentsa gogorak, eta Arrasatekoak erasoan ez zebiltzan fin. Amaitzeko bi minutu falta zirenean, zonakako defentsa erabili eta hirukoak sartzen saiatu ziren errenta ahalik eta azkarren paretzeko. Baina zapatuko ez zen kanpo jaurtiketen eguna eta amaieran zazpi puntugatik galdu zuten Arrasatekoak.

Natra Oñati

Garaipen garrantzitsua lortu zuten zapatuan Natrak Zornotzan. Mailako plantilla indartsuenetarikoa aurre egiteko baja askorekin joan ziren Oñatikoak, hala ere, oso gogotsu joan ziren Bilbo aldera, eta defentsan lan gogorra eginez, 60-73 irabazi zuten. Atsedendian Zornotzakoez 25 puntu besterik ez zituzten lortu, beraz, partidua irabazteko formulari eutsi eta ezin hobeto amaitu zuten norgehiagoka. Datorren astean Burgosen aurka jokatuko dute.

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Partiduko lehenengo zazpigarren minutuak 7-7koa erakusten zuen markagailuan. Gauzak aldatu ezean partidua bilakaera argi zegoen; bi taldeak defentsa lanetan oso gogor ibili ziren partidua osoan zehar eta saskia txikitu egin zen Arrasatekoentzat.

Emaitza ikusita partidu aspergarria izan zela pentsatzea erraza izan daiteke, hala ere, bi taldeek barruan zuten dena utzi zuten Iturripeko kantxan. Partidua minutu gehienetan markagailuan atzetik joan ziren MUKoak. Bai-

MENDI LASTERKETA

Argentinako K42 nazioarteko mendi lasterketan ere, Oihana Kortazar izan zen emakume azkarrena

JAGOBA DOMINGO | ELGETA

Munduko onenen artean, onena dela argi utzi zuen zapatuan Oihana Kortazarrek Patagoniako K42 nazioarteko mendi txapelketan. Elgetarra ibilbide gogorraren hasieratik lasterketaren buruan jarri zen eta amaitu arte ez zien aukerari aukerarik eman.

Lau ordu eta bederatzita minutuko denbora egin zuen Kortazarrek, eta horri esker, lasterketa lehenengo hogeitazailkatuen artean amaitu zuen, emakume mailan lehenengo geratzeaz gain. Bigarren postua Uxue Fraile donostiarrak lortu zuen, Kortazar baino sei minutu beranduago helmugara helduz.

Nazioarteko onenak

Patagoniako Villa La Angosturan ospatutako K42 lasterketara, mundu osoko korrikalari onenak joan ziren, eta Argentinako proba zirrargarria izan zen lehenengo minututik.

Aurtengoa hamargarren edizioa izan da eta emakumeen artean Kortazar proba irabazteko faboritoa zen. Azken orduan Anna Frost korrikalariak kale egin zuen arazo fisikoak zirela medio, eta hori ondo baino hobeto aprobetxatu zuen Oihana Kortazarrek podioko lehen postua lortzeko. Aurtengoan, beraz, euskaldunak Patagoniako erregina bihurtu ziren zapatuan.



ESKUBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

Soraluze BKE jolastu ezinik

Soraluze BKE eta Urduliz taldearen arteko eskubaloia partidua bertan behera geratu zen zapatuan. Bergarako Labegarrietako kiroldegian jokatu behar zen partidua, baina kantxako saskibaloia saskia jasotzeko mekanismoak kale egin zuten. Hori dela eta, ez zen partidua jokatzeke aukerarik egon eta norgehiagoka hori aurrera eramateko bi aukera aztertutuzte; abenduko zubira edo Gabonetara atzeratzea.

ERRUGBIA

Kale egin zuen Kanpantzar ART-ek Eloorrioren aurka

Ondo jokatzea askotan ez da nahikoa izaten azken metroetan lana fin egin ezean. Hori gertatu zitzaien zapatuan Isasiren mutilei; partidua ondo hasi zuten baina azkenean Arrasatekoek egindako hutsak ondo aprobetxatu zituen Eloorrioko taldeak. Isasirenak aurkariaren entsegu marratik gertu ibili ziren momentu askotan baina partidua amaitzerakoan markagailuak 26-5ekoa erakusten zuen. Datorren astean etxean La Unica Iruñako aurka jokatuko dute.

MENDIA

Mendi hamabostaldia beste hiru proiektzio dakartza aste honetan

Aloña Mendi Kirol Elkarteak aurrera jarraitzen du mendi hamabostaldiarekin. Aste honetan beste hiru proiektzio eskainiko dituzte Oñatiko kultura etxean. Martitzenean, eskalada eta bidaiei buruzko *Bugaboos/Kanada*-ren txanda izango da; eguaztenean, India iparraldean kokatzen den *Juley Ladakh* ikus-entzunezkoa proiektatuko dute; eta egue-nean, *Linea Continua* laburmetraia eta *Play Gravity* pelikula izango dira ikusgai 19:30etik aurrera.

SASKIBALOIA

Donostiatik esku hutsik bueltatu ziren Eskoriatzakoak

Donostiara irteera egin zuten Eskoriatzakoak zapatuan. Liderraren etxea bisitatu zuten, EASO Alde Zaharra taldearena, eta partidua 75-46ko emaitzarekin galdu zuten. Sei partiduren ondoren, taulan hirugarren postuan daude Fernando Rasoren neskek eta datorren astean, etxean jokatuko dute taulako azken sailkatuaren aurka. Tolosako Take-Aralar taldearen aurka irabaztea garrantzitsua izango da berriz ere dinamika positiboa hartu eta taulan gora egiten jarraitzeko.

SASKIBALOIA

Saskibaloia eskolan izena emateko deialdia ireki dute Oñatin

Aloña Mendi Kirol Elkarteak gaztetxoei bideratutako saskibaloia eskola antolatu dute eta bertan parte hartzeko deialdia luzatu dute. 1999 eta 2002 urteetan jaiotakoek zuzenduta dago eskola eta interesa izanez gero, hitzordua bihar, martitzena, izango da. Interesatuak Larrañako kirol gunera gerturatu beharko dira. Lehenengo deialdia 17:00etan izango da, eta bigarrena 18:00etan. Herrian saskibaloia bizirik mantentzeko eskola ezinbestekoa dela uste dute Aloñakoek.

FUTBOLA

Futboleant euskara erabilia, bailarako 500 gaztetxok goiz bikaina igaro zuten atzo, Bergaran

AMAIJA TXINTXURRETA | BERGARA

Kirola euskaraz lelopean, Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Arizmendiko 500 gaztetxo elkartu ziren atzo Ipintzako futbol zelaian. Zortzi, bederatzi eta hamar urteko gaztetxoei deia egin zieten kirolean ere euskara erabiltzeko. Baina horrez gain, eta euskal kirolari integrala sortzeko helburuarekin, balore batzuk ere transmititu nahi izan zizkieten gaztetxoei; errespetua eta talde lana, besteak beste.

Goizean goizetik futbol zelaian hainbat partidu jokatu zituzten, eguraldiak asko lagundu ez zuen arren. Gurasoak ere bertan izan

ziren euren seme-alabei animoak ematen eta lagun arteko giro paregabera izan zuten.

Realeko aurpegi ezagunak

Eguerdialdera, bailarakoak diren Realeko bi jokalaririk ohi ere bertan izan ziren: Aitor Lopez Rekarte eta Agustin Arantzabal. Biak gustura izan ziren gaztetxoek futboleant euskaraz nola jokatzen zuten ikusten eta Realeko kamiseta berrirako hiru bono ere banatu zituzten. Irabazleak izan ziren Aitor Urzelai (2004), Aitor Arietaleanizbeaskoa (2003) eta Aitor Orbea (2002), hirurak beragararrak.



Oñati eta Arrasateko gaztetxoak baloia lortu nahian. | IMANOL SORIANO



Gaztetxoak, egindako joko ona ospatzen. | I.S.




Arantzabal eta Lopez Rekarte, saria tokatu zitzaizen mutilekin. | I.S.



BEÑAT IRIZAR OÑATI

"Ondo joan dira goizeko partiduak. Bi izan ditugu: Aloñaren kontra irabazi egin dugu eta UDaren aurkakoa galdu egin dugu, baina gustura gaude egindakoaz. Aurretik ezagutzen ez nituen zortzi urteko lagunak egin ditut".



LUKEN ONKALA ARRASATE

"Partiduak jokatzerantz etorri naiz Bergarara, futbola aspalditik gustatzen zaidalako. Oraindik partidu bakarra jokatu dugu eta pixka bat urduri nago. Euskaraz hitz egiten dut futboleant Arrasatekoa naizelako".



AITOR ORTIZ DE URBINA BERGARA

"Zortzi urte ditut eta futboleant jokatzen oso gustura ibiltzen naiz; irabazteko asmoz zelaira irteteko gogoz nago. Gurasoak ere etorri dira gu animatzera eta lagun artean pozik nabil".

Zer egiten du zu bezalako kotxe batek, honelako beherapenarekin?



9.000
€-rainoko
beherapena

Ford **Kuga** TDCI 40CV

Hilabete honetan, **18.975€** bakarrik



ford.es

Kuga Gama. Batezbesteko kontsumo Konbinatua: 5,9l-tik 6,8l-ra / 100km. CO2 isuria: 154g-tik 179g-ra / km.

Ford Kuga Trend 4x2 2.0 TDCI 140 cv (103kw) LED eguneko argiekin. Barne dago: Bez-a, garraioa, matrikulazio zerga, promozio beherapena, kontzesio laguntza, erabilitako autoa trukean emateagatik egindako beherapena eta FCE Bank plc S.E.-rekin finantziatzeagatik gutxienez 24 hilabeteko egonkortasunarekin. Indarrean Penintsulan eta Balearretan 2012/11/30 -ra arte. Ford-ek kanpaina eta salneurri hauek aldatzeko eskubidea dauka.

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

KARATEA

Borroka arteetan ibarreko ordezkariak bikain aritu dira

XABI URTZELAI | ARRASATE

Joan zen asteburuan egin zuten Euskadiko kadete, junior eta 21 urtez azpikoen XX. txapelketa, eta Shotokaneko (Bergara), Aloña Mendiko eta UDA-Karateko ordezkariak azpimarratzeko moduko lana egin zuten bertan.

Hala, Uda-karate taldeak, hiru borrokaldi egin ostean Ekaitz Irustak bigarren postua lortu zuen gazte mailan, 76 kilotik gorakoetan. Finalean aukera gutxi

zuen estatu mailako txapelketan esku hartzera ohituta dagoen Bera Berakoaren kontra; hala ere, aurre egin zion. Odei Vazquezek, berriz, hirugarren postua lortu zuen Kumitean -68 kilo baino gutxiagotan, 21 urtez azpikoan. Nahiz eta hirugarren postua lortu, Vazquezek onartu zuen ez zituela tentsazio onak izan, eta seguru lehenengo borrokaldia txapelkunaren kontra egin izanak eragina izan zuela. Eta, Oxel

Vazquez lehenengo txandan kanporatu zuten epaileek, kontrarioaren aurpegira eraso gogorregia egin zuelakoan. UDAko ordezkarien esanetan, zorrotzegiak izan ziren erabaki hori hartzerakoan; dena dela, azken asteak min hartuta egon ostean, Aretxabaletakoak ez zuen aukera handirik. Hala, Aretxabaletako karateken hurrengo erronka Euskadiko selekzioaren entrenamendu saioetara joatea izango da, eta

posible bada, Espainiako Txapelketara sailkatzea.

Aloña Mendi primeran

Aloña Mendiko ordezkariak ere Gasteizko txapelketan egon ziren, eta bertako karateka Asier Natividad hirugarren sailkatu zen Kumitean, 14 eta 15 urte bitarteko kategorian (52 kilotik behera). Horrekin batera, Oñatikoak pozik geratu ziren Nahia Rodriguezek, Mikel Igartuak eta Ane Guridik egindako lanaz, nahiz eta dominarik lortu ez.

Shotokanekoak ere bikain

Eta Euskadiko Txapelketan izan ziren, baita ere, Shotokaneko ordezkariak. Hala, Bergarako taldeak kadete mailan ordezkari zabalza izan zuten, eta maila

oso ona erakutsi zuten. Laugarren izan ziren, pisu ezberdinetan, Mikel Gaiastegi eta Jon Barragan. Iker Osinaga, berriz, bigarren izan zen 57 kiloz azpikoetan. Aurreko bi borrokaldiak irabazi ostean, finalean galdu egin zuen. 63 kiloz azpikoetan Andoni Muxika bosgarren izan zen.

Urrearen borrokan

70 kilo baino gehiagoko kategorian Shotokan taldeko bi karateka iritsi ziren finalera. Mikel Sanchez eta Josu Zalakain aurrez aurre izan ziren, eta borrokaldi estuaren ostean, tarte txikiagatik, Zalakain gailendu zen. Hala, hirugarren urtez jarraian, Iker Osinaga eta Josu Zalakain Espainiako Txapelketara joango dira (abenduaren 1ean eta 2an, Sevillan).



Joan zen asteburuan jokatu zen Euskadiko XX. txapelketan izan ziren Bergarako ordezkarien hiru argazki. | SHOTOKAN

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Ostadar-Zarautz	1-1
Aurrera-Lagun Onak	1-2
Aretxabaleta-Hondarribia	0-0
Trintxerpe-Berio	0-3
Oiartzun-Urola	2-2
Beti Gazte-Real Union	0-1
Mondra-Tolosa	1-2
Aloña Mendi-Bergara	0-2
Touring-Hernani	2-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	27	10
2 Touring	22	10
3 Oiartzun	19	10
4 Tolosa	18	10
5 Real Union	18	10
6 Berio	16	10
7 Bergara	16	10
8 Hondarribia	16	10
9 Aretxabaleta	14	10
10 Lagun Onak	13	10
11 Zarautz	13	10
12 Aloña Mendi	11	10
13 Trintxerpe	10	10

14 Urola	9	10
15 Aurrera	9	10
16 Mondra	9	10
17 Beti Gazte	6	10
18 Ostadar	6	10

HURRENGO JARDUNALDIA

Ostadar-Aurrera
Lagun Onak-Aretxabaleta
Hondarribia-Trintxerpe
Berio-Oiartzun
Urola-Beti Gazte
Real Union-Mondra
Tolosa-Touring
Hernani-Aloña Mendi
Zarautz-Bergara

EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK

Lekeitio-Aretxabaleta	4-2
-----------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Eibartarrak	4-1
----------------------	-----

I. ERREGIONALA

Ikasberri B-Aretxabaleta UDA B	2-1
Arizmendi-Urdi	1-4

OHOREZKO GAZTEAK

Zumaia-Mondra	1-1
Bergara-Aloña Mendi	1-0

GAZTEEN 1. MAILA

Urola-Aloña Mendi B	2-1
Eibartarrak B-Bergara B	5-2
Arizmendi-Eibartarrak	0-3

OHOREZKO KADETEAK

Lagun Onak-Aloña Mendi	2-1
Anaitasuna-Bergara	2-6
Arrasate-Aretxabaleta UDA	1-1

GAZTE EMAKUMEAK

Aloña Mendi-Mutriku	0-1
Mondra-Anaitasuna	3-4
Ikasberri-Bergara	0-4

EMAKUMEAK, 1. KADETEAK

Bergara-Lazkao	1-2
Soraluce-Arizmendi	0-5
Aloña Mendi-Lagun Onak	1-2

ESKUBALOIA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Izarraitz Aloña-Leizaran	27-28
--------------------------	-------

***GIPUZKOAKO BIG.TXAPELKETA**

Bergara-Arrasate	25-21
Txikixa Pulpo-Soraluce BKE	38-31

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Egia Bar-Bergara	47-22
Urola-Aloña Mendi	22-27

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Berezao Aloña-Orkli Ordizia	38-22
Arrasate-Saieko-La Salle	20-29

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi B-Eibar B	23-11
-----------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Saltxaileak-Eskoriatza	6-1
------------------------	-----

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Zornotza-Natra Oñati	60-77
----------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Leihoak Zarautz	57-64
--------------------	-------

SENIOR GIZONEZKOAK

Mondragon Unib.-Errotaundi	60-52
Soraluce BKE-DKS	56-63

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

Aloña Mendi-DKS Lurgoien	70-56
--------------------------	-------

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

Mondr. Unib.B-Andraitz	52-57
------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Easo Alde Zaharra-Eskoriatza	75-46
------------------------------	-------

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

Cafes Aitona-MU A	72-78
-------------------	-------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

KARATE

Dani Barbero | Karateka

"Txapelketa egunean baino astebete lehenago egoten naiz urduri; momentu hori da txarrena"

- ▶ Arrasateko karatekak Kontinente Arteko Kyokushin Txapelketa irabazi du Suitzan
- ▶ Abenduaren 15ean Espainiako Txapelketa jokatu du Zaragozan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Dani Barbero (Arrasate, 1989) gazte-gaztetatik hasi zen karatean. Borrokarako grina, baina, Kyokushin modalitateko borrokaldi batzuk ikusi zituenean sartu zitzaion. Karatearen barruan dagoen borroka arte hori gogorra dela onartu digu, txapelketak lur-jota amaitzen dituztela, baina azken lehiak gogor entrenatzen jarraitzeko indarra eman dio. Urriaren amaieran Ginebran (Suitza) izan zen, Kontinente Arteko Kyokushin Txapelketan, eta 90 kilotik beherakoetan txapeldun izan zen, hiru borrokaldi gainditu ostean: "Halakoetan brometan esaten dugu kolpe entsalada bat jasotzera joaten garela. Bai, txapelketak gogorrak izaten dira".

Duela hiru aste jokatu zenuen txapelketa. Zer moduz?

Oraindik borrokaldien arrastoak ditut, baina 15 egunez atsedean hartu ostean gogor entrenatzen hasita nago, abenduaren 15ean Espainiako Txapelketa jokatu dudalako Zaragozan.

Non dituzu arrasto horiek?

Batez ere behatz batean hartu nuen min. Finalaren ostean Open bat jokatzeko aukera eman ziguten, baina ezinezkoa zen, behatza lehortuta neukalako. Oso borrokalari gutxi animatu ziren Openean esku hartzera, denok ere txapelketa lur-jota amaitu genuelako.

Zelan sailkatu ziren Kontinente Arteko Txapelketarako?

Ez zen sailkapen faserik egon, gonbidapena jaso genuen. Ni Bergarako Giartzu gimnasioan entrenatzen naiz, Luis Muñoz da nire maisua, baina tarteka Gasteizera joaten gara beste borrokalari batzuekin entrenatzera, Yin-Yang gimnasia. Bailaran ez daukat norekin entrenatu, eta Gasteizen, ordea, bai. Eta, hango gimnasiokoek jaso zuten txapelketara joateko proposamena, eta eurek gonbidatuta joan nintzen.

Gonbidapena txapelketara joateko, baina gastu guztiak zuen poltsikotik ordaintzen dituzue, ala?

Bai, bai, nahiz eta txapelketa irabazi etxera eramaten dugun gauza bakarra kolpe entsalada izaten da [Barre]. Errusiako eta Bulgariako borrokalariak laguntza handiak izaten dituzte, lurralde haietan borroka arteek garrantzi handia dutelako. Dakidanez, Errusiako presidente Putinek diru-laguntzak bideratzen ditu borroka arteetan jarduten dutenendako, eta jarraipen handia duten kirolak dira. Uste dut, gainera, Joko Olimpiko bilakatzeko eskaria egin dutela, edo hori bultzatu guran

dabiltzala. Horretarako, baina, borrokaldiak babes handiagoz izan beharko dira.

Hiru eguneko asteburu luzea izan zenuen Ginebran. Zelako txapelketa izan zen?

Hegaldi arazoak tarteko gu iritsi ginenerako lehenengo eguneko borrokaldiak hasita zeuden. Hala, gure kategoriako borrokaldiak urriaren 27an izan ziren, goizez sailkapen faseak, eta arratsaldean finalak. Goizean bi borrokaldi gainditu nituen. Lehenengoa bi minutuko saioa izan zen, eta ez dut gogoan kontrarioa nondarra zen. Bigarrena, berriz, Frantziakoa zen, eta borrokaldia 6 minututara luzatu zen. Eta arratsaldean finala izan nuen, suitzar baten kontra; finalera iritsi izana pozik egoteko modukoa bazen, txapelketa irabaztea zer esanik ez.

Egun batean jokatzeko txapelketa osoa.

Bai, bai, derrigorrez izan behar da horrela. Hurrengo egunean ez ginatete izango borrokan egiteko kapaz, gorputz osoa minduta izaten dugulako. Horregatik, egun bakar batean egiten da dena, eta normalean, finalera sailkatzen dena justu-justu iristen da azken borrokaldi erabakigarria.

Kirol gogorra da.


Bai, karatearen barruan dagoen gogorrena dela esango nuke. Karatean posible da txapelketetan esku hartzea, baina beste modalitate batzuetan, puntura, esaterako; hau da, kontrarioaren gorputzera iristea da helburua, kontaktua egon dadila, baina kolpe gogor barik. Gure txapelketetan, baina, ez da asko behar min hartzeko. Azken batean, ostikoak eta ukabilkadak baimenduta daude; esaterako, aurpegira ukabilkada zuzena ez dago baimenduta, baina bai ostikoa.

Non hartzen duzue min gehien?

Hanketan, esaterako, kolpe handiak hartzen ditugu.

Hori ere entrenatu egin beharko duzue.

Bai, noski. Halako txapelketa batarako fisikoki oso indartsu egon behar duzu, baina baita mentalki ere. Sufritzera ohitu behar zara, eta momentu horretan buruari esan ez duzula minik sentitzen. Nire maisuak esaten duen moduan, kontrarioarengan zalantza sortu behar duzu, bere bururarengan duen konfiantza gal dezala; hori lortuz gero asko duzu irabazita. Halako txapelketa bat, baina, ez da bi hilabetean prestatzen. Denbora tarte horretan prestakuntza berezia egin zenezake, baina urte osoan zaindu behar gara, kirola egin, entrenatu...



Dani Barbero —eskuman— Luis Muñoz entrenatzaileaz. | GIARTZU

"Txapelketak gogorrak izaten dira, ez da asko behar min hartzeko"

"Errusian eta Bulgarian baliabide gehiago dituzte borroka arteetan"

"Fisikoki indartsu egotea ezinbestekoa da, baita mentalki ere"

"Arratsaldeko finalerara justu iristen gara, leher eginda egoten gara"

"Txapelketa irabaztea motibagarria da, gogor entrenatzeko"

"Munduko Txapelketara joango nintzateke gustura, baina Japonian da"

Borrokaldiaren aurreko uneak gogorrak izango dira, kontrarioa nor den ikusi eta...

Bai, bai [Barre]. Tentsio handiko una da, baina horretarako entrenatu gara. Nire ustez, baina, askoz okerragoa izaten da txapelketa aurreko astea, oso urduri egoten naiz.

Gainera, 90 kilotik beherako kategorian barruan jende indartsua egongo da, borrokalari handiak izango dituzue aurrean. Badirudi pisu arinetan zailagoa dela min hartzea.

Bai. Ni gorpuzkeraz ez naiz oso handia, baina altua naiz eta kontrarioarendako zaila da ostikada batekin aurpegiraino iristea. Borrokalari asko ni baino askoz txikiagoak dira, hori bai, zelako lepoa duten ikusi eta idia dirudite [Barre].

Euskal Herri mailan asko zarete karatearen barruan Kyokushin egiten duzuenak?

Bueno, gutxi gorabehera, 20-30 lagun ibiliko gara. Egia da txapelketetara joatea ez dela horren erraza, ondo prestatzeko denbora behar delako, tartean lesioak egoten direlako eta motibatuta egotea ezinbestekoa delako.

Gutxi izango dira beterrano mailan ere txapelketetan jarraitzen dutenak, ala?

Ez daude asko, ez. Pablo Estensoro donostiara da beterranoetako bat (Yin-Yang gimnasioko borrokalaria). 35 urte inguru ditu eta urte mordo egin ditu lehian, gazte-gaztetatik. Ea pilak gaztazten ez zaizkion esanten diogu.

Suitzako txapelketa irabazi izanak indarra emango du.

Bai, sekulako indarra, batez ere gogor entrenatzen jarraitzeko. Aurreratu moduan txapelketetan jarduteko motibazioa oso gauza garrantzitsua da. Kirol jarduera hau ez da oso ezaguna, eta baliabide gutxi daude hemen; gainera, oraingo egoerak ez du laguntzen. Baina, kirol honetan aurrera jarraitzeko indarra eman dit, izan ere, aurreko Europako Txapelketan oso zapora garrantzaz amaitu nuen, eta honekin buelta eman diot.

Zeintzuk dira hurrengo erronkak? Munduko Txapelketara joatea gauza handia izango litzateke, baina Japonian da, eta diru asko behar da bidaia hori egin ahal izateko. Egia da estantzia ordainduta izaten dugula, baina bidaia garestia da. Hala, abenduaren 15ean Espainiako Txapelketa jokatu dut Zaragozan, eta lan ona egin nahiko nuke. Eta, 2013an Europako Txapelketan esku hartu nahi dut.



Hiru haur seko lo. | INDEFINIBLE

Gero eta beranduago oheratzen ditugu haurrak

Azken 25 urteotan 30 minutu atzeratu dugu umeak oheratzeko ordua

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Datuok Loaren Ikerketa Institutuak —Instituto de Investigaciones del Sueño— eman ditu. Bertako zuzendari Diego Garcia Borreguerok gaineratu du gomen-dioa dela haur batek hamar ordu lo egitea, eta gaur egungo umeen %60 ez direla kopuru horretara iristen. Horrek ondorioak sortzen ditu haurraren atsedenean; kantitatean zein kalitatean, eta umearen garapenean eragiten du.

Ohitura egokiak
Atsedean hartzea oso garrantzitsua da haurtzaroko heziketa prozesuan. Nerbio-sistemaren egituraketan berebiziko garrantzia dute lo egiten dugun ordu kopuruak, eta atsedean horren kalitateak. Adituak azaldu duenez lo hartu ondorengo lehenengo orduan ematen da handitze-hormonaren sekrezioaren %60.

Kantitatea bakarrik ez, loaren kalitatea ere zaindu beharra dago.

Atsedean gutxi edo eskasa hartzen duen haur batek sumingarritasuna, jarrera arazoak, eta loditasun zein diabetes arazoak izan ditzake. Loaren kalitatea hobetzeko garrantzitsua da familian ordutegi finko batzuk ezartzea, eta ohera joan aurretik aktibitate lasaia egitea. Ipuina irakurri, puzzle bat egin, mimoak edo laztanak egin... Horrela ez bada buruak kontrako mezua jasotzen du.

Oihalezko fardel garbigarriak, aukera ekologikoagoa

L.Z. | ARRASATE
Ingurugiroarekin errespetuzkoagoak dira, eta kostuz ere merkeagoak. Ez daude gurean oraindik oso zabalduta, baina oihalezko fardelak banatzen dituen bikote bat dago Ataunen. Egubakoitzean, Gurasolandiaren barruan antolatutako tailerra egin zuten Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

Materiala hobek

Gloria Urkolak eta bere bikoteak online denda dute. Proiektuak Meita Maitie du izena, eta askotariko produktuak saltzen dituzte bertan: oihalezko ume-eramaileak, bandolerak, motxilak... eta tartean, oihalezko fardelak. "Aurretik ere saldu izan ditugu, baina konturatu ginen ez zutela funtzionatzen. Jendea ez zen gehiagoren bila

itzultzen. Orduan, Australiako bikote batekin jarri ginen harremanetan. Ingurumen teknikariak dira biak, eta sistema berri bat merkaturatu dute", jakinarazi digu Gloria Urkolak. "Kontua da orain ez duzula zertan fardel osoa aldatu behar. Aldatu behar dena xurgatzailea da. Hortaz, umeko nahikoa dira nylonezko sei zorro, eta bospasei xurgatzaile".

Urkolak dio jende gehiena alderdi ekonomikoak erakarritasun pasatzen dela oihalezko fardelak: "Bi urte eta erdian fardelatan 1.800-2.000 euro behar dira umeko. Fardel mota honekin aurrekontua 400 euro da. Eta bigarren umearekin bererabil daitezke".

Ekologikoki jasangarriagoak

Oihalezko fardel garbigarriak lana dute garbitu egin behar direlako, eta Arrasateko tailerrean Urkolak etxean nola konpontzen diren azaldu zuen. Baina ekologikoki jasangarriagoak ere badira. "Sasieta-mankomunitateak, orain, kakarekin zikindutako xurgatzaileak ere konpostara botatzeko baimena eman digu", esan du Urkolak. Azaldu duenez xurgatzaileak, orain, biodegradableak dira. Bestalde, fardel mota horrek haurren azalean arazo gutxiago eragiten dituztela ziurtatu zuen ataundarrak.



Fardel garbigarriak. | GNAPPIES

Eskolako heziketa posturalari buruzko tailerrak eskaintzen ditu Fisioterapeuten Elkargoak

L.Z. | ARRASATE
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoak eskolako heziketa posturalari buruzko kanpaina du martxan. Elkargoko 80 bat fisioterapeuta agertu dira prest interesa agertzen duten ikastetxeetan doako tailerrak emateko. Kanpaina Euskal Autonomia Erkidegoko 8 eta 10 urte tarteko neska-mutilei zuzenduta dago, eta helburua da eskolan nahiz etxean ohitura postural egokiak izateak minei eta bizkarrezurreko lesioei aurre egiteko prebentzio-neurri gisa duen garrantzia ezagutaraztea.

Tailer bakoitzak 50 minutu inguruko iraupena izango du, eta aurkezpen teorikoaz gain, une eta egoera desberdinetan hartu beharreko jarrera eta posturarik egokienei buruzko alde praktikoa ere eskainiko da.

Bizkarreko azaroak gora

Fisioterapeutek azaldu dutenez bizkarreko mina kezkatzeko moduan gehitu da eskola-ikasleen artean. "Halaxe frogatu dute azken urteotako ikerketek. Lan horiek ageri-agerian utzi dute ikasleek bizkarrezurrean dituzten kalte eta minen prebalentzia handia. Kaltetuen portzentajea %39 izan daiteke 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutulen artean. Gaztetxoen artean toraxeko mina da ohikoena, eta nerabeengan, sintoma horiek gerrialdean ere azaldu ohi dira. Min horien prebalentzia gehituz doa pixkanaka-pixkanaka nerabegarora iritsi arte, eta portzentajerik handiena 14-16 urteetan agertzen da". Ikastetxe interesatuek www.tallerposturales.org webgunean aurkituko dute informazioa.

Maite Goñi | Irakaslea eta sare sozialetan aditua

"Ezjakintasuna dago gurasoen artean, eta hortik dator kezka"

MIREIA BIKUÑA / L.Z. | ARRASATE
Arrasateko Gurasolandiaren barruan sare sozialen inguruko hitzaldia egin du Maite Goñik. Nagusiki arriskuak eta segurtasuna izan zituen hizpide. **Zein izan ohi da horrelako hitzaldi baten xedea?**

Gurasoen kezkak argitzea, gehienbat, eta erakustea Internet ez dela soilik sare sozialak. Klik batera web 2.0 mundu oso bat dagoela; denon artean partekatutako moduko jakintza bat. Arrisku batzuekin, bai, baina baita aukera handiekin ere.

Sare sozialak arriskuak dira? Ezjakintasuna dago gurasoen artean, eta hortik dator kezka. Eta erlatiboa da umeek guk bai-



Maite Goñi. | AGIRREGABIRIA

no gehiago dakitela. Ezjakinak dira sinatzen dituzten baldintza-peen inguruan, copyright kontuen inguruan... Ez dira digitalki konpetenteak.

Sare sozialak erabiltzea ona da? Onurak izugarriak dira, eta, nire ustez, gehiago dira arriskuak baino. Gainera, gaur egun, bai ala bai erabili behar ditugu. Gakoa da ondo erabiltzen jakitea. Eta argi eduki ume bat Internetera hurbiltzen hasten denean laguntza behar duela. Kalera irteten hasten den moduan.

Aholkuren bat kezkatuta dauden guraso horiendako?

Gaur egun ia denek dugu profilen bat sare sozialen batean. Eta hori da bidea. Jakin, bestalde, 14 urte behar direla alta emateko. Aukeratu pasahitz seguruak, hasieran kontrolatu erabilera, eta zaindu ordenagailuaren kokapena etxean. Gutxieneko arau batzuk ipintzea ezinbestekoa da, eta negoziatu egin behar dira erabilerak. Nerabe gehienak tuent in daude. Komunikatzeko erabiltzen dute, eta argazkiak igotzeko.



KULTURA



Zapatuko estreinaldiko une bat, Ruth Osinaga –Pilar– protagonista nagusia kantuan dela. Txalo zaparrada ederra jaso zuen amaieran. | JOSETXO ARANTZABAL

Arrakasta erraldoia izan da 'Gigantes y cabezudos' zarzuelaren estreinaldia

13. zarzuelaren bi emanaldi geratzen dira; sarrerak badaude oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurtengo zarzuelaren estreinaldia ere arrakasta borobila izan da. 13 dira dagoeneko eta ziurtasunez baieztatu daiteke urtez urte hobetzen doan fenomeno dela. Arrasaten azaroko azken bi aste bukaerak ez daude ulertzerik Izaskun Murgia elkarte lirikoaren zarzuela barik. *Gigantes y cabezudos* izan da aurtengoa eta bederatz hilabeteko lan mardularen ostean, esfortzu guztiek beste behin ere merezi izan dutela frogatu zuten zapatuan. Atzokoaren ostean, beste bi emanaldi egingo dira aste bukaera honetan.

Dekoratua, jantziak, interpretazioa, ahotsak... igarri zen guztia zegoela ondo zainduta. Eta noski, ezin aipatu barik utzi Iker Olazabalek zuzendutako Arrasate Musikaleko orkestra; itzela musikarien ekarpena. Denera 110 lagunek osatzen duten lantaldea eta guztiak dira arrakastaren erantzule. Umorea –aipagarria protagonistek Zaragozako hizkeran berba egin izana–, amodioa, gorrotoa, emozioa... osagai guztiak izan zituen zarzuelak.

XIX. mendeko Zaragoza Amaiera
XIX. mende amaierako Zaragozako azokan kokatzen da istorioa. Pilar (Ruth Osinaga) da protagonista nagusia. Kubako gerran dagoen Jesus (Bittor Kortabarria)

mutil-lagunaren eskutitza helduko zaio baina irakurtzen ez dakinez, sarjentuari (Arkaitz Garrido) eskatuko dio gutunak zer dioen esateko. Sarjentuak, Pilar maite duenez, aukera aprobetxatuko du Jesus Kuban ezkondu dela eta bueltatuko ez dela asmatzeko.

Jesus Kubatik itzuliko da eta laguna duen sarjentuarekin topo egingo du. Sarjentuak, Pilarren bihotza bereganatzeko asmoz, Jesusi esango dio Pilar ezkondu egin dela. Jesusek, baina, bere neskalagunak hitz eman zionez, ez du hasierako asmoa aldatuko.

Pilarrek ere ezin du sarjentuaren bertsioa sinistu eta Zaragozako Pilar Ama Birjinaren omenezko dantzaldian Antonia (Mertxe Salaberri) lagunak alde aurretik irakurritako gutuna, Jesusek bidalitako azkena, irakurtzeko eskatuko dio sarjentuari. Sarjentuaren gezurra agerian geratuko da bi bertsioak bat ez datozela frogatzeko. Orduan gezurtiak egia osoa aitortuko du eta Pilarrek barkatu egingo du. Amaieran helduko da unerik gorena, Ama Birjinaren omenezko prozesioan Pilar eta Jesus elkartzen direnean.

Helburu solidarioa aurten ere

Aurten ere Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeari laguntza emango diote Izaskun Murgia elkarteok. Conchita Zarragoa, Arantza Zumarraga, Mertxe Arana eta Sabino Uriarte pintoreen lan bana zozkatuko da emanaldi bakoitzean. Zozketarako txartelak emanaldi aurretik eta deskantsuan zehar saltzen dira, euro baten. Gero, deskantsuaren amaieran egiten da zozketa. Helburua da Mumbaiko Ankur umezurztegiaren proiektua eta Mozambiqueko programa aurrera ateratzea.



KONTXI GALLASTEGI
ARRASATE

"Oso polita izan da, igartzen da lan handia egin dutela. Koroa nabarmenduko nuke, emakumeen ahotsak bereziki. Argumentua ere gustatu zait eta barre zein negar egin dut; zenbait une hunkigarriak dira. Asko gustatu zait".



CRISTINA ETXENAUSIA
ARAMAIO

"Primerakoa izan da aurtengoa ere. Urtez urte hobetzen doa eta zoriontzeko moduko lana egin dute guztiek. Ikaragarria izan da, profesionalak direla dirudi. Abestu zein interpretatu, dena egin dute ondo. Zorionak!"



RAQUEL LOPEZ
ESKORATZA

"Oso ondo egon da, dena iruditu zait polita. Borobila izan da, orokorrean. Beste urte batzuetan ere egon izan naiz, eta zarzuela horiek gutxietsi barik, esango nuke aurtengoa izan dela gehien gustatu zaidana".



AGURTZANE ETA SUSANA
PARTE-HARTZAILEAK

"Oso gustura geratu gara, jendeak nola erantzuten duen ikustea izugarria da. Urtero hobetzen goaz eta igartzen da; nerbioak gero eta hobeto kontrolatzen ditugu. Horrek aukera ematen dizu gehiago antzetzeko".

TERE GONZALEZ
ZUZENDARI OROKORRA

"Beldurra nuen zarzuela zaila delako, baina dena oso ondo irten da"

Estreinaldiak dituen nerbioak gainditu ostean eta emaitzarekin pozik, emanaldiaren amaieran gustura hartu gintuen Tere Gonzalez zuzendari orokorra, agertoki gainean bertan.



J.B.

Nola joan da estreinaldia? Pozik emaitzarekin?

Oso ondo joan da, oso pozik nago lantalde osoarekin. Beldurra nuen, zarzuela hau taularatzeko oso zaila delako, baina dena oso ondo irten da. Akatsen bat beti egoten da, baina normala da. Gainera, oso akats txikiak izan dira, eta esango nuke ikus-entzule gehienek ez dutela igarri.

Ziur datorren urterako zarzuela aukeratu duzula...

Bai. Datorren urtean *La taberna del puerto* zarzuela taularatzeko dugu. Duela 13 urte egin genuen, lehen zarzuela izan zena. Aldaketaxoren bat izango du baina orokorrean lehen urte hartako zarzuela bera izango da. Hori bai, urte hauetan guztietan hartu dugun esperientzia aintzat hartuz, ziur desberdina izango dela.

Ikus-entzule batzuei entzun diegu profesionalak direla dirudiela. Ados zaude?

Ez dakit itxura hori emango duten baina dakidana da zarzuela bakoitzaren atzean lan handia dagoela. Bederatzi hilabeteko prestaketak dira, baina aurten ere merezi izan du. Zorionak lantalde osoari.



Proiekzio landuek lagundutako ikuskizuna da Doctor Deseok dakarrena. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Desira eta ameskeriaz jolasean

JON BEREZIBAR | BERGARA

Iratzarririkoa ere amesten jarraitu beharra dagoela diote eta ematen du horixe izan dela talde berezi honen mantra 26 urtean. Mezu horrek ederto biltzen du taldearen filosofia eta belaunaldi baten baino gehiagotan utzi du aztarna -20 urteko jarraitzailetatik hasi eta 50 pasatxo dituzte-

netaraino-; bada, guztiekin, pilotakelua goraino bete zuten zapatuan. Ia 30 urte horietan teatralitatea Doctor Deseoren muinetako bat izan da beti eta oihala gorri eta guzti dakarren ikuskizun eszeniko oso baterako jautzia guztiz naturala da euren kasuan. *Metamorfosis*-en garaietara itzuli eta antzoki ilunetako

ameskeria giroarekin egiten dute jolas. Bergarako pilotakelua ez da antzoki bat, noski, eta horrek kaltetu zuen apur bat daukaten planteamendu landu eta eder hori. Leku hotza, soinu txarrekoa eta arrotza da halako ikuskizunentzat eta pena izan zen. Distirra apur bat kendu zion horrek ikuskizunari, baina oihala lehen

FITXA

KONTZERTUA

DOCTOR DESEO: 'AL AMANECEER SEGUIR SOÑANDO'

Generoa: Rock.

Non: Bergarako Udal pilotakelua.

Eguna: Zapatua, azaroak 17.

Iraupena: 2 ordu.

aldiz zabaldu eta bukaeran itxi artean, Francis eta konpainiak piztutako magia hausterik ez zen egon. Momentu *kabareteroak*,

rumberoagoak eta klasikoak egon ziren baina guztietan ederrena jarraitzaileak dantzara gonbidatu zituztenekoa izan zen: eserlekuak utzi eta eszenatokiaren aurrealdea zoramenak bete zutenekoa. Ordura arteko ikuskizun intimo eta neurtua rock emanaldi indartsu eta festa bilakatu zen. Lehen unetik bilatu zuten emoziozko *in crescendo* hori, abestien aukeraketa eta ikuskizunaren erritmo etenarekin, eta azken zatia grina eta gogoen askatze hutsa izan zen.

Urtarrilean bukatuko dute disko berriaren aurkezpen bira.

Umore topikoaren pagotxa ondo ezagututa, urteak egin daitezke oholzetan

Espaloia bete egin zuen umore topikodun antzezlan oso dibertigarriak barikuan

J.B. | ELGETA

Hamar urte baino gehiago egin dituen ikuskizun batek meritu itzela du, are gehiago antzerkia bada. *Dos hombres solos sin punto com ni ná* lanak Espainian sekulako arrakasta izan du. Piskide andaluziar biren gorabeherak kontatzen ditu lanak. Hainbeste urte eta gero inprobisazioak erabateko pisua du lan honetan, ezin bestela, eta bakarriketak ere sartzen dituzte. Labur azalduta, bi gizon ezkongaberen elkarbizitzak sortzen dituen egoeretan oinarritzen da antzezlan.

Bat, sei arreba eta amarekin hazitako gizon heterosexuala eta maritxu plantak dituena da; bestea, 30 urteko gizon heterosexual gaztea. Bizilagun guztiek uste dute bikote direla. Espainiako telebistan komedia egiteko formula hori bera da *Dos hombres solos sin punto com ni ná* antzezlanean erabiltzen dena: elkarrizketa azkarrak, Andaluziako azentu bizia, hitz joko asko eta gai topiko eta estereotipoen gainean eraikitako txantxak. Barre algarak ez ziren geratu Elgetan, hasi eta bukatu artean.



Antzezlaneko bi protagonistak, Manolo Medina eta Rodrigo Ponce de León aktoreak. | JOSETXO ARANTZABAL

Txillarreko baserriko bake elkarrizketak eraman zituzten atzo oholtza gainera

Oñatiko Santa Anan antzeztu zuten 'Su txikian' "antzerki dokumentala"

J.B. | OÑATI

Politikaz huts-hutsean jardun eta egungo une historikoarekin lotura zuzen hain estua duen antzezlana gutxi egongo da ziurrenik Euskal Herriko antzokietan. *Su txikian* antzezlana oso berezia da, baina. Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek Elgoibarko Txillarre baserri jada famatuan izandako elkarrizketetan oinarritzen da. "Antzerki dokumentala" izeneko generorik balego, halako antzerako izendapena beharko luke antzezlana horrek. Galder Perezek idatzi eta zuzendutako obra da. Urtebete eman dute prestakuntza lanetan eta azaroaren 9an estreinatu zuten. Saio bikoitza egin zuten atzo Oñatin, lehena euskaraz eta bigarrena gaztelaniaz.

Goi mailako emaitza

Gertuko historiari eginiko begiradan gaur egungo gertaeren ulermenerako gakoetan insistitzen da testuan baina karga dramatikoa elkarrizketa prozesu batek pizten dituen itxaropen, aurre eta atzera pausu eta poz zein frustrazioen kronikan ematen da. Tamainako erronka da baita ere aktoreentzat, oso ezagun diren pertsonen zapatak jantzi behar baitituzte eta maila bikainean egiten diote aurre erronkari.

MAÑU ELIZONDO
AKTOREA

"Zintzotasuna izan da lana planteatzeko gakoa"

Proposatu zituztenean, zer pentsatu zenuen?

Berehala erakarri ninduen gaiak. Gaira modu zintzo baten gerturatu gara.

Zailtasunak zeintzuk izan dira?

Testu asko daukan obra da eta hainbeste testu taularatzea ere ez da erraza izaten, gaiari dimentsio teatrala ematea, alegia.

Josu Urrutikoetxea, Rodolfo Ares eta kazetari baten paperak dira zureak. Nola moldatu zara?

Zalantza askorekin ze oraindik presente dirauten pertsonaiak dira. Zintzotasunak bideratzen du guztia eta lan honetan jarrera jator hori oinarritzkoa izan da prozesu guztian zehar.



MIREN ARREGI

UGAITZ ALEGRIA
AKTOREA

"Delikatua da eta galdera asko sortzen dira"

Gaiak berak erronka zentzua ematen dio obrari?

Bai, Noski. Momentu honetan bizi den gatazka bat baita. Delikatua da eta nola kontatu beharra dagoen etengabe galdetzen diozu zeure buruari.

Zauri ireki asko dago oraindik. Inor mintzeko beldur zineten?

Irakurketa batera Imanol Murua, Jesus Egiguren eta Arnaldo Otegiaren senideak gonbidatu genituen, besteak beste. Askok zaindu da. Galder zuzendariaren kezka oreka zen eta haiek esan zuten orekatua zela.

Iñigo Urkulluren papera duzu. Ikusi zaitu hark?

Ez, baina gustatuko litzaidake aurrez aurre egotea.



MIREN ARREGI



Zubia, Arrasateko kanporaketan. | GOIENA

Josu Zubia hirugarren Gipuzkoako txapelketan

Donostian egin zuten atzo iluntzean Gipuzkoako Kantu Txapelketako finala

J.B. | OÑATI

Josu Zubia oñatiar gaztea Gipuzkoako Kantu Txapelketan hirugarren geratu zen. Gitarra hartu eta bertaratutako gozamenarako *Ilargi bete*a abestia kantatu zuen. Horrek konbentzitu eta aurkezten den hirugarren aldirian, hirugarren postuarekin itzuli zen etxera.

Maila ona

Saria jaso berritan oraingoan urduri joan dela aitortzen zuen

atzo Zubiak baina emaitza ikusita lan ederra izan zen berea. Aurtengoa lehiaketa "arraragoa" izan dela ere aitortzen zuen, "kategoria ezberdinik ez delako egon". Lorpenarekin artean ere pozarren, azaltzen duenez, aurten partaide gutxiago egon da baina horrek ez du lehiaketaren maila jaitzi eta lehia gogorra izan da. Garaipena atzo bertan ospatu zuen Josu Zubiak senide eta lagunekin.



Antzezlaren une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Maila altuko eta ezusteko gutxikoa izan zen Trikitilari Gazteen saioa Aramaion

Finala abenduaren 2an jokatu dute zortzi bikote sailkatuek Zaldibarren

J.B. | ARAMAIO

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XXI. txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen zapatuan Aramaion. Final aurreko azken kanporaketa izan zen. 14 eta 19 urte bitarteko gazteentzako lehiaketa da eta azken kanporaketa izan zen zapatukoa. Orain finala

besterik ez da geratzen eta Aramaioko saiotik atera ziren finalean parte hartuko duten zortzi bikoteak. Zalbidarko Udala da antolatzeaz arduratzen dena.

Ezustekoak, gutxi

Zapatuko saioan ezusteko gutxi egon zen sailkapenari dagokionez

eta Itsaso eta Maider Elizagoien ahizpa nafarrek eta Ander Beldarrain oriotarrak eta Nerea Lertxundi aiarrak eskuratu zituzten lehen eta bigarren postuak, alde handiarekin. Bi bikoteen maila gainontzekoen gainetik mantendu zen. Bikote bakoitzak lau kantu jo zituen, trikitiarekin eta panderoarekin. Bikote gehienak gipuzkoarrak izanda ere, Nafarroako ordezkari gutxi bakarrek sekulako maila erakutsi dute aurtengo edizioan ere.

Aurten, Ibai eta Andoni Urbieita anaiak izan dira sorpresa, lehen aldiz parte hartu eta finalerako sailkatzea lortu baitute. Finala, hain zuzen, abenduaren 2an izango da. 17:30ean, Zaldibarko kultura etxean.

Festarako tronpeta sortarekin nahikoa

Txarango eta D-Pintxos taldeek euren lehen lanak aurkeztu zituzten zapatuan Oñatin

J.B. | OÑATI

Kataluniak eta Euskal Herriak badute musikan afizio konpartitu bat eta hori da festarako musika egiten duten talde askok haizeen eta ska doinuz josten dutela euren proposamena.

D-Pintxos legazpiarrek txosna giroko ska eta pop-rock musika egiten dute letra sozial eta festarako melodiekin.

Lau haizetara

Txarangoren kasua bestelakoa da. Mota honetako talde festibo ugari izan ditugu gurean azken urtean eta hauen kasuan ere haizeak, ska, reaggea eta munduko musika ukitu koloretsuak eta mezu alter-mundistak ez dira falta. Hori, baina, halako taldeetan beti hain ohikoa izaten ez den lanketarekin.



D-Pintxos taldea. | JOSETXO ARANTZABAL



EROSKI
zurekin



GURE ARTISTAK

ANGER



Anger taldeko kideak Oiartzungo estudioan. | ANGER

"Bisturia hartu eta gizarteari biopsia bat egin diogu disko kontzeptual honetan"

- ▶ Lan indartsu eta heldua egitea lortu dute, taldearen ibilbidearen isla
- ▶ Grabaziorako estudioan ordu dezente egin dituzte soinu berriak probatzen

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Hirugarren azala disko indartsu eta heldua kaleratzeaz dute Anger taldekoek. Arrasateko laukoteak 15 urte daramatza, musika lagun, gizarte honi kritika zorrotza egiten. Oraingoa bosgarren lana izango da, eta honi buruz eta taldearen ibilbideari buruz hitz egiteko, taldeko Arkaitz eta Beñatekin hitzordua izan dugu.

15 urteren ondoren bizirik jarraitzeko errezeta zein da?

Adiskidetasuna. Anger lagun talde batek sortu genuen, eta gaur egun ere lagun talde bat

izaten jarraitzen dugu. Sekreturik egotekotan hori dela uste dugu, orain dela 15 urte ondo pasatzeko elkartu ginen, eta oraindik ere hori da gure helburu nagusia, musika eginaz disfrutatzea. Horrez gain, taldearen espektatiba eta norberaren bizitza pertsonalaren artean oreka bat aurkitu dugula uste dugu. Taldearen erritmoa oso garrantzitsua da, bolada batzuetan makinak azkarrago funtzionatzen du, beste batzuetan, ordea, astiroago; oreka hori aurkitu eta errespetatzean dago gakoa.

Bide luze honetan taldea asko aldatu da?

Eboluzio natural bat izan dugu. Soinu aldetik, esaterako, aldaketa nabarmena egon da, urte gutti hauetan bakoitzak musika asko entzun duelako eta horrek eragina duelako. Adibidez, teknika hobetu egin dugu, baina azken boladan teknika hori alde batera utzi eta abestien erroetara bidaitzen saiatu gara: kanta on bat egiten saiatu eta teknika abestia hobetzeko erabili.

Nolakoa izan da grabazioa?

Orain artekoekin alderatuz, pro-

sezu ezberdina jarraitu dugu. Aurreko diskoak grabatzeko, lokalean dena ondo pentsatuta geneukan eta egun gutxi batzuetan grabatzen genuen. *Hirugarren azalerako*, ordea, aurrez abestien maketak egin arren, estudioarako denbora luzeagoz joan gara. Bertan, kanta bakoitzarekin froga asko egiteko aukera izan dugu eta horrek diskoan isla duela esan digute. Produkzio handiagoa izan duela esan daiteke.

Berriz ere Josema Linazasorekin grabatu duzue, ezta?

Bai, oso eroso sentitzen gara berarekin eta aurretik esan dudana, hein handi batean, Linazasorekin grabatu dugulako izan da posible. Taldearen ibilbidea gertutik bizi izan du, harekin grabatutako laugarren diskoa da hau, eta gure soina inork baino hobeto ezagutzen du. Momentu batzuetan, gidatu egiten gaituela esan daiteke, gure artean konfiantza handia dagoelako.

Zein da diskoaren nondik norakoa?

Disko kontzeptual bat dela uste dugu, musika aldetik baino, hitzen aldetik batez ere. Letrak egiten hasi aurretik, kontzeptu bat aukeratu eta horri bueltak eman genizkion. Kasu honetan kontzeptuaren abiapuntua espektakulu eta irudiaren gizartea da. Horren bueltan gaur egun hainbat gauza ilun daude eta hori abiapuntu bezala hartuta, lanari ekin genion.

Zer da *Hirugarren azala*?

Izenburua Ramón Fernandez Duran idazle aktibistaren liburu

batetik maileguz hartu genuen. Hala ere, hortik haratago joan gara, Ekainen (baxujolea) esanetan, gaur egungo gizartearen biopsia egin dugu. Bisturi bat hartu eta lehen begiratuaz ikusten denetik haratago joaten saiatu gara. Lehenengo azala gure gorputzeko azala da; bigarrena, metropolia, gure egunerokoan inguratzen gaituena; eta hirugarrenean, komunikabideak, sare sozialak, kontsumora bideratzen gaituen publizitatea... hiper-errealitatearen azala, errealitatea errealeko bihurtzen duen geruza. Azken urteetan, botereak pertsonak hirugarren azal honetan bizitzera eraman ditu, eta hau da gure disko edo istorioaren abiapuntua.

Posible da egun errebelde izatea?

Hasteko, errebeldia zer den definitu beharko litzateke, baina argi daukagu sistemak saltzen duena aurrefabrikatutako errebeldia dela. Horrek ez du esan nahi alternatibarik ez dagoenik, baina sistemak edo botereak ez du horren berri emango.

Banaketa nola egingo duzue?

Auto-ekoizpena izan da Angerren bide naturala. Kaleratu ditugun lan guztiak plataforma independenteen bidez zabaltzen saiatu gara. Oraingoa, *Bonberenea ekintzak*-ekin banatuko dugu diskoa, eszena independentean erreferentea delako. Anger ez dugu espektakuluaren makinaren parte sentitzen, beraz auto-ekoizpena da bidea, gure buruarekin zintzoak izaten saiatu gara.

Sareari zaintza estua, Espainiako Gobernuak

- ▶ Aktibista talde batek lege zirriborro oso zorrotza filtratu du
- ▶ Kanon digitala eta guneak berehala blokeatzeko neurriak proposatzen dira

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Piratas de Cataluña aktibista taldeak lege proposamenaren zirriborroa eskuratu eta jabetza intelektuala babesteko Espainiako Gobernuak dituen asmoen berri eman du. Esku-sartze ia

osoa eta edukien industriak ezarritako baldintzei men egiten dien testua dela salatu du taldeak. Ekainekoa da zirriborroa eta Pirata.cat webgunean aurki daiteke momentuz. Puntu askoren artean nabarmentzekoa da Gober-

nuaren kanon digitala berreskuratzeke ahalegina azaltzen dela, baina kanon hori euskarrietan ordaindu ez ezik zuzenean ere emango die eskubideen kudeaketarako erakundeei Estatuak berak.

Berehalako etetea

Webgune eta sare sozialen gaineko kontrol estua ere proposatzen da eta legez behartu nahi dituzte webguneen jabeak euren espazioetan jasoko dituzten jabe go intelektualdun edukien berri ematera. Hala egingo ez balitz, zigor ekonomikoak ezarriko liratezke. Webguneak blokeatzeko ahalmena ere gordetzen du Kultura Ministerioak. Webguneak itxeko prozedurak ere arinduko lirateke proposamenaren arabera eta nahikoa izango litzateke arau-hauste bat Kultura Ministerioaren webgunean berri eman eta gutziz eteteke. Dekretu bidez, beste ezelako adostasun barik, onartzeko ahalmena du Gobernuak gaur egun.



Wert, Espainiako Kultura ministroa. | ALTI040.COM

Lana bilatzeko atari zerbitzua abiatu du Facebook-ek

J.B. | ARRASATE

Aspalditik zen asmo jakina baina orain arte abiatze ofizialik ez du izan. Aurrerantzean bai, Facebook-ek lana bilatzeko zerbitzua izango du. Aplikazio baten bitartez egiten da eta Social Jobs ipini diote izena zerbitzu berriari. Estatu Batuetan abiatu dute bertako Enplegu Departamenduaren laguntzarekin eta zerbitzu barruan parte hartzen dute *Monster.com* eta *Jobvite* moduko lana bilatzeko atariak, informazioa partekatuz eta hitzarmen bitartez. Momentu honetan 1,7 milioi lan eskaintza baino gehiago

daude aplikazioan eskuragarri. Bilaketak hitz gakoaren bitartez egiten dira, alorra eta lekua zehaztuta.

LinkedIn, jomugan

Orain arte LinkedIn jaun eta jabe zen alorrean sartzen da bete betean Facebook baina momentuz profesionalen sare sozialak dituen abantailak eta funtzionalitateak ez ditu eskaintzen Facebook-eko Social Jobsek. Giza baliabideetako profesionalak ere oso lanabes espezifiko gutxi aurkituko dituzte Facebook-en, bilaketa eta emaila hutsak ematen baitira.

Nabigatzaile bidez musika entzuteko aukera emango du laster Spotify zerbitzuak


J.B. | ARRASATE

Aplikaziorik instalatu gabe nabigatzailetik bertatik streaming-a egiteko aukera eskainiko du aurki Spotify-k.

Publizitaterik ez

iPad-eko aplikazioaren diseinua erabiliko du Spotify-k web bertsiorako. Streaming-eko musika bai, baina gure ordenagai-

lu bertako musikak ez du sarbiderik bibliotekara bertsio horrekin. Aplikazio eskaintza zabalerako aukerarik ere ez du web bertsioak. Spotify-ren eskaintza minimoa aukeztuko da web bertsioan momentuz, musika entzuteko aukera soilik egongo da. Abantailen artean dago publizitaterik ez dela egongo.



Ospakizun mezuaren irudia. | LINE.COM

Hazkunde etengabe jarraitzen du Line mezularitza aplikazioak

J.B. | ARRASATE


WhatsApp da mezularitza aplikazioetan erregea baina azkenaldian erabiltzaile asko gogaituta ditu etengabeko akats eta hutsuneekin. Bestelako alternatibei egiten die horrek mesede eta horietan guztietan Line aplikazio japoniarra hartu du aurrea azken hilabeteetan.

Markak hautsiz

Whatsapp-ek baino zerbitzu zabalagoa eskaintzen du Line aplikazioak eta erabiltzaile asko konbentzitu ditu dagoeneko. Nabarmentzekoa izan ei da Espainian zerbitzuak izandako hazkunde. Multiplataforma da

eta web bitartez ere badu sarbidea Line-ek.

Barikuan, gainera, ospakizun eguna izan zuten, 75 milioi erabiltzailearen muga gainditu baitu doako zerbitzuak, eta esker mezua kaleratu zuten berehala. Batez ere, Espainian eta Latino Amerikako herrialdeetan izan du hazkunderik handiena Line-ek. Hori bakarrik ez, App Storean gaur egun aplikaziorik jaitsien artean aurkitzen da eta herrialde askotan aplikazio jeitsiena bilakatu da azken asteetan. Erabat doakoa da Line eta aditu askoren arabera zerbitzu onena ematen duena da aukera aldetik.



Kontsumoa, grafika baten azaldua. | ALTI040.COM

Datuen kontsumoaren gorakada eragin du iOS-eko akats batek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

iOS6ak dakarren akats larri batek datuen kontsumoa asko igotzea eragin dezakeela kaleratu da azken egunetan eta milaka erabiltzailek horren frogara eman eta salaketak egin dituzte. Akats hori dela-eta, datuen deskarga handia izaten duten aplikazioetan (podcast kudeatzaileak edota *Whatsapp* bera, fitxategiak deskargatzen badira) aurrez galdetu barik fitxategi bera behin eta berriz deskargatzen da. Streaming-a erabiltzen duten aplikazioetan ere gertatzen da hau eta aplikazioak erabili behar dituen datuak behin eta berriz deskargatzen dira, itxura guztien arabera, gai-

luan biltegitatu gabe. Honek modu ikaragarrian igotzen du MB kopurua eta kasu askotan egun gutxitan agortzen da erabiltzailearen datu plana.

Apple-en, entzungor

Apple-en aldetik ez da erantzun edo azalpenik eman momentuz, baina milaka erabiltzailek salatu dute eta zenbait webgunetan gertaera honen frogara zehatza ematen da, *The American Life* webgunean bezala. Zenbait kasutan, erabiltzaileen datuen kontsumoa dela-eta kostu ekonomikoa ere handia izan da. iOS6-ak badauka bertsio berri bat, iOS 6.0.1, deskargatzea komeniko litzatekeena.

Google-eko langileek ere ez dute Google Plus erabiltzen

J.B. | ARRASATE

Google-en sare sozialaren benetako erabilera eta harreara zein den zalantzan jartzen duten albiste asko atera ohi dira. Google-ek dio 100 milioi erabiltzaile aktibo dituztela eta 400 milioi baino gehiago direla altan emandakoak. Datu hauen aurka dator sareak berak aurkezten duen jardura indize murrizta. Azken da, Google-eko langileek ere ez dutela erabiltzen sare sozial hori. *Google Plus Ghosts* webgunean egin dute ikerketa eta ondorioztatu dute Google-eko langile direnek ere ez dutela Google Plus erabiltzen. 2.000 dira Google-eko langile direla dioten pertsonen profilak eta horietako hirutik batek sekula ere ez du profila eguneratu, bostetik bat ez da azken hiru hilabeteetan sarera sartu eta erabiltzaile gehienek jardura tasa oso baxua da.

Aspaldikoak dira Google-en azken saiakera sozialaren porrotaren zurrumurruak baina Google-etik behin eta berriz ateratzen dute erabiltzaile kopurua altua dela.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



'Ghandía Shore', aberrazioa

Ez naiz moralista pape-
ra egiten hasiko, eta
ez dut nire burua gai
ikusten ongiaren eta
gaizkiaren arteko bereizketa
etikoa egiteko, baina MTV
kateak martxan jarri duen
Ghandía Shore programak
(Lehiaketa? Telesaila?) zen-
tzugabekeriaren muga gain-
ditzen duela iruditzen zait.

Gran Hermano tankerako
reallitya da, non gazte kua-
drila batek duen helburu baka-
rra mozortzea eta txortan
egitea den. Besterik gabe.

Amerikako programa
baten kopia merkea da eta
haren pareko fribolitate,
alkohol, oihiu, priapismo lizun
eta eztabaida maila bera dau-
ka, ondo pasatzeko drogen
eraginpean egotea ezinbeste-
koa dela erakutsiz.

Partaideak pertsona gorro-
tagarriak dira (literalki) eta
Ameriketako saioa oinarritzat
hartuz, munduko desfasatu
guztiek jarrera bera dutela
agerian geratzen da.

Kontua ez da balore onak
edo txarrak iradokitzen ote
dituen ezbaian jartzea, balore
hitza agertu ere ez dela egiten
baizik. Eta jaun andreok,
momentuz, milioi bat jarrai-
tzaile ditu estatuan, eta horie-
tako milaka eta milaka, gure
bailara maiteko gazteak
dira.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 19



Harmailatik

Futbol eskoletako
entrenatzaileak for-
matzeko Bergaran
aurkeztu duten proiektu-
az ariko dira. | 22:00

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:13 Zorion Agurrak
- 13:18 Onein
- 13:40 Gipuzkoa kultura
- 14:10 Ekogune
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Zorion Agurrak
- 15:18 AsteON
- 15:58 Erreportajea
- 16:32 Zorion Agurrak
- 16:37 Berriak
- 17:02 Eguraldia
- 17:05 Onein
- 17:30 Abesbatza lehiaketa
- 18:02 Beranduegi.tv
- 18:22 Ekogune
- 18:52 Goierri Creation Center
- 19:19 Erreportajea
- 19:52 Berriak
- 20:12 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 22:00 Harmailatik
- 22:45 Berriak
- 23:05 Eguraldia
- 23:08 Magazinea
- 23:53 Harmailatik
- 00:38 Berriak
- 00:58 Eguraldia

MARTITZENA 20



Gurean gaur

Tokiko telebistek egu-
nero elkarlanean egin-
dako abistegia da
Nagore Uriartek aur-
keztutako saioa. | 21:00

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:22 Harmailatik
- 14:07 Ekogune
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:07 Eguraldia
- 15:10 Harmailatik
- 15:55 Onein
- 16:17 Abesbatza lehiaketa
- 16:50 Berriak
- 17:10 Eguraldia
- 17:13 Esatea libre
- 18:28 Harmailatik
- 19:13 Gipuzkoa kultura
- 19:43 Zorion Agurrak
- 19:48 Berriak
- 20:10 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 22:00 Berriak
- 22:20 Eguraldia
- 22:25 Magazinea
- 23:10 Abesbatza lehiaketa
- 23:43 Berriak
- 00:03 Eguraldia

EGUAZTENA 21



Ekogune

Publizitatearen psiko-
logia eta Lurdenok
proiektua ezagutuko
ditugu aste honetako
Ekogunen. | 22:00

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:08 Hamaika.bit
- 13:38 Erreportajea
- 14:11 Herriz-herri
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Hamaika.bit
- 15:41 Onein
- 16:03 Harmailatik
- 16:48 Berriak
- 17:08 Eguraldia
- 17:10 Goierri Creation Center
- 17:37 Zorion Agurrak
- 17:40 Beranduegi.tv
- 18:00 Bertsos saioa
- 19:51 Berriak
- 20:13 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 22:00 Ekogune
- 22:30 Berriak
- 22:50 Eguraldia
- 22:55 Magazinea
- 23:40 Gipuzkoa kultura
- 00:10 Berriak
- 00:15 Eguraldia

EGUENA 22



Gipuzkoa kultura

Donostiako Untzi
Museoko 'Naufragioak
Euskal Kostaldean'
erakusketa ezagutuko
dugu. | 22:00

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Ekogune
- 13:45 Hamaika.bit
- 14:15 Onein
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Hamaika.bit
- 15:41 AsteON
- 16:21 Ekogune
- 16:51 Berriak
- 17:11 Eguraldia
- 17:14 Gernika Lumo rallya
- 17:56 Hamaika.bit
- 18:29 Planik bai?
- 18:49 Herriz-herri
- 19:23 Zorion Agurrak
- 19:28 Berriak
- 19:48 Eguraldia
- 19:54 Planik bai?
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 22:00 Gipuzkoa kultura
- 22:30 Planik bai?
- 22:50 Berriak
- 23:10 Eguraldia
- 23:13 Magazinea
- 23:58 Ekogune
- 00:28 Berriak
- 00:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 23



AsteOn

Arritxu Barruso kaze-
tariak aurkeztutako
saioan, gaurkotasan
gaien inguruan ariko
dira. | 22:00

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Zorion Agurrak
- 13:10 Gurean gaur
- 13:40 Onein
- 14:11 Abesbatza lehiaketa
- 14:41 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Planik bai?
- 15:28 Erreportajea
- 16:01 Gipuzkoa kultura
- 16:31 Beranduegi.tv
- 16:51 Zorion Agurrak
- 16:56 Berriak
- 17:16 Eguraldia
- 17:19 Planik bai?
- 17:39 Ekogune
- 18:09 Gernika Lumo rallya
- 18:51 Beranduegi.tv
- 19:15 Zorion Agurrak
- 19:19 Berriak
- 19:39 Eguraldia
- 19:42 Planik bai?
- 20:02 Goierri Creation Center
- 20:29 Gipuzkoa kultura
- 21:02 Gurean gaur
- 22:00 AsteON
- 22:30 Berriak
- 22:50 Eguraldia
- 22:53 Abesbatza lehiaketa
- 23:25 AsteON
- 23:55 Planik bai?
- 00:15 Berriak
- 00:35 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

'Igo Autobusera' saioak hiru sari emango ditu aste honetan

Kooltur Ostegunak ekimenak antolatutako Zuloak taldearen kontzerturako eta 'Gigantes y Cabezudos' zazuelarako sarrerak eta Juan Carlos Iri-
zarren *Oñati eta Oñatiko auzoak* diskoa zozketatuko ditugu aste honetan. Hiru sari horietako bat nahi izanez gero, jarri gurekin kontaktuan.

Debako Aisia hotelean bi pertsonentzako asteburua zozketatuko dugu

Azaroko zozketa handia egin-
go dugu aste honetan, Arra-
sate Irratian. Hilebete honetan
Debako Aisia hotelean aste-
buru bat pasatzeko aukera
izango duzue, talasoterapia
eta guzti. Sari hau irabazi
nahi izanez gero, 943 25 05 05
telefonora deitu edo *irratia@
goiena.com* helbidera idatzi.

Sabrina Patok umeen elikaduraren gainean hitz egingo du

Txatxilipurdi elkarteak anto-
latutako Gurasolandia ekime-
naren barruan, Sabrina Patok
elikaduraren gaineko hitzal-
di tailerra egingo du. Marti-
tzeneko Arrasate Irratiko *Igo
Autobusera* saioan izango dugu
tailerraren nondik norakoak
kontatzeko eta umeen elika-
dura nola hobetu daitekeen
azaltzeko.

TELE-ALBISTEAK

Caritas karitate erakundearen berri izango dugu egubakoitz honetan 'AsteOn' saioan

Arrasateko jantoki soziala eta Bergarako Inclusión proiektua

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Gaur egun bizi dugun egoera dela-eta, Caritasek, eliza katolikoak sortutako eta elizaren barruko karitate erakundeak, geroz eta lan gehiago du gure bailaran. Behar berri hauei aurre egiteko asmoz, ekimen berriak jarri dituzte martxan bai Arrasaten baita Bergaran ere.

Arritxu Barrusok aurkeztu-
tako *AsteOn* saioan, Arrasateko
parroko Horazio Argaratekin
eta Caritaseko langile Xabier
Jorrinekin egon dira.

Jantoki soziala eta Inclusión

Karitate erakundeak abian jarri
dituen proiektu berriak ikusiko
ditugu egubakoitzeko saioan.
Alde batetik, Arrasaten zabaldu
duten jantoki sozialaren berri



Etorkinak Bergarako tailerlean lanean. | UBANE MADERA

emango du Barrusok; bertan,
bolondresek dozena bat laguni
jaten ematen diete egunero. Bes-
tetik, Inclusión Bergara proiektua


ezagutuko dugu; bazterketa ego-
eran daudenentzat formazio ikas-
taroak eta lana topatzeko bitar-
tekaritza ditu oinarri.

'Naufragioak euskal kostaldean' erakusketa 'Gipuzkoa kulturaren'

Donostiako untzi museoak naufragioei eskainitako erakuseta ezagutuko dugu

J.D. | ARRASATE

Aurten bete da untzi naufragioen artean entzutetsuena izan zena-
ren lehen mendeurrena: *Titanic*
untzia duela ehun urte hondoratu zen. Hala ere, 1912an beste bi ezbehar handi gertatu ziren euskal kostaldean: *San Ignazio de Loyola* petroleo-ontziaren hondoratzea eta Bizkaiko hainbat arrantza-ontziren naufragioa, galerna izugarri batek harrapatuta.



Hondoratutako ontzia. | UNTZI MUSEOA

Margolanak, grabatuak...

Ezbehar haiek gogoratzeko ekimendietan bat egin nahian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Untzi Museoak aldi baterako erakusketa bat prestatu du Bermeoko Arrantzaleen Museoarekin elkarlanean.

Erakusketak arreta berezia eskaintzen die aipatutako naufragio horiei, baina euskal kostaldean gertatutako beste hainbat ere dokumentatzen ditu, horietako batzuetan jende askok bizitza galdu zuen-eta.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Danel Seijo Fernandez
Azaroaren 25ean, 12 urte. Zorionak mutiko handi! Eta muxu mordoak etxeko guztion partetik.



OÑATI
Malen Guridi Agirre
Azaroaren 25ean, 2 urte. Zorionak, politt hori! Muxutxo asko maite zaitugun guztion partetik eta zoriontsu izaten jarraitu.




ARETXABALETA
Igotz Ojeda Zubizarreta
Azaroaren 25ean, 9 urte! Zorionak familia guztiaren partetik! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo handi-handiak!



ARRASATE
Maren Uribarren Arkauz
Azaroaren 24an, 8 urte. Zorionak, sorgintxo. Muxu handi bat etxeko partetik, bereziki Izarok. Ondo pasatu eguna.



ESKORIATZA
Ander Beitialarriogitia "Txarrantxa"
Azaroaren 24an, 13 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna etxeko guztien partetik. Bereziki aitatxok eta amatxok.



ARRASATE
Xabat Otxandiano Jausoro
Azaroaren 22an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu egun handi honetan. Muak, muak, muak...! Lehengusu, tio eta tiak, amama Ana eta amama Mari, Nora, aita eta amaren partetik.



ARAMAIO
Izar Isazelaia Unzueta
Azaroaren 21ean, 6 urte. Zorionak, txinparta! Muxu handi bat Alaitz, ama eta aitaren partetik.



OÑATI
Ibai Buquete
Azaroaren 21ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun, zure laugarren urtebetetzean! Ondo pasatu eguna. Muxuak familiaren partetik, batez ere Anek.



OÑATI
Iker Isasti Arkauz
Azaroaren 21ean, 3 urte. Zorionak, pirata! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik, bereziki Izarrek. Asko maite zaitugu.



OÑATI
Angelina Erostarbe Igartua
Azaroaren 21ean, 11 urte. Zorionak, guapo! Muxu handi bat ama, aita, Artiom eta familiako danon partetik. Oso ondo pasatu zure egunean.



OÑATI
Antton Oleaga Mugarza
Azaroaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Antton! Ondo pasatu egun berezi hau lagunekin eta familiari. Patxo handi bat eta belarritik sei tirakada.



BERGARA
Iker Gomez Gimbert
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak etxeko partetik eta Iraia eta Juneren partetik, muxu handi bat.



OÑATI
Manex Axpe Intza
Azaroaren 20an, 3 urte. Zorionak, potxolo, eta urte askotarako! Etxeko danen partetik laztan handi bat! Ondo baino hobeto ospatu zure urtebetetze eguna!



ARRASATE
Antonio Fernandez Gago
Azaroaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, aiteite! Ondo pasatu zeure egunien. Muxu handi bat zure txikitxuen partetik: Ibai, Iradi, Ane eta Haitz.



BERGARA
Aimar Sotil Marchena
Azaroaren 19an, 6 urte. Zorionak, pirata! Egun zoragarria euki dezazula zure familia guztiaren eta, bereziki, Marinen partetik marrubizko muxu pila bat.



ARETXABALETA
Unax Larrinaga eta Lia Larrinaga
Unaxek urriaren 18an, 7 urte eta Liak 21ean, 4 urte. Zorionak! Ze nausi in zarien... Patxo potolo bat zeuentzat eta ondo pasatu!



ARRASATE
Xabier Muñoz Iñiguez
Azaroaren 18an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta segi hain jatorra izaten. Musu potolo bat zure familiako eta, batez ere, zure lehengusu piloent partetik.




ARRASATE
Oihana Sanchez
Azaroaren 18an, 27 urte. Zorionak, txptxki! Disfrutatu eguna. Patxo potolo bat.



OÑATI
Martin Arza Maiztegi
Azaroaren 17an, 9 urte. Zorionak, mutiko! Ze handi egiten ari zaren! Besarkada bat. Goiko-Bentako familia guztia.



OÑATI
Jokin Zubillaga
Azaroaren 16an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Muxu handi bat zure familiako partetik!




BERGARA
Maren Leston Ezenarro
Azaroaren 15ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Zazpi muxu potolo etxeko eta, bereziki, Oihanen partetik.



BERGARA
Urko Rodriguez Moreno
Azaroaren 15ean, urtebete. Zorionak, txikitxo! Zelako azkar pasatu dan lehenengo urte hau! Muxu potolo bat familia guztixaren partetik.



ARETXABALETA
Irati Fernandez Herrero
Azaroaren 15ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



OÑATI
Maialen Monzon Valdepeñas
Azaroaren 15ean, 7 urte. Maialen bustirino, gauean gauean, erroldean gabiltza zure portalean, ai Maialen Maialen, ai Maialen, zure bila nebilen zu etorri baño lehen! Zorionak Marixalen! Eta urte askotarako! Aprobetxatu eguna ahal dan gehixen mereziuta dakotzu-eta! Patxo erraldoi bat Olabarta alde honetatik!



BERGARA
Oier Aranes Albisua
Azaroaren 15ean, 7 urte. Zorionak, guapo! Ondo pasatu zure zazpigarren urtebetetzia. Patxo handi bat etxeko partetik.



OÑATI
Danel Diaz de Gereñu
Azaroaren 13an, 2 urte. Zorionak! Bi muxu potolo-potolo familia guztiaren partetik eta bereziki Ibai eta Anek.



BERGARA
Unax Agirre eta amona Mila
Azaroaren 13an, Unaxek 3 urte. Zorionak Unax eta zorionak amona! Astebeteko tartean bi urtebetetze. Txokolatex pastel pila bat danontzat, eta gorde zatitxo bat Uxerentzat be. Muxu potolo bana Ametsen eta familia danaren partetik!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkari zaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Julene Otxoa-Aizpurua

Eskoriatza. 2,950 Kilo. Azaroaren 13a. Gurasoak: Xabier eta Carolina. Argazkian, Julene aitaita Joxe Simonekin.



Xane Astarloa Duñibeitia

Elorrio. 3,270 Kilo. Azaroaren 10a. Gurasoak: Naiara eta Oskar. Argazkian, Xane aita eta amarekin.



Ian

Bergara. 3,340 Kilo. Azaroaren 9a. Gurasoak: Lorena eta Jose Manuel. Argazkian, Ian ama eta aitarekin.



Pello Jauregi Unzueta

Aretxabaleta. 3,860 Kilo. Azaroaren 10a. Gurasoak: Miren eta Iñigo. Argazkian, Pello izeba Elenaren besoetan.



Mario Achiaga Villaverde

Eibar. 3,300 Kilo. Azaroaren 11. Gurasoak: Yolanda eta Javier. Argazkian, Mario izeba Monicarekin.



Markel Lugarizaristi Garcia

Aretxabaleta. 4,020 Kilo. Azaroaren 12a. Gurasoak: Amaia eta Egoitz. Argazkian, Markel jaiberria sehaskan lo.



Udane Gorostiza Aranburuzabala

Arrasate. 3,190 Kilo. Azaroaren 12a. Gurasoak: Idoia eta Iker. Argazkian, Udane jaiberria amaren besoetan.



Ibai Quicios Poza

Eibar. 2,820 Kilo. Azaroaren 13a. Gurasoak: Begoña eta J. Antonio. Argazkian, Ibai izeba Anarekin.



Izei Mendizabal Delgado

Elorrio. 3,570 Kilo. Azaroaren 14a. Gurasoak: Aitziber eta Iker. Argazkian, Izei amaren besoetan.



Itziar Kortazar Olabarria

Eskoriatza. 3,510 Kilo. Azaroaren 14a. Gurasoak: Irma eta Aritz. Argazkian, Itziar jaiberria amarekin.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Zuhaitz mota	Labealdia	Metal mota
Amatatu		Motz	Gurpilik gabeko gurdia
	Tripa		
	Asturu		
Erreten	* Gaika biltzeko hondakina		
Zuhaitz mota	Zaldi gazte		
Beirazko ontzia			Boroa
Behar bezala			Zangoaren atal
		Ozta	
		Musu, pot	
Errepikatuz, gorotza		Elizgizon	
Bilkura, biltzarra		Bokala	
			Naizen hau

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

N	I	A	R	E	B
Z	A	P	A	K	A
I	D	O	I	X	T
B	L	A	T	B	O
R	A	V	A	M	Z
A	P	E	R	L	
L	S	A	B	E	L
Z	L	O	I	T	Z

J	L	O	R	E	A
A	P	L	O	N	I
A	R	F	H	U	A
D	Y	H	O	P	I
T	J	K	L	E	R
O	N	Z	A	I	S
B	G	J	I	O	H
A	L	E	M	A	N

8	2	3	9	6	7	4	5	1
4	6	5	3	2	1	7	9	8
7	1	9	8	4	5	2	3	6
2	8	1	7	5	9	6	4	3
9	3	7	6	8	4	5	1	2
6	5	4	2	1	3	8	7	9
3	9	6	4	7	2	1	8	5
1	4	2	5	9	8	3	6	7
5	7	8	1	3	6	9	2	4



Hieroglifikoak: laz herrian (la-z(h)err-i-n).

SUDOKUA

					9		4
	4	2	5		8	3	7
		6			2		
	5		2		3	8	
9	3			8	4	5	
	8			5	9	6	4
	1			4		2	3
			3				
8	2						


HIZKI SALDA

Topa itzazu Erdialdeko Europako bost herrialde.

A	L	E	M	A	N	I	A	L
U	H	G	J	I	O	X	P	B
S	U	I	T	Z	A	G	R	N
T	N	J	K	L	E	O	Z	O
R	G	U	I	P	E	L	E	T
I	A	Y	H	O	P	T	E	D
A	R	F	H	E	U	W	Y	T
J	I	P	O	L	O	N	I	A
H	A	J	L	T	I	O	R	E

HIEROGLIFIKOA

Aspaldian ikusi duzu Mitxel?



AI, ENE!

Husteko bonbarik behar ez duen komuna

Lasai! Ondokoa ez da gainez egitear dagoen komuna, katilu berezia baizik. Kontuz eskrupulosoekin kafea eskaintzerakoan...
www.quelovendan.com



AHOBERO

"Nahiago hilda egotea gure kartzeletako baten egotea baino"

EDUARDO CARDOZO | BRASILGO JUSTIZIA MINISTROA

Deigarriena esaldia nork esan duen da; izan ere, Cardozoren ministroaren ardurapean daude Brasilgo kartzelak. Izango al du zerikusirik bere hiru alderdikide kartzelaratu izanak? Ministroak orain badaki egitekoen zerrenda nondik hasi.
www.elpais.es

EGURALDIA



Max. 15°
Min. 7°

Egoera egonkortuz joango da. Hego haizearekin tenperatura gora egingo du.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-11-19

HAMARREKOA

Ainhoa Sanchez Miss Araba eta Miss Euskadi izan zen, eta aretxabaletarra bere ibilbidea dabil egiten telebistan: lehenengo, Uyyyyy! kirol saioan, eta orain, Karlos Argiñanorekin nutrizio gaiak jorratzen | TXOMIN MADINA

"Etxetik irteten naizenean, lotsa hantxe uzten dut"

1. Zu zeu zorrotza al zara nutrizio kontuekin?

Zorrotza baino, maniatikoa gehiago. Badaude gauza batzuk jaten ez ditudanak, eta garbi jatea gustatzen zait. Baina asteburuetan irteten naizenean, denetik jaten dut.

2. Zentzu horretan eman dizuten aholkurik baliagarriena?

Denetarik jan behar dela. Nork norbere gorputza ezagutu behar du: zerk egiten dion ondo eta zerk ez jakin behar du; eta denetarik jan.

3. Sukalde kontuez gain, zer erakutsi dizu Karlos Argiñanok?

Nirekin oso ondo portatzen da: nire adineko alaba bat dauka, eta laneko neskatila bezala naiz: beti adi daude, mimoak ematen... Txisteak ere ikasi ditut, baina oso txarra naiz kontatzen!

4. Argitu telebistako misterio handietako bat: zer gertatzen da prestatutako platerekin?

Dena jaten dugu! Bostendako prestatzen du janaria eta taldean hamabi inguru izango gara; beraz, bakoitzari pintxotxo bat tokatzen zaigu. Bost minutuan, dena barrura!

5. Kirol saio baten izan zara, sukaldaritzakoan... Beste zertan sartuko zinateke gustura?

Ni? Edozer gauzatan! Etxetik irteten naizenean, lotsa hantxe uzten dut; azkenean, gerta daitekeen txarrena barregarri geratzea da eta horrek ze inporta du, bada?



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Mundu guztiari, irribarre bat"

"Pentsatzen jarrita eta gauzak dauden moduan daudela ikusita, dauden istiluak, mundu guztia gaizki eta triste... Munduari irribarre bat marrartzuko nioke, gauzek ez lagundu arren denak pozik eta, behintzat, irribarre batekin egoteko".

6. Gaur egun ikusita, edonork esango luke txikitari mari-mutikoa zinenik!

Nik uste dut denok izan dugula garai hori. Beti izan naiz futbolzalea, eta hamabiren bat urterekin beti txandalarekin egoten nintzen. Noiz izan zen aldaketa? Hamabost bat urterekin izango zen, mutilak gustatzen hasi zitzaizkidanean...

7. Inoiz sentitu al zara emakume objektu?

Ez, hori norberak pentsatzen du: zuk zeu sentitu eta baloratu behar duzu, eta horrela, jendeak ez zaitu hala ikusiko. Ulertzen dut fisikoa soilik erakusten dutenak horrela sentitzea.

8. Zure miss edizioan besarkadak ala zangotrakak izan ziren gehiago?

Hor mitoa dago: ez diot horrela portatzen denik ez dagoenik, baina jende normala ere badago: lanarekin, betiko mutilarekin... Lagun onak egin ditut mundu horretan.

9. Foku artean daramatzazu azken urteak. Eta inoiz foku horiek itzailiko balira?

Ez da ezer pasatzen, egingo genuke beste zerbait! Gauzak dauden moduan, lana aurkitzea zaila da, baina beti dago egiteko zerbait.

10. Bietako batek galdu egin behar du: UDAK ala Realak?

Aurkariaren arabera! Ezberdina da: UDAn zuzendaritzan nago, lagunek jokatzeko dute... Eta gipuzkoarra izanda, noski, Realak irabaztea nahi dut!

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Ikusi eta... ikasi!

BBC britainiar telebista publikoko talde bat uztaiala aldean gure artean izan genuen. Mondragon taldea sakonago ezagutzeko nahiak erakarri ditu munduko telebista publiko ospetsueneko kazetariak. Instalazioak ikusi bai eta izan dute ere bazkide eta zuzendaritzan dihardutenekin solasari aritzea aukera. Solasaldiotatik, langileak eurak ari direla krisiari aurre egiteko erabaki zailak hartzen nabarmendu dute. Baina euskal enpresetako egituren eskalan parte hartzen duten langileen arteko parekotasuna egin zaie deigarria. Dutenaren arabera, Euskal Herrian sustraitutako berdintasuneko kulturaren oinarritu den eredu kooperatiboa zaila omen da esportatzea. Niri ordea, harritu egiten nau kanpokoei Euskadiko giza-ekonomiarekiko kultura positiboki deigarri egitea eta aldi berean, guk berezkoa dugun egiteko era honen ordez, EHBilduk, beste eredu ekonomiko iraultzaile bat aurrera eraman nahi izatea. Politikoa berriei gertatu ohi zaien sindromea da aurrekoek egindakoa aldatu nahi izatea. Mesedez, utzi gurea dena bakean.

Amagara estetika zentroa

ESTETIKA ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

- Depilazioa (argizaria, elektrikoa...)
- Laser depilazioa (beltzaranentzako ere bai)
- Solariuma
- Manikura, makillaje iraunkorra
- Betileen permanente eta tindatzea
- Hidromasajea

AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK

- Aparailuak (vacunterapia, ultrasoinuak, cavitazioa)
- Mikrodermoabrasioa
- Fotogaztetzea eta fotoerrealizmatzea

TERAPIA MEDIKO ESTETIKOAK

- Betetzeak (azido hialuronikoa, Radiesse, etab.)
- Botoxa
- Gorputz mesoterapia

UDAZKEN
NEGUKO
ESKAINTZA
%20ko
deskontua

Aurpegi gaztete programa.



Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

PSE: 228/10